

Albaniako Alderdi Demokratikoak erraz menderatu ditu komunista ohiak / 20

Campos: «Ikastolak soka lepotik dutela dauzka Hezkuntza Sailak» / 8



Ezponda nagusitu zen Nafarroako Bertso Txapelketako bigarren saioan / 25

EUSKALDUNON

Egunkaria

Asteartea, 1992ko martxoak 24 / III. urtea / 402. zenbakia / Salneurria: 85 pta. / 5 libera

ACENOR

Greba berriro

Acenorreko langileek gaur berriro ekingo diete Sidenorrek prestatu duen planaren kontrako protesta ekintzei. Lau orduko geldialdiak prestatu dituzte gaurko. / 17

Teniente koronel baten semea hil zuten Madrilen atentatuan

Bere aitaren kotxea martxan jarri zuenean lehertu zen bonba

Espainiako Armadako teniente koronel erretiratu baten semea hil zuten atzo Madrilen, bere aitaren kotxe azpian jarritako lehergailuaz.

Juan Jose Carrasco 26 urteko gazteak autoa martxan ipini zuenean lehertu zen bonba, eta eztandak eragindako zauri larrien ondorioz hil zen anbulantzian eritetxera zeramatela. Leherketa goizeko bederatzietan gertatu zen, militarren etxebizitza batzutatik oso hurbil.

ETAri leporatzen zaio atentatua, eta Felix Carrasco Infanteriako teniente koronel erretiratuaren aurkakoa zen itxuraz.

Tomas de la Quadra-Salcedo Espainiako Justizia ministroak, lehendik emandako mezuari eutsi zion atzoko atentatuari buruz hitzegitean: «Ez da inoiz negoziaziorik egongo terroristekin, etengabeko borroka baizik», esan zuen ministroak. / 4

Citroen AX kotxea txikituta utzi zuen bere azpian jarritako lehergailuaren eztandak. EFE



Eli Galdos.

Diputazioak gaur erabakiko du Muga trazaketa onartu ala ez

Gipuzkoako Diputazioko gobernu kontseiluak gaur erabakiko du autobideko Muga trazaketa onartu ala ez. Ezusterik gertatzen ez bada, aurrera egingo du Lurraldearekin adostutako alternatibak, PSE-PSOEko bost diputatuek aurka bozkatuko badute ere, EAJko seiek (Eli Galdos diputatu nagusia barne) baiezkoa emango diote eta. Ramon Jauregi PSE-PSOEko idazkari nagusiak atzo iragarri zuen sozialistek Muga alternatibaren aurkako botoa emango dutela.

Miguel Sanz Nafarroko lehendakariordeak, autobidearen Nafarroako zatian aldaketarik ez dutela egingo esan zuen, eta Alliren Gobernuak Lurraldea koordinakundearekin ez duela horrelako ezer negoziatu. / 5-6

Bi lagun atxilotu ditu Goardia Zibilak Irunen

Goardia Zibilak bi lagun atxilotu zituen atzo Irunen, ETAko informazio komando bateko partaide izatea leporatuta. Madrileko Entzutegi Nazionalaren aginduz atxilotu zituzten Ignacio Gabriel Txintxurreta, 22 urtekoa eta Francisco Antolin Alvarez, 23koa. Joan den astean Bilbon atxilotutako seiak gartzeleratu egin zituzten atzo Entzutegi Nazionaleko epaileak aginduta. / 4

Abertzaleek eutsi egin diote

Abertzaleen Batasuna (EMA-EB) eta EA-Entau Pais zerrenda abertzaleek ez dute ordezkaritzarik lortu Akitaniako Kontseilurako, baina lortutako emaitzak onak direla azaldu zuten atzo bozaramaleek. Ipar Euskal Herriko botoen % 7,2 lortu zuen EMA-EB koalizioak, eta % 1, aldiz, EA-Entau Paisek.

Espero bezala RPR-UDF da nagusi bai departamenduan eta bai Akitanian. Ihizi-Arrantza-Natura-Ohitura zerrendak eman du ezustea Akitanian, 10 ordezkari lortu bait ditu Bordeleko Kontseilurako. Frantzian ere RPR-UDF koalizioa nagusitu da eta sozialistek inoiz baino boto gutxiago lortu dute. / 8-11



BESTERIK

GIZARTEA

ETBren bitartekoen arrazionalizazioa «txalogarria» dela esan du Amatiñok / 12

ESTATUAK

Nazioaren Egoerari buruzko debatea gaur Madrilen / 19

KULTURA

Andoaineko bertso saioaren berri Laxaro Azkuneren eskutik / 26

ERREGIO HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK HERRIZ HERRI / 10-11

Gure izarra

JEAN LOUIS DAVANT

EUROPAN gaude naski euskaldunak: betidanik geografiaz eta historiaz; gero eta gehiago ekonomiaz eta politikaz. Ezin gara izan Albania ez eta, duela hogei urte, batzuek zioten bezala, «Europako Kuba».

Gure arazoa ez du konponduko Europak: guk dugu egin behar. Baina horretarako eremu berri bat eskaintzen digu. Muga hausten digu. Iparreruntz itzultzen zaituzte hego aldekoak, ez baitago Madril aldean Bruxelles. Hegoruntz itzultzen gaitu ipar aldekoak, hor baitago euskal indarra.

'De facto', ekonomiaz eta kulturaz, bat egiten ari da euskal eremu osoa: biltzen ari, kasik automatikoki, mekanikoki, Newtonen sagarra bota zuen tropismo astunak bultzaturik. Har gatik ez gintuzke gu finkatu behar materialismo hutsak. Bergsonek zioen bezala, «un supplément d'âme» eman behar genuke hor euskaldunek.

Gogo-bihotzen biltzera, zazpi eskualdeen elkartutzera bultza gaitzala euskal politikak, ez alderantziz beti eta gehiago zatitzera.

Gure izarra zergatik ez genuke behin ukan behar Europako banderan? Hamabi baizik ez ditu honek, 50 aldiz USAkoak. Badago arte zabala gure ta beste batzuentzat.

Okasio bila

IÑAKI URIA

KONPONBIDERAKO aukera galdu eta okasio bila darrai Joseba Arregik. «Leitzarango autobidearen kasuan konpromisoak eta konponketak bideragarri gertatu badira, zergatik ez EGUNKARIAren kasuan?» galdetzen zuen Dionisio Amundarainek iazko 'Euskal Kulturaren Urtekarian'. Eta erantzun ere erantzuten zion: «Badirudi, alabaina, jendeari konpromiso eta konponketen aukerak bideragarri gertatu ahal izateko, indar faktikoak atera behar zaizkiola bidera».

Amundarainen galdera bera egingo nuke neronek ere: «noiz iritsiko ote euskararen inguruan diharduen munduak interlokutore izatera?». Ikastolak eta Buesa. Euskal Kultur mundua eta Arregi. Horiek dira interlokutoreak Euskal Autonomi Elkartean.

Lurraldearekin adostutako 'Muga' autobide trazaketa alderdi guztien aurka atera dezake aurrera EAJk Gipuzkoako Diputazioan. Aldiz, EA, EUE eta HB EGUNKARIA laguntzearen alde ari badira ere, EAJk ez dio laguntzarik eskaintzen eta, gainera, publizitate instituzionala blokeatu egiten dio.

Jeltzale asko dago EGUNKARIA eta Euskal Kultur mundua laguntzekotan, «baina... Joseba Arregik erabaki behar du» entzuten diezu bakarka mintzo direnean.

Dionisiok dioen moduan interlokutore indartsuagoak beharko ditu euskal munduak. Ala euskaltzaleagoak Jaurlaritzak.

HEMEROTEKA

EL MUNDO

Frantzia, anti-sistema botoaren gorakada

Atzo hauteslegoari gehien gustatu zitzaiona, alderdi tradizionalekiko ilusiorik eza erakustea izan zen, agintean dagoen alderditik hasita —1960ko hamarkadatik hona izan duen emaitzarik txarrena lortu du—. Birpolarizazio garaiari amaiera iritsi zaio.

Hautesleek faktura handia pasa die sozialistei langabezia eta korrupzioaren gorakadagatik; Miterrandek ez du jakin izan etxeko zauri horiek sendatzen, norabide jakinik gabeko bihurtu den atzerri politikako lorpenekin. Eskuinak eta ezkerrak ez dute jakin sozialisten ahultasunaz baliatzen.

Koiunturaz baliatu direnak alderdi ekologistak izan dira, inkestetan aurrikusitakoa baino emaitza kaskarragoekin izan arren, eta zer esanik ez Fronte Nazionala.

EDITORIALA

egin

Boikota

Litekeena da Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa 'Egunkariarekiko' garatzen ari den ezinikusizko historiak, gauzatzeko moduagatik, sailburuaren zigilu pertsonal handia edukitzea, baina horrela izango balitz, EAJk ez du bere erantzukizuna handiagotu baino egiten gai horren inpasean. Esanguratsua da orain 'Egunkaria' errealitatearen meritua onartu arren, ekimenari boikot intrantsigentea egiten dion euskal alderdi bakarra jelkidea izatea.

J. IRATZAR

ZULET / EL CORREO

EL DIARIO VASCO

Beste inflexio puntua

Eusko Alderdi Jeltzaleko buruzagiek, Barne ministroaren laguntzarekin, ETA, KAS eta HBn aldaketa sakonak ematen ari direla adierazi digute eta euskal demokraten mugimenduak eskatzen dituzte bakebidean aurrera egin ahal izateko. Baina ETAren munduan ustezko aldaketa sakonak aztertu, diagnosia egin, baloratu eta batez ere argitara ematen dituztenak, alderdi demokratikoetako buruzagiak dira, inguru terroristako inork ez bait du hori jendaurrean egiten.

JAIME MAYOR OREJA

ZUZENDARIARI

Sexulinguistika. Jose Martin Apalategiri gutun irekia.

Martxoaren 18ko EGUNKARIAn J.M. Apalategik koordinatuko duen liburu sail berria aipatu zen. Ez nuke Elkar argitaletxearen aldeko marketing egin nahi, ez bait du horren beharrik; ez dakit liburu berri horiek onak ala txarrak izango direnez ere, eta Jose Martin doi-doi ezagutzen dut. Bakarrik bere liburu sailari eman dion izenburuaz ihardungo dut: 'Pertsona eta Sozietatea'.

Azken denbora latz honetan, bi hitz horien lekuan, 'Gizona (edo gizakia) eta gizartea' espero genuen. Baina Jose Martin beti pertsonazalea izan da, 'pertsonartea' ere erabili izan du garai batetan sozietatea esateko; hitzak ez zuen arrakasta handirik lortu, 'gizartea' inposatu zaigu, baina gure gizonak ez du amore eman. Nik esan nahi nion sekulako poza ekarri didala orain erabili duen terminologiak, 'giza', 'gizon', 'gizaki' eta abarren inflazio itzela dela eta nazka nazka eginda naizelako. Xelebrekeriak ere egiten dira gero eta gehiago: zenbaitetan —EGUNKARIAn bestetan bezala— 'arazo sozialak' esateko ez da 'gizarte arazo' ere esaten, 'giza arazo' baizik. Hots, delako arazo horiek, ume txikerrak berengain dituzten aita dibortziatuenak, edota prostatakoak diratekela, diñot nik... Komentariorik ez du merezi 'haur' edo 'ume' hitzen lekuan 'seme' irakurtzen behartzen gaituztenean («ez dago amaren semerik» eta horrelakoak). Orain gutxi dela soziolinguista gazte bati 'gizalinguistika' eta 'andrologia' (helduendako irakaskuntza teknika) hitzak entzun nizkion, belarriak ez baninduen engainatu.

Borondate oneko jendeek diotenez, 'gizonak' sexua baldin badu, 'giza-' erroak eta haren eratorriak sexugabekoak ei dira, 'anthropos' antzeko zerbait. Seguraski 'anthroposari' buruz ere bada zer esan, bainan hori ez da gure kontua. Nik ez dut ulertzen nola hitz baten sexua alda daitekenik, eratorketa egiteko itxuran agertzen denean, ez eta zergaitik 'emazteki' guztiz femeñinoa izanik, 'gizaki' aingeruak bezain neutro den: danak ala inor ez!

Alta, konbentzitua naiz oraingo euskaran 'gizaren' alde egin den aukera ez dela inozentea: inguruko hizkuntz sexistekiko joera mimetikoa da (espainolez 'hombre', frantsesez, 'homme') gure artean aspaldidanik hasi den tradizio jakintsua (eta gure kasuan klerikala, gainera). Herri tradizioan, ordea, 'emazte' zein 'gizon' hitzak sexudunak izan direlakoan nago. Iparraldean espezieko banakoa izendatzeko 'jende' erabiltzen da; hortaz adibide esankorrak badira: Zuberoan hartzak «jende baten itxura duela» esan zuen ihiztari batek (Txomin Peillenen arabera); Amikuze aldean diotenez, «ahuntza ez da kabala eta emaztea ez da jende» (Xarles Bidegainek jasoa): ez dakit zer den jasangaitzago, aintzineko misoginia gordina, ala gaur egungo kultismoaren zurikeria maltzurra.

Dena den, orain dozena bat urte, 'sozietate', 'jendarte' eta 'gizarte' terminoen aukera bazen euskaraz eta Mugikaren hiztegian azken biak agertzen dira. Orain inglesezko 'man' omnipresente hori nola ordezka daitekeen gogoetan ari direnean, euskaldunek 'gizarte', 'giza eskubide' (nahiz eta hauek sexu diskriminaketak gaitzetsi) eta holakoak hautatu dituzte. Ez denok. Horregaitik Jose Martin Apalategiri eskerrak bihurtu nahi nizkion.

ANUNTXI ARANA

Baiona

GAIA JARRITA



Abertzaleak Iparraldeko hauteskundeetan

Abertzaleak bakarrik gira
herriaren salbatzeko
hauteskundeak molde bat dira
eragina izartzeko
igandekoak gai izan dira
bi tantoz aintzinatzeko
ez da hain gaizki bainan ez aski
kukurruko egiteko
bada zer egin gure mezua
herritar danek hartzeko.

JEAN LOUIS 'LAKA'

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: LUZIEN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo/ ☎: 423 90 62/ Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Bakegintzarako zortzi proposamen

BAKEA *bakegintzaren emaitza*

Bakea ez da inoren ondare guztion eginkizun delako. Horrela, bada, etengabeko prozesu kolektibo eta koordinatuaren emaitza, bakegintzaren fruitua eta ez beste ezer, izango da bakea.

Bestalde, bakea ez da zerbait 'neutroa'; edozein pertsonak zein taldeak bere interesen arauera maneiatu dezaken eta maneiatu egin ohi duen balorea da. Maneiu-tentaziotik libre inor ez dagoenez, herriarekiko zintzotasuna, hots, herriaren historiari, egungo egoerari eta etorkizuneko projektuari zintzo atxekitzea izan daiteke, ezer izatekotan, berme bakarra bakearen aldeko jarreren eta ahaleginen benetakotasuna neurtzeko.

Herriarentzat eta herritarrentzat aldarrikatzen den funtsezko ondasuna izaki, ezinbestekoa da herriak eta herritarrek pairatzen dituzten indarkeria guztiez —bake-ezaren agerpideak azken finean— ondo jabetzea, beraien sorrera ezberdinen eta indarkeria guztien arteko erlazioa aztertuz. Eta jarrera eta lan hau ez da bat ere erraza; ez teknikoki aparteko zailtasunik duelako, interesak tarteko direlarik, ikusmolde pertsonalista eta alderdikoiak objetibotasunaren gainetik jartzen direlako baizik.

Ba da, izan, baldintza bat ezinbestekoa dena azterketa honen abiapuntua eta garapena egokia izan dadin. Herri guztiei, jatorrizko eskubidez, subiranotasuna dagokie. Beraz, subiranotasun horri begira aztertu beharko dira herri horren aspirazioak. Eta horrexegatik subiranotasun hori ukatzen zaion artean eta heinean, arrazoia dagoen bezalaxe, subiranotasuna onartzean herrien arteko adiskidetza eta solidaritza areagotzeko bideak zabaldu eta erraztu besterik ez da egiten.

Bakegintzaren mezu biblikoa

Gizasemeon eguneroko ibilbidean gurekin batera bide eginez gauzatu beharreko eginkizuna dugu Bibliak iragartzen digun bakegintza (Is. 9,5; 45,7; Sal. 35,27).

Eta ibilbide hori baketsua izan dadin ba dira mezu biblikoak azpimarratzen dituen zenbait baldintza eta eginkizun, gaur egun aldarrikatzen diren berdintsuak juxtu, hala nola, justizia bidezko askapena, amnistia, berdintasuna, elkarbizitza, Jainkoaren projektu baketzailearekiko zintzotasunaren ezaugarri eta berme izan behar duen herriarekiko zintzotasunaren hitzarmena... Beraz, itun biblikoa ez da botereaz bermatzen den hitzarmena, Jainkoak herriarekiko duen konpromezua baizik.

Eta horrela ondorioztatzen da prozesu baketzailearen erdigunea justizian datzala. Bakearen ardatza, bidea, norabidea eta erizpidea justizia da, ez bait dago bakerik justiziarik gabe. Justizia da bakea sortzen duena eta ez alderantziz.

Bake biblikoa, gaur egun, Euskal Herrian gauzatzea: gure proposamenak

Bakeari buruzko nahasmen interesatuak direla eta, batetik eta indarkeria-guneak areagotu egin direlako, bestetik, ba dira kezkatuta egoteko motiboak. Baina erosta eta kondena hutsetan ez gelditzeko, gure proposamen konkretuak aldarrikatzen ditugu:

— Guztiei, hots, Gobernuari, Armadari, Elizari, alderdi politikoei, hezitzaileei, gizartemugimenduei, talde bakezaleei... zera eskatzen diegu, edozein gatazka bideratzeko elkarrizketaren kultura, kontsentsua, akordio negoziatuak, gogohanditasuna eta solidaritza hobetsi eta bultza ditzatela.

— Pairatzen dugun indarkeria politikoaren egoera deserrotuz joan dadin, harremanen, elkarrizketen, distentsio-keinu zehatzen... indartzea erregutzen dugu.

— Gure Herriaren autodeterminazioa egi bihurtzeko beharrezko baldintzak ezarritako dituen prozesu parlamentarioaren ezarpena eskatzen dugu.

— Dei egiten diegu langileen, intelektualen, artisten, profesionalen... talde guztiei elkarrizketa eta prozesu negoziatzailearen aldeko gogoeta eta ekintzarako plataforma hiritarra, Euskal Herrian, bultza dezaten.

— Amnistia aldarrikatzen dugu, gure Herriaren etengabeko eskakizuna, baketzerako ezinbesteko bitartekoa baita.

— Kartzeletan giza eskubideak errespetatzea eskatzen dugu, eta torturen desagerketa eta, halaber, kartzela-zigorrak presoen sorlekuetan bete ahal izatea.

— ETAri eta Gobernu espainiarrari zera eskatzen diegu: lehenengoari, erasoak geldiaraztea erabaki dezala; bigarrenari, has dezala berehala aldeanitzetako elkarrizketaren dinamika eta bien arteko prozesu negoziatzailea euskal eremuko alderdi politiko guztien partaidetzaz.

— Euskal Herriko Elizarengandik eta beraren ordezkari esanguratsuenengandik edozein instantziatan egin dezaken bitartekotzaren eskaintza itxaroten dugu, Euskal Herriaren baketzeranzko urratsa izan daitekeena eta gaur egun mokoz moko ari diren parteen artean errekontziliapen giroa sortzeko urrats konkretuetatik abiarazteko balio dezakena. Ekimen hauekiko gure atxekimendua eta lankidetza eskaintzen ditugu.

Baketzea gaur egun Euskal Herrian dugun langintza ebanjelizatzailearen funtsezko eginkizun bat da. Eginkizun honen bidez ezagutuko dute katibuei, pobreei, zapalduei... askapen mezua iragartera etorri zenaren (Lk. 4,18) jarraitzaile garela. Bakearen Ebanjelio honetara bihurtzeak eta horretan sinesteak mundu ezberdina egitea esan nahi du, bihotzak aldatzea, gizon eta emakume berriak egitea, solidarioak eta anaikorrak.

C. MOLINUEVO, F. PLACER, F. VERGARA ETA M. ORBE
EUSKAL HERRIKO APAIZEN KOORDINAKUNDEKO KIDEAK

Mikel Bujandaren susmoen itzalak

NORK bere bidea, baina beestena zapaldu gabe erantsiko nioke Mikel Bujandak idatzi zuen azken artikuluaren tituloari.

Hasieratik argi utzi nahi nuke hemen eztabaidatzen ari garen kontua ez dela Opus Deiren alde ala kontra egotea baizik eta beste gauza bat. Nik zuzendariari bidalitako eskutitzaren bidez salatu nuen Bujandaren jokaera, eta adierazten nuen ez dela legezkoa ezta bidezkoa ere Opus Deiren fundatzailearen beatifikazio prozesua tranparen bidez egin dela zabaltzea, datu bat eman gabe, eta gero 'nork bere bidea' aldarrikatzea, hemen ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Egia da azken artikuluan datuak ematen saiatzen dela bere eritziz prozesuak izan dituen abantailak aipatuz: Erreforma ondotik tramiteak arinagoak direla, prozesuaren zati luzeena Madrilen egin dela, eta juez instruktorea zaharra dela. Konforme, horiek datuak dira, baina argi dago datu horiekin ezin dela oso urrutira joan. Oker dabil azken hamar hamabost urteak aztertu dituztela bereziki, eta okerrago testigantza eman duten lekukoen datuak ematerakoan. Ez dira hirurogei izan, baizik eta larogei ta hamabi, eta horietatik, berriro errepikatuko dizut, erdiak baino gehiago ez ziren Opusekoak.

Hemen bukatzen dira bere benetako datuak eta hemendik aurrera irudimenari askatasun osoa emanez susmoen itzalak suspertzeko ahalegin guztiak egiten ditu. Harritzekoa da diruaren kontua hemen ere ateratzea. Zer gertatu da, Opus Dei sartu denetik garestitu egin al dituzte Vatikanoan beatifikazio prozesuak? edo Opusek erosi al ditu beatoak egiteko Elizako 'partizipazio' guztiak? Hori ere entzuteko modukoa izan da!

Gotzaien eskaera ulertzeko ez da hainbeste korapilorik egin behar. Kinberriala izango da Elizak dituen gotzai guztien herenak prozesuaren hasiera eskatzea, baina 'kinberrialagoa' da hiru gotzaietatik, hasiera eskatu ez zuten biak, prozesuaren kontra daudela pentsatzea. Orduan Kataluniako azken hauteskundeetako abstenzioa ikusi ondoren erabaki beharko genuke ia ia kataluniar erdiak Puyolen kontra daudela. Ez dute parte hartu eta kitto!

Zirarda aipatzen duzu zure aldera eraman nahiean, baina hona hemen, hilabete honetan bertan berak esandakoak: «Es justo que los navarros al igual que los miembros del Opus Dei demos gracias a Dios por el gozo que nos concede al enriquecer nuestra historia religiosa con la exaltacion de figuras que supieron vivir y morir de amor de Jesucristo desviviendose para dar testimonio del Evangelio» (Elizbarrutiko Aldizkari Ofizial. Martxoa) Ez dut gehiago esan beharrik.

Hala ta guztiz ere Bujandak argudio interesgarriak erabiltzen ditu; begira zer dion: «Halako auzibidetan, teknika prozesalak ezagutzeak ematen du bentajarik gehien» eta «Gainera, talde profesionalizatua, osotara honetara urtetan emana funtzionatzen badaki Opusen aparatoak». Ez nuen pentsatzen azkenean arrazoia emango zidala, zeren eta hau baita nik defenditzen dudana: ez da txantxetako lana egin prozesu honetan. Ba zekiten parte hartu dutenek eta ez dutenek horrelako zirikatzaileak sortuko zirela, arrazoi handiago prozesuaren azterketan zirrikitu bat ere ez uzteko. Gainera mundu profesionalean Opuseko bazkidei egiazko seriotasuna exijitzen batzaie, nola ez kasu honetan!

Amaitzeko, Bujandak dio Opus Deiko fundatzaileak bizitzaren erdia saindu ofizial egin zezatela eskatuz pasatu zuela. Argi ageri dira hemen ere Bujandaren hutsuneak. Ez dakit nondik ateratzen dituen gizon honek zurrumurru hauek baina benetan Berak zabaldu zuena da kristau guztiak santutasuna lortu behar zutela bere eguneroko eginbeharrak eginez eta bere lanaren bidez. Baina gauza hauetaz hitzegiteko ere zeozer jakin baher da. Ez da nahikoa zabor guztiak besteari burutik-behara botatzea.

JUAN CARLOS MUJIKA
EKONOMILARIA

BERRIAKZIRI



GABRIEL URRALBURU
PSNko idazkari nagusia
ABC

«Ajuria Eneako Hitzarmena gainbehera doa alde guztietatik»



IÑIGO IRUIN
HBko buruzagia
EL DIARIO VASCO

«Euskal alderdiak prest baldin badaude subiranotasunaren konpromezu politikoa hartzeko indarkeria soberan dago»

ALEXANDER BESMERTNIJ
Ministro sovietar ohia
EL MUNDO

«Perestroika diseinatu zuten politikoek ez zuten Soviet Batasuna bereizteko inolako asmorik»



JEAN MARIE LE PEN
Fronte Nazionaleko lehendakaria
DIARIO 16

«Inmigrazioaren arazoa Frantzia zein Europa-rentzat hil ala biziko kontua da»

ZAKILIXUT

© Olariagak



Teniente koronel baten semea hil da Madrilen izandako atentatuan

Aitaren autoa martxan ipintzean lehertu zen azpian jarritako bonba

Espainiako Armadako teniente koronel baten semea hil zen atzo Madrilen izandako atentatuan. Kotxe azpian jarritako lehergailuak goizeko bederatziak eta bostean egin zuen eztanda, Juan Jose Carrascok ibilgailua martxan jartzerakoan.

MADRIL

Eztandak zauri larriak eragin zizkion gazteari zango eta sabelaldean. Berauen ondorioz anbulantzian Doce de Octubre ospitalera zeramatzatela hil zen.

Atentatuan erabilitako lehergailua 'lapa' motakoa da, autoaren azpiari iman baten bidez atxikitzen zaiona. Artikulua idazteko unean oraindik zehazteke zegoen zenbat eta zein motatako leherkaria zeukan.

ETAri leporatzen zaion atentatu hau Madrileko Puente de Segovia eta Saavedra Fajardo kaleen gurutzean gertatu zen, Paseo de la Ermita del Santo-n dagoen militarrentzako etxebizitzetatik oso hurbil eta bestetan ere atentatuak izan diren aldean.

Gaztea gidatzera zihoan Citroen AX gorria, M-3967-IP matrikuladuna, aparkatuta zegoen eztanda egiteko unean. Hildakoaren lehengusu batek ospitalean adierazi zuenez, kotxea Felix Carrasco Infanteriako teniente koronel erretiratuarena zen baina normalean ez zuen erabiltzen eta horregatik semeak gidatzen zuen. Juan Jose Carrasco bizi zen etxeko atezaina atentatuaren lekuko izan zen eta azaldu zuenaren arabera, gaztea etxetik atera eta handik gutxira eztanda bat entzun zuen.

Citroen AX kotxea erantsita zuen lehergailuak eztanda egin ondoren. EFE

Ondoren, Juan Jose Carrasco gaztearen gorputza odoletan ikusi zuen, alde baterantz ahozpez etzanda eta konortea galdu gabe.

Polizia etorri zenean atezaina etxera itzuli zen eta Felix Carrasco teniente koronela hurbildu zitzaola, anbulantzian zeramaten pertsona bere semea zela aitortu behar izan zion, beti ere lekuko honen adierazpenei jaramon eginda.

Ospitaleko zuzendariak aditzera eman zuenez, gaztea eritetxera heldu baino lehen hil zen, zauriek eragindako bihotz gelditzearen odorioa, zainketa berezietarako unitatean bere onera ekartzeko ahaleginak egin bazituzten ere.

Doce de Octubre ospitaleko iturri berberen arabera, hildakoaren aita, Felix Carrasco, bertara joan zen bere semearen osasun egoeraz jabetzeko eta jarraian polizi patruila batek etxera eraman behar izan zuen. Gorpua ospitaletik Institutu Anatomiko-Forensera eraman zuten autopsia egiteko.

Juan Jose Carrascok 26 urte zituen eta Ekonomia ikasketak bukatu berriak zituen. Bost anaia ziren familian eta horietako bat Armadan sartua zegoen, baina ez ordea hildakoa.

Atentatua izan eta lasterrera Jose Maria Alvarez de Manzano Madrileko alkatea eta beste zenbait pertsonalitate hurreratu ziren.

ETAk Valenciako polizien aurka iharduteko asmoa zeukan

VALENCIA

Estatuko Segurtasun Indarretako partaideak, enpresariak eta izenak ezagutzera eman ez diren Valenciako jende ospetsuak ziren, besteak beste, ETAk hurrengo atentatuetarako helburutzat hartutakoak. Hala diote atzo Poliziak Valencian aurkitutako etxean zeuden paperek, iturri judizialek aditzera eman zutenez.

Ustez Rosario Delgado Iriondo eta Juan Jesus Narvaez Goñik erabiltzen zuten pisuan armak, lehergailuak, leherkariak, hainbat agiri eta ETAko komandoaren helburuak izan zitezkeenen zerrenda aurkitu zuen Poliziak, atzo Francisco Granados Estatuaren ordezkariak Valenciako Komunitatean ziurtatu zuenez.

Bilbon atxilotuak gartzeleratu egin ditu epaileak

MADRIL

Entzutegi Nazionaleko goardiako epailearen aginduz, gartzelaratu egin dituzte joan den asteazkenean Polizia Nazionalak Bilbon atxilotu zituzen sei pertsonak, ustez ETAko Mugarri komandoko partaideak eta laguntzaileak izatea egotzita.

Iñaki Rekarte eta Luis Galarzari Mugarri komandoko partaideak eta ETAko liberatuak izatea leporatu die Polizia Nazionalak. Jokin Nuñez, Ramon Aldaña, Ana Isabel Morante eta Idoia Zamakonari, berriz, Asturiasen eta Cantabrian ihardutea leporatzen zaion komandoko laguntzaileak izatea egozten diete.

De la Quadra: «Ez da negoziaziorik egongo, etengabeko borroka baizik»

DONOSTIA

«Ez da negoziaziorik egongo terroristekin, etengabeko borroka baizik» adierazi zuen atzo Tomas de la Quadra Espainiako Justizia ministroak Sevillan. «Sueten edo antzeko posibleaz ez zait gainera inolako ilusiorik piztu» gaineratu zuen. De la Quadraren iritzian, ETAk «oso estrategia zehatza dauka 92an eta bere aurkako borrokan jarrerak tinkoa, tematsua eta gogorra» izan behar du. «Beraz —erantsi zuen— ez da txantaiaren aurrean makurtu behar, ezta Segurtasun Indarren eta alderdi politikoen ahaleginetatik ez datorren ilusioetan sinestu behar».

PSOEk «gaitzspenik latzena» adierazi zuen atzo Madrilen izan zen atentatua dela eta, eta berretsi egin zuen ezin dela «elkarrizketarik egon, ez talde terroristarekin ezta lagundu eta justifikatzen dutenekin ere».

> ETAren kontrako estrategian «karta guztiekin jokatzea» leporatu zion PPk Gobernuari.

Atzo igorritako oharrean PSOE Ajuria Eneako eta Madrileko Itunei lotu zitzaien, berauek zehaztutako bidea «ETAko terroristak isolatzen segitzeko zuzenena eta eraginkorrena» dela argudiatuta. Herritarrei laguntza eskatu zien, Poliziari ETAren aurka borrokatzen lagun diezaioten.

ETAren kontrako estrategian «karta guztiekin jokatzea» leporatu zion PPk Gobernuari. «Azken urteotan ez da horrelako nahasmendu girorik egon» adierazi zuen Rodrigo Rato PPko bozeramaleak. «ETAren ekintzarako gaitasuna handiagotu egin dela eta», PPren kezka agertu zuen. «Azkenaldian gainera, Gobernutik eta PSOEtik urrun egon ez diren gertaerak izan dira, eta horrek nahasmendua baino ez du ekarri herritarren artean» esan zuen Ratok.

EEk atzo igorritako oharrean HBko «ingurukoei» dei egin zien ETAren atentatuak gaitzetsi ditzaten, «jendaurrean ez gaitzestean, isiltasunaz basakeria honi babesa ematen diotelako», oharraren arabera. Garraixi Ixila elkarteak 116 kontzentraziotarako dei egin du biharko, Madrileko atentatua gaitzesteko.

Goardia Zibilak bi pertsona atxilotu zituen atzo Irunen

DONOSTIA

Ustez ETAren laguntzaile izateagatik, bi pertsona atxilotu zituen atzo goizaldean Goardia Zibilak Irunen. Ignacio Gabriel Txintxurreta, hogeitabi urtekoa eta Francisco Antolin Alvarez, hogeitahirukoa, dira atxilotutakoak. Mugarri izeneko ETAko informazio komandoa osatzea leporatzen diete iturri polizialek.

Madrileko Entzutegi Nazionalaren aginduz atxilotu zituzten Irungo beren etxeetan, goizaldeko ordu bi t'erdiak eta goizeko zazpiak laurden gutxiagotan. Ignacio Gabriel Txintxurreta atxilotu zutenean honen anaia ere eraman zuen Goardia Zibilak, baina handik ordu batzutara libre utzi zuten. Txintxurreta eta Antolin Madrileko Goardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusira eraman zituzten atzo bertan.

1986 eta 1987. urteetan aipatutako informazio komandoan aritu zirela biak diote polizi iturriek, eta Juan Ramon Rojo Gonzalez, ustez Bizkaia komandoko kidea eta Jose Ramon Goñi ere taldekoak izan zirela.

Aipatutako iturrien arabera, 1987. urteko irailean Santiago Arrospide, 'Santi Potros', atxilotu ondoren ez zuen gehiago funtzionatu talde honek eta komando 'legal' bat osatu zuten Antolin Alvarez, Goñi eta Rojok, Donostia komandoaren laguntzaile modura. Ignacio Rekarte, ustez Mugarri komandoko kide izatagatik joan den astean Bilbon atxilotu zutena ere taldekidea zela diote eta Antolin Alvarez, berriz, taldetik kanpora geratu zela atentatuetan parte hartu gabe. Santandarren bonba-kotxez egindako atentatua leporatu die Poliziak.

Paktuarekiko jarrerak arintzeko eskatu die Agirianok alderdiei

PPk eta EEk Ajuria Eneako Hitzarmena «lehenbailehen» biltzeko eskatu dute

EAJk Leitzarango autobidearen auzian izan duen jarrerak egoera larrian jarri du Ajuria Eneako Hitzarmena. PP, EA eta EEk Muga trazaketa onartzeak ituna baliogabetuko duela dioten bitartean, Jose Antonio Agiriano Madrileko Gobernuko ordezkariak jarrerak eta iritziak arintzeko eskatu die.

DONOSTIA

Agirianok dei egin zien atzo alderdi politikoei Ajuria Eneako Hitzarmenari buruz argitara emandako iritzi eta jarrerak arin dezaten eskatzeko. EAJk Leitzarango autobidearen auzia behin-betirako argitu nahi du, Muga izeneko trazaketa onartuz. Jeltzaleen jarrera hau Hitzarmenaren edukiaren kontrakoa da PP, EA eta EEren iritziz, eta Muga onartuz gero ituna kinka larrian geratuko dela adierazi dute azken egunotan.

Atzo adierazitakoa ez duela Madrilek aurretik esandakoarekiko aldaketarik agertzen onartu ondoren, Madrilek EAEn duen ordezkariak Ajuria Eneako Hitzarmena alderdikeria gisa ez erabiltzeko eskatu zien alderdiei. «Ituna sendotu behar dugu» esan zuen Hitzarmenaren defentsan.

OLIVERI, MAYOR OREJA, BANDRES

«Egun egin daitekeen gogoeta bakarra zera da: Gobernuak Itunari ematen dion garrantzia gogoratu, eraginkortasuna eta baliagarritasuna erakutsi bait du» zehaztu zuen Agirianok.

Jose Antonio Agiriano Madrileko Gobernuaren ordezkaria. OLALDE

Aldiz indarrean lau urte pasatxo daraman Ajuria Eneako Itunaren baliagarritasuna zalantzan jarri dute Inazio Oliveri, Jaime Mayor Oreja eta Juan Maria Bandresek, EA, PP eta EE alderdietako ordezkariek. Euren iritziz, jeltzaleen jarrerak «lurperatu eta baliorik gabe» utzi dute Hitzarmena, eta oraindik ez badute azken erabakia hartu, zalantzan jarri dute hurrengo bileran Ajuria Enean izango diren ala ez.

EEko batzorde exekutiboak Jose Antonio Ardanzari Ajuria Eneako Hitzarmenaren bilera «lehenbailehen» deitzea eskatu zion atzo. Dei honekin bat egin zuen PPk. Muga trazaketaren balizko onarpena aztertzeko eskatu du bilera alderdi honek. Bilera «erabakia hartu baino lehen» egin beharko litzateke, PPren ustez, «erabakia hartu ondoren ez bait luke zentzurik».

EAJk Lurraldearekin negoziatu du Muga trazaketa eta HBren oniritzia baino ez du lortu. Oliverik atzo esan zuenez, Lurraldearekin adostutakoa Ajuria Eneako Hitzarmenak pasa den urteko arazoak 21 onartutakoaren aurkakoa da. «Paktua hautsi du EAJk» esan zuen. Ituneko bileran onartutakoaren arabera HBrekin pakturen bat egiteko mahaikideen oniritzia eta adostasuna behar beharrezkoa da.

Ajuria Eneako Hitzarmena «baliorik gabe» geratu da Oliveriren ustez, EAJk Lurraldearekin trazaketa aldaketa onartu eta gero. «Eztabaida tokia beste leku batera eraman du EAJk eta akordioak hautsi ditu mahaia mantentzeko interes gehien izan behar zuen alderdiak» adierazi zuen.

Jaime Mayor Oreja EAEko PPko idazkari nagusiak esan du ez duela hurrengo bileran parte hartuko, gaur EAJk autobidearen trazaketa aldatzen badu. «Hori gauzatzen badute —adierazi zuen— paktua lurperatuko dute». PPko batzorde eragilea gaur bilduko da alderdiaren estrategia zehazteko.

Euskadiko Ezkerrak aldiz, atzo aztertu zuen trazaketa aldaketak eragin dezakeena. Hala ere, Juan Maria Bandres EEko lehendakariak bere alderdiak ez duela Ituna hautsiko iragarri zuen, nahiz eta jeltzaleen jarreraren ondorioz ahuldu dela onartu zuen. EAJk eta PSE-PSOEk ez dute adierazpenik egin Ajuria Eneako Hitzarmenari buruz, baina bi exekutibak atzo aztertu zuten aldaketak paktuan izan dezakeen eragina.

EAJ eta HBren arteko elkarrizketei dagokienez, elkarrizketak berrikustea eskatu zion atzo Partido Popularrak alderdi jeltzaleari. Koronel espainiar baten semea hilik gertatu zen Madrilgo ekintzaren ondoren zabaldutako agiriak dioenez, koalizo abertzaleak mota honetako ekintzak gaitzesten ez dituen bitartean, «Herri Batasunaren munduarekiko hurbilpenik ez egitea» eskatzen du PPk.

Era berean, gainerako alderdiei «gaur egun oraindik hiltzen ari direnei inolako arrakasta politikorik» ez eskaintzea eskatzen die eta Herri Batasunari «ekintza berri honetaz zerbait esan dezan» esijitzen dio. PPren ustez, «alderdi demokratikoek ekintza hau agiri eta hitzez kondenatzeaz gain, keinu politikoez ere» kondenatu egin behar dute.

EA: «Eli Galdos deslegitimatuko du trazaketa aldaketak»

DONOSTIA

EAJk gaur Gipuzkoako Diputazioko gobernu kontseiluan Leitzarango autobidearen trazaketa aldatzea erabakiko duela eta, Eusko Alkartasunako Exekutiba Nazionalak agiri bat kaleratu zuen Iruñean egindako bileraren ostean. Jeltzaleen erabakia «herri borondateari eta instituzio demokratikoei mezpretxu egitea» litzateke EAren ustez. Baina trazaketa aldaketa Eli Galdos diputatu nagusia bera ere «era moralean deslegitimatu» egiten duela uste du Carlos Garaikoetxearen alderdiak, «Gipuzkoako herritarrak ordezkatzeko gai ez dela azaltzen ari delako».

EAren agiriak Eli Galdosek joan den irailean, Batzar Nagusiek A-2 trazaketa ofiziala berretsi zutenean esandakoa gogoratzen du. Azken erabakia alderdi politikoei eta Batzar Nagusiei dagokiela esan zuen diputatu nagusiak. «Orain, EAJk, Galdos buru duela, berak bakarrik erabaki nahi du trazaketa aldaketa, instituzioetan agertu den gehiengoaren borondatea erespetatu gabe» dio EAk.

Alderdi honen Exekutiba Nazionalak EAJri eskatu zion Batzar Nagusiek onartutakoa bete dezala eta bertan azaldu ditzala trazaketa aldaketarako arrazoiak.

Jose Antonio Ardanza, EAEko lehendakaria ere kritikatu zuen, «bere lidergo eza nabaria da eta instituzio demokratikoen funtzionamenduari egin zaion erasoari eman dion erantzuna ixiltasuna izan da». Patxi Baztarrika, Euskal Ezkerrako bozeramalearen esanetan, «PSOEk, diputatu kontseiluko partaide den eran, eragotzi egin behar du Diputazioak Batzar Nagusietako erabakiari kontra eginez trazaketa aldatzea». EUEren ustez hori izan beharko luke PSE-PSOEren «betebeharra».

Gobernuak ez du negoziazioa baztertu behar Peter Janke adituak dioenez

DONOSTIA

«Gobernuak negoziaketak alde batera utzita arazoari heldu nahi badio, oker dago. Eta hau penagarria da» adierazi zuen atzo Peter Jankek, 1985 eta 1986 urteen bitartean Eusko Jaurlaritzaren aginduz Indarkeriari buruzko txostena' egin zuten adituetako bat. Txosten haren inguruan koordinatzaile lanak egin zituen aditu honen iritziz, elkarrizketarik ez izatea, ez hitzegitea, txarra da. Hala ere, «negozia ezazue» motatako aholkurik ez zutela eman aitortu du «hori momentu horretan boterea duten politikarien erabakia delako, Gasteiz eta Madrilek nork, noiz eta zein baldintzatan egin behar den elkarri esan behar diotelako». Atzo Bilboko egunkari bati eginiko adierazpenetan noiz negoziatzen den taktika kontua dela argitu du Peter Jankek. Era berean, erabaki hori politikoa dela dio eta «bakarrik politikoa izan daiteke unearen aukeraketa izugarrizko garrantzia duelako» gaineratu du.

Orain 6 urte, txostena argitaratu ondoren, sortu zen iskanbilagatik adituek zein eta nolako negoziaketak egin eta zein motatako solaskideak erabiltzeaz ezer gutxi esan bazuten, orain argiagoa da Janke. «Mota honetako negoziaketetan hauek oztopatu eta lagunduko dutenak egotea oso posible da. Baina ekintza terroristak egiten dituztenak kontrolatzen dituztenekin elkarrizketatu behar da. Bestela, okerreko jendearekin negoziatzen ari zara» dio. «Zalantzarik gabe» solaskide bat aurkitu behar da.

Jankeren iritziz, 1985ean Euskal Herrira berak eta beste lau adituek, Sir Clive Rose britaniarra, Franco Ferracuti italiarra, Jacques Léauté frantziarra eta Hans Horchem alemaniarrak, egindako lanak Gasteizko Gobernua eta Madrilekoaren arteko kontakturik eza haustea lortu zuen. «Ministroek ez zuten elkarrekin hitzegiten, telefonoak eskegiten ziren. Ez zegoen modurik Retolazak Barrionuevorekin hitzegin zezan». Lanean jarri eta Jauregiren bitartez Gonzalezekin hitzegin zuten, eta Madrileko Gobernuaren onespena jaso.

KULTURA SAILA

ARABAN, KULTUR EKINTZAK AURRERA ATERATZEKO ETA KULTURA INDARTZEKO "ARABA", "KULTURA" ETA "MATEO MORAZA" SARIAK

Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak ekintza kulturalak aurrera eramateko eta kultura indartzeko, ondoko sarietarako deialdia zabaldu du:

"ARABA" saria, 500.000 pta eta oroigarria, Arabako Lurralde Historikoko Udalei zuzendua.

"KULTURA" saria, 350.000 pta eta oroigarria, Arabako Lurralde Historikoko Kultur Elkarteei zuzendua.

"MATEO MORAZA" saria, 150.000 pta eta oroigarria, gizabanakoei zuzendua.

Deialdiaren oinarriak interesatuen esku daude Erregistro Orokorra eta Kultura Negoziatuan (Probintzia Enparantza, 5ean, Vitoria-Gasteizen).

Interesa duzuenak aurkezteko epea, 1.992.eko Apirilaren 10ean itxiko da.

Vitoria-Gasteizen, 1.992.eko Martxoan.

FORU DIPUTATUA - **Pedro Manuel Ramos Calvo**

DIPUTACION FORAL DE ALAVA ARABAKO FORU ALDUNDIA

Irurtzun-Andoain autobidea

Nafarroako Gobernuak ukatu egin du Lurraldearekin negoziazioa dagoenik

Nafarroako Parlamentuak onartutako trazaketa aurrera eramango duela dio

Nafarroako Gobernuak ez duela autobidearen aldaketak Lurraldearekin negoziatu adierazi zuen atzo Miguel Sanz lehendakariordeak, eta Parlamentuak onartu zuen trazaketa dela aurrera eramango dutena, horretarako erabaki zen epean.

T.SATRUSTEGI / **IRUÑEA**

Lopez Borderias kontseilariak eta Sanz lehendakariordeak Gobernuaren jarrera azaldu zuten. JOXE

Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak atzo adierazi zuenez, «autobidearen Nafarroako zatiari buruz ez da negoziatuko ez Lurraldearekin ez beste erakunde batzuekin ere». Deklarazio instituzional baten bidez aditzera eman zuten Gobernuaren jarrera, eta bertan Leitzako Agirian sinatutakoa berretsi dute, hau da, autobidea aurrera ematea Parlamentuak erabaki zuen trazaketarekin, eta horretarako jarri ziren epeetan, ETAren mehatxuei amore eman gabe eta terrorismoaren aurka.

Gobernuak hartutako akordio honekin gai honi buruz sozialisten jarrerari erantzuna ematen diote, Miguel Sanzen esanetan. PSN-PSOEk, bere ustez, gizartea nahastea besterik ez du nahi Gobernua Lurraldearekin negoziatzen ari dela esatean, hau ez bait da horrela».

Aldaketa teknikoak izan direla adierazi zuen, eta ez bakarrik Gobernu honekin, baita sozialisten legegintzaldian ere. «Autobideko lanak hasi zirenetik aldaketa tekniko asko izan dira, teknikariei beharrezkoak iruditzen zitzaizkienak, trazaketa ofiziala ezertarako ukitzen ez zutenak», azaldu zuen lehendakariordeak.

NEGOZIAKETARIK EZ LURRALDEAREKIN

Era berean, Gobernuak ez duela inoiz negoziatu Lurraldearekin azpimarratu zuen, «koordinadora honek ez du negoziatu ezta Herrilan Saileko teknikariekin ere. Beraiek jakingo dute zer esan nahi zuten Gobernuarekin kontaktuak izan zituztela adierazten», gaineratu zuen Miguel Sanzek. Indarkeriaren alde dauden taldeekin ez dutela negoziatuko azaldu zuen, ekintza terroristak gaitzesten ez duten taldeekin ez dagoela hitzegiterik zioen.

«Aldaketa teknikoak lan bat egiten ari den bitartean sortzen dira, sortzen diren arazoak konpontzeko edo zati bati eman zaion tratamendua ez dela egokiena garbi dagoenean. Bestalde, alde eragindakoek egiten dituzten alegazioak onartzen badira egin daitezke aldaketa teknikoak, eta egiten dira» adierazi zuen Borderias Herrilan kontseilariak.

Urralburuen Gobernuak ere aldaketa asko egin zituela zioen kontseilariak, eta orduan «UPNk ez zuen jokabide hori kritikatu, erantzukizun politikoa dugulako, eta aldaketa horiek trazaketa ofiziala aldatzen ez zutelako. Orain guk gauza bera eskatzen diogu PSNri, erantzukizun politikoa izatea aldaketa tenkniko hauek egiterakoan, eta ez kritikatzea», azaldu zuen Borderiasek.

PSNk eskatutako Leitzako Agiria sinatu zutenen bilera egiteko beharrik ez dagoela azaldu zuten, egoera aldatu ez delako. EAJ eta HBren arteko elkarrizketei buruz, Gobernuko ordezkariek ez zuten ezer esan nahi.

Sozialistek, berriz, bloke demokratikoa indartu behar dela terrorismoaren aurka azaldu zuten komunikadu baten bidez, atzoko atentatua gaitzesten zuten bitartean.

Posten auzia epaitegian

Posta tirorik ez zutela egin deklaratu zuen poliziburuak

DONOSTIA

Jose Piris Perpén, Polizia Nazionaleko inspektoreburuak atzo deklaratu zuen Donostiako Entzutegi Probintzialean posten kasuaren epaiketaren lehen egunean. Piris eta bere agindupean zeuden beste lau polizia epaituko dituzte 1989ko Donostiako Salbe egunean izan ziren istiluengatik. Lau pertsona postaz zauritu zituzten abuztuaren 14eko arratsaldean poliziarekin izandako istiluetan.

Bere agindupean zeuden lau poliziek (Antonio Martin Granizo, Jose Luis Salcedo Arin, Ernesto Polo Castillo eta Jose Antonio Perez Castro) ez zutela posta tirorik egin esan zuen atzo Jose Pirisek. «Ordenu publikoko ekintza batera joaten garenean ez da postarik eramaten» deklaratu zuen epaiketan eta egun horretan zuten materiale bakarra gomazko pilotak, ke poteak eta 9mm parabellum balak zirela ere azaldu zuen. Onartu egin zuen hala ere, orduan zeramaten 'Franchi' eskopetek posta kartutxoak ere jaurti ditzaketela.

Posta tiroak egin ziren kaleetara (Garibai eta Peñafloridako elkargunea) lehendabizi furgonetan eta gero oinez joan zirela bere taldeko poliziak esan zuen Pirisek. «Orduantxe 600 pertsona inguruk osatutako talde bat ikusi genuen Sanferminak bailiran korrika zetozela, eta geldirik egon ginen» azaldu zuen, eta jendea ondotik pasata egin zuela ihes. Berak ez zuela ez eskopeta, ez kaskorik adierazi zuen, nahiz eta gainontzekoek bai, «baina inork ez zuen tirorik egin, bestela entzun izango nuen».

Akusatutako poliziak atzo hasi zen epaiketaren lehen saioan. JUAN CARLOS

Epaiketa aste guzti honetan izango da, gainontzeko poliziek eta lekukoek ere deklaratu behar dutelako.

HB: «Elorzak presoen borroka politikoa dela aitortu du»

DONOSTIA

Odon Elorza Donostiako alkateak, El Salto del Negroko espetxean euskal preso politikoek egindako gose greba dela eta izan duen jarrera salatu du Herri Batasunak. «Alkatearen jarrera erantzukizunik gabekoa eta koldarra izan da 41 egun iraun duen euskal presoen greba dela eta» adierazi zuen atzo HBk.

Elorzak gartzeleratuen senitartekoekin erakutsitako portaera ere gogor kritikatu zuen alderdi honek, «senideek udal batzarrean beren hitza entzutea eskatu zutenean, alkatea bilkura gelatik atera zen». Era berean, alderdi abertzalearen ustetan, «alkatea giza eskubideen errespetuarekiko duen jarrera erabatekoa dela ezin du baieztatu.»

Bestalde, Odon Elorzak eskubideen «irakurketa interesatua eta bide bakarrekoa» egiten duela salatu zuen Herri Batasunak. Alderdi abertzaleak Garraixi Ixilari udaletxeko bilkura gela abenduan utzi eta Amnistiaren Aldeko Batzordeari lokalik ez zaiola uzten esan zuen. HBk adierazi zuenez, lokal hauek torturari buruzko hitzaldiak egiteko izango lirateke. Ildo beretik, Donostiako alkateak euskal presoen borrokari buruz ez zuela hitzegin nahi gai politikoa zelako esatea, «presoen borrokaren izaera politikoa dela aitortzea» esan nahi du HBren ustez, eta ere poza agertu zuten horregatik.

Auzitegi Nagusiak EA eta PPren aurkako kereila artxibatu du

DONOSTIA

Eusko Automoni Elkarteko Auzitegi Nagusiak Jaurlaritzako Barne Sailak EA eta PPko exekutiben aurka aurkeztutako kereila artxibatzea erabaki du, Vasco Press agentziak jakitera eman duenez. Kereilan Barne Sailak irain eta kalumnia delituak egotzi zizkien bi alderdiotako buruzagiei, egindako adierazpen batzuetan departamendu honetan zegoen ustezko ustelkeria salatzeagatik, batez ere Lekeition La Emperatriz hostala eraikitzeko Bizkaiko Foru Aldundiak emandako baimenaren kasuan.

Juan Porres eta Leopoldo Barreda esanetan, Retolazaren agintean zegoenean ustelkeria orokorra zen Barne Sailean eta Administrazioarekin zerikusirik zuten enpresetan Kontseilaritza honetako zenbait goi funtzionariren partaidetza agerian utzi zuten.

Auzitegi Nagusiak hartutako erabakian esaten denez, adierazpenen zehaztasun faltak indarra kentzen dio irainari, ez bait dute esaten nori daude zuzenduta.

GIPUZKOAR ENPRESA BAT BADA LARUNBAT GAUEKO FILMAREN ATZEAN

Enpresa hau Katea da.
Eta bere tailerretan, teleaginte, telebista eta telebista-antenetarako zirkuitu inprimatuak muntatzen dira.
Katea hauexek osatzen dute: industriei ekoizpen, muntaia eta manipulazio beren zerbitzuak eskeintzen dizkieten **8 azpikontratazio tailerrek.**
Paper, plastiko eta egurrezko produktuak sortzen dituzten **berezko ekoizpeneko 3 tailerrek.**
Eta edozein beharrizani erantzuteko prestatuta dagoen **zerbitzu orokorretako gune batek.**
Kateak **400 langile baino gehiago ditu.**
Profesionaltasun garbia eta erantzuteko ahalmena duten minusbaliotasun fisiko edo sentimenezkodunak, alegia.
Batipat, Katea enpresa on bat delako. Aurrera daraman ihardueraren parekoa.

Katearekin harremanetan jarri nahi baduzu, dei ezazu telefeno hauetara:

47 13 75 - 29 29 60

©-PUBLIS-



KATEA

Enpresa on bat

Ipar Euskal Herria hauteskundeen atarian — Erregio Kontseilua

Abertzaleek ordezkaririk ez Erregio Kontseiluan

Emaitza ezberdinak nabarmendu dira erregio eta kantonamendu hauteskundeetan

Hamaika zerrendaren partehartzea izan zen aipagai nagusia azken igande honen erregio hauteskundeei buruz, zeren Pirinio Atlantiarretako departamenduan, Frantzia osoan bezala, alderdi handiek ahultzen bait dituzte 'zerrenda txikiak'.

MIXEL ESTEBAN / **BAIONA**

Ildo honetatik RPR-UDFk aulki bat galdu du, lehen zituen zortzietarik zazpi baizik ez bait ditu eskuratu. Baina azpimarragarriagoa izan zen PS, alderdi sozialistaren beherakada zazpietatik lauetara. Alderdi Komunista eta Fronte Nazionalak lehen bezala aulki bana erdietsi zuten. Heldu berriak politika munduan dira Ihizi-arrantza-natura-ohitura zerrendako bi zinegotzi, Ekologia Belaunaldiko bat eta Enplegua Lehenik eskuin zerrendarena.

Abertzaleei dagokienez, azpimarra daiteke zinegotzirik ez dutela lortu ez Abertzaleen Batasunak, EMA eta EBko zerrendak ezta EA-Entau Paiseko zerrendak: departamenduan, % 5,88 egin behar zen zinegotzi bat ukateko. Abertzaleen Batasunak % 3,14 ditu eta EA-Entau Paisek % 1,45.

Hala ere, joan zen 1986. urteko erregio hauteskundeekin alderatuta, abertzale mugimenduaren indartzea azpimarragarria da. Orain dela sei urte, EMA aurkeztu zelarik lehen aldikoz % 1,5 eta % 2ren artean lortu zuen. Baina erran daiteke ere mugimendu abertzalearen partehartzea erregio hauteskundeetan berria izan zela, nahiz eta 70eko hamarkadaren bukaeran batez ere hauteskundeetan partehartzearen aldeko mugimendua agertu abertzale munduan.

BESTE HAUTESKUNDEEKIN ALDERATURIK

Azken udal hauteskundeetara begira, azpimarra daiteke abertzale mugimendua beheiti doala Ipar Euskal Herrian. Izan ere, udal hauteskundeetan % 10 eta % 11 inguruan erdietsi bait zuten abertzaleek. Joan zen igandean % 7,2 emaitzarekin abertzaleen alderako botoak beheiti doaz. Baina gauzak ez dira hain sinpleak, ikusita zenbat egin zuten EMA eta EBko hautagaiek kantonamendu hauteskundeetan joan zen igandean: Garazin eta Hazparne eskualdeetan, adibidez, bigarren indar politikoa da abertzaleen koalizioa.

Hemen dudarik gabe ikusten da Ipar Euskal Herriko hautesle guztiek bozkatzeko disziplinarik ez dutela, oro har jarrera aldatzen bait dute botere hurbilentzako hauteskundeetan eta Euskal Herritik urrun diren Frantziako instituzio administratiboentzat. Adibidez, Hazparne herrian Daniel Kanblonek kasik 1.300 boz bildu zituen kantonamenduetako hauteskundeentzat eta erregioentzat Abertzaleen Batasuna zerrendak 307 baizik ez ditu toki berean. Pentsatzen ahal da baserri eremuetako fenomenoa dela eta hautagaiaren pertsonalitatearekin lotua dela, baina hirietan fenomeno berdintsua agertzen da. Ipar Euskal Herriko hiri nagusia eta nahiko erdalduna hartzen badugu, Baiona, abertzaleek 814 boz egin zituzten kantonamenduentako hauteskundeentzat eta etiketa berdinarekin, EMA eta EBko zerrendak 200 boz gutxiagorekin agertzen da.

Abstentzioa 31,5koa izan zen Ipar Euskal Herrian. M.E.

✓ Departamendu mailan, % 5,88 egin behar zen ordezkari bat ukaiteko. Abertzaleen Batasunak % 3,14 egin ditu eta EA-Entau Paisek % 1,45.

✓ Hazparnen Kanblonek kasik 1.300 boz bildu zituen kantonamenduetako hauteskundeetan eta erregiokoetan Abertzaleen Batasunak soilik 307.





Akitaniako Erregio Kontseilua berriro gehiengorik gabe

M.E. / **BAIONA**

Joan zen igandeko erregio hauteskundeek Bordeleko Kontseilua aurrekoa baino nahasiago utzi dute. Lehen bezala, gehiengorik ez dago eta lau alderdietako ordezkaritza ukan ordez, zortzi alderdi edo elkarte ordezkatuak dira azken igandetik.

Aurreko Kontseiluan, lau alderdien artean banatu zen plenoa: RPR-UDF koalizioa, PS, PCF eta FN. Hala ere 83 aulkientzat gehiengorik ez zen eta azken hilabete hauetan arazoak agertu ziren erabakiak bozkatzeko, batez ere RPR-UDF eta FNren arteko akordioa hautsia izan zelako.

Gaur egungo asanblada berriarekin lehengo arazoek segitu behar lukete. Gainera, alderdi handienek, RPR-UDF eta PSk aulkiak galdu dituzte: 9 RPR-UDFrentzat eta 12 PSrentzat. FN 4 aulkietarik 8etara pasatu da eta sektore berri bat agertu da Kontseiluan Ihizi-arrantza-natura-ohitura (10), Ekologia Belaunaldia (7) taldeekin eta Berdeetarik bi.

Datorren ostiralean, gehengoari buruzko arazoak ikusteko parada on bat ukan beharko genuke Akitaniako Kontseiluko lehendakariaren hauteskundearekin. Aste honen hasieran goizegi da jakiteko zein izango diren alderdien arteko hitzarmenak. Alderdi batzuek lehendakarigai agertzen dute, RPRk bezala, Gironde departamenduko Michel Valade zerrendaburuarekin. Bestalde, Pirinio Atlantiarretako departamenduaren Ihizi-arrantza-natura-ohitura zerrendaburu Jean Saint Jossek prentsari adierazi zuenez «ehiztarien taldeak ere lehendakarigai aurkeztuko duela».

Ipar Euskal Herria hauteskundeen atarian

Lehen itzulia kantonamenduetan

RPRk ohizko nagusitasuna galdu du kantonamenduetako lehen itzulian

Isasertzean abertzaleentzat boto kopuru interesgarriak izan dira

Kantonamenduetako hauteskundeak historikoak dira guretzako, ikusita zein kopuru onak lortu dituzten abertzaleek Euskal Herrian» entzuten ahal zen RPRko ordezkarien ahoan joan zen igandean, Pabeko frantses administrazioaren egoitzan, Prefeturan.

M. ESTEBAN / **BAIONA**

Michel Intxausperen aulkiaren zalantza izan zen aipagai nagusia atzo Biarno eta Ipar Euskal Herriko RPR alderdiaren ordezkarien solasean azken hauteskundeak komentatzeko. Ikusita, nola RPRk gibelarazi zuen batez ere azken udal hauteskundeetan Lapurdiko kostaldean, Intxausperen kasua beste abisu bezala onartzen dute RPRkoek. Gainera, hamar kantonamenduetarik bederatzi egongo dira bigarren itzuliarentzat.

Jacques Coumet RPRkoa bakarrik hautatua izan zen atzo lehen itzulian Hazparneko eskualde edo kantonamenduan % 63,05ekin.

Garaziko kantonamenduarekin, RPRko buruzagi zen Iholdi, Bastida eta Miarritze Mendebaldean: toki hauetan kontseilariak ez dira hautatuak izan lehen itzulian. Bigarren itzulirako, RPRko hautagaiek emaitza onak ukan arren % 35 inguruarekin, alderdiak kolpe txartzat jo ditu igandeko kantonamenduetako hauteskundeak.

RPR Nafarroa Behereko eta Lapurdi Barnekaldeko eremuetan ongi dabil ohituraz, batez ere euskaldun eskualdeetan. Gaur egun, toki hauetan ere hautagai eta zerrenda abertzaleak emaitza nahiko onak lortzen ari dira orokorki eta hau lehen aldikoz gertatzen da.

Beste alderdi handia den PSri buruz, azpimarra daiteke ere erregioetako hauteskundeetan bezala, gaizki dabiltzala. Lapurdiko kostaldean % 12 inguruan eskuratu du PSk. Azpimarratzekoa da François Maitia PSeko departamendu idazkariaren emaitza % 15,34 Garaziko eskualdean Koxe Larre abertzale hautagaiak baino kasik bost puntu gutxiago.



✓ François Maitia PSeko departamentu idazkariaren emaitza Garaziko eskualdean (%15,34) Koxe Larre abertzalearena baino 5 puntu txikiagoa izan da.

✓ RPRko Jacques Coumet bakarrik izan zen hautatua Hazparneko eskualdean lehen itzulian, % 63,05-ekin.

KOSTALDEA ETA ABERTZALEAK

Angelu Iparraldearen aldean ere emaitza nahiko onak izan dira: André Gracianette UDF eta kaskoin izatearen zaintzaileak bere aulkia ez bait du berriz lortzen lehen itzulian. Kantonamendu honetan ere 'notabilismoaren garaia' ahuldu da dirudienez.

Hauteskunde hauekin datozen kantonamenduetakoen giroa ere iragartzen ari da. 1994. urtean Ipar Euskal Herriko kantonamenduen beste erdia berritzen da. Aurten hamar berritzekoak ziren 21 kantonamenduetan Iparraldearentzat.

Botu abertzaleari dagokionez kostaldean, kopuru nahiko interesantak agertzen dira batez ere Baiona aldean eta Miarritzen % 5 edo % 7 bitarteko zenbakiekin. Alderantziz, Angelun, EMAko Jacques Saldubeherek % 3,5 inguruan baizik ez du egiten.

Zuberoan ere Atharratzeko kantonamenduan, abertzaleek ez dute kopuru on bat lortu % 5 baizik eginez.

Michel Intxauspe. M.E.

Michel Intxausperen aulkia zalantzan dago abertzaleen eraginagatik

M.E. / **GARAZI**

Paben Kontseilu Nagusi barruan kezka bat agertu zen igandean, batez ere Pirinio Atlantiar departamenduko RPR alderdian, Michel Instxauspe Garaziko kontseilariaren aulkia zalantzan bait dago EMAko Koxe Larre hautagaiarengatik.

Michel Intxauspek 1960. urtean hautatua izan zen Garaziko kontseilari, Paben kokatzen den Pirinio Atlantiar Kontseilu Nagusiko partaidea izateko. Orduz gero, Intxauspek bere burua beti aurkeztu izan du eta beti aukeratua izan da lehen itzulian.

Joan zen igandean, lehen aldikotz ez zuen gehiengorik lortu lehen itzulian eta % 48,68rekin, alde txikiagatik ez zuen irabazi. Dirudienez txikia, baina jakin behar da ohituraz % 70 inguruan lortzen zuela. Bere atzetik, Larrek % 27 eskuratu zuen eta François Maitia PSko departamenduaren idazkari nagusiak % 20,57.

Mundu abertzalean erreakzio baikorrak

L.E. / **BAIONA**

Gero eta gehiago Frantziako politika 'nazionalak' markatzen dituen erregio eta kantonamenduetako hauteskundeetan, aldi honetan ere alderdi abertzaleentzat gorakada zaila gertatu zaie. Manex Pagola EAkoak eta Entau Pais biarnesarekin egin zerrenda batuko bigarrena eta Jakes Abeberri EBkoa, EMArekin bultzatu Abertzaleen Batasunaren zerrendaburuak hauteskunde hauek baikor hartu dituzte.

■ ABEBERRI: «ABERTZALEEK BEREN AURRERAKADAN DARRAITE»

Jakes Abeberri: «Kanpainaren eramatea eredugarria izan da abertzaleentzat. Hasierako urradura konpondu ondoren, denek lasaitasunean ongi egin dute lan. Mugimendu abertzale osoarentzat lorpen bat da geroan bere ondorengoak izango dituena.

Erregioari begira, nabari da ez dela toki egokia abertzaleentzat, eremua ez bait dago Euskal Herria eta urrutiko botere baten aldakuntzan influentzia oso guti baizik ez bait daukagu. Gure helburua zen Ipar Euskal Herrian jokatzea eta ez Pirineo Atlantiarrarenean. Ez gara udal hauteskundeetarako 10 marrara iristen. Azken hauteskunde erreferentzia den honetan motibazioak ezberdinak ziren. Uste dut emaitza aski ona dela erregio hauteskundean, dezepzio batzuekin kostaldean, bereziki Baiona-Angelu-Miarritzekoa ez da ona eta jende gehiena hor izanez, batez bestekoa apaltzen du. 1986ekoari alderatuz, orduan EMA bakarrik zen, bikoiztea lortzen dugu, ez da gaizki.

Kantonamenduei begira, emaitza ezberdinekin, beste hauteskunde forma baten eredua da, pertsonalagoak. Hori nabaritzen da Hazparne edo Garazin non kantonamendurakoetan hautagai abertzaleek erregioetakoan baino % 10 gehiago lortzen bait dute, beren irudi pertsonal indartsuagatik. Azpimarratzen ahal da ere gertakari historikoa dela abertzale batek zalantzan jartzea Garazin Ipar Euskal Herri barneko botere absolutuaren ordezkaritza denaren eskainua, bidenabar Maitia sozialista baztertuz.

Oro har, hauteskunde horiek abertzaleen aldekoak izan dira eta agertzen dute beren aurrerakada eta sustraitzea».

■ PAGOLA: «EZ DUGU ABERTZALEEN GORAKADA TRABATU»

Manex Pagola: «Abertzaleek lortu kopuruari begira, bozketa berdinekin parekatuz, ikusten da abertzale guziena goiti doala, bikoizten dela. Beraz Eusko Alkartasuna Entau Paisekin joateak ez du abertzaleen gorakada trabatu.

Baina pena dugu halere ez dugulako hautetsirik lortu, sistemaden bezalakoa izanez. Altabada gure ustez, ikustaldi bakarrean, erran dugun bezala, posible izanen zen abertzale tendentzia guztien artean eta Entau Paisekin, behar zen eztabaidarik izan bazen. Ohartarazi nahi dugu bozka denboran ere eztabaidarik ez dela izan.

Guk lortu mila botoak, programa ginarritsu baten gainean, ez da mesprezagarri batere eta esperantza dugu. Deliberatuak gara, egiazko batasunik ezin bada egin, elkartasuna egiteko abertzalegoaren aniztasunari buruz.

Bigarren itzuliari buruz kantonamenduetan, bozkatzeko gomendiorik ez dugu eginen RPR-UDF-PSekoei. Botoa ematea eskatuko diegu 'Ipar Euskal Herriko Biltzarraren' alde agertuko diren hautagaiei».

Jacques Abeberri. A.S.


Manex Pagola. A.S.

LAPURDI

Akitaniako Erregio Kontseilurako hauteskundeen emaitzak Ipar Euskal Herrian

Udalerria	Zentsoa	Abst.	Abertzaleen Batasuna EMA-EB	EA- -Entau Pais	UPF (UDF-RPR)	FN	Enplegua Lehenik	Akitania 2.000 (PS)	PCF	Ekologia Belaunaldia	Berdeak	Ihizi-arrantza- natura- -ohitura	Akitania Batua (MRG)
Ahetze	765	% 29,1	50	9	167	61	37	44	10	29	25	83	11
Ahurti	1247	% 23,9	27	15	307	57	59	137	35	50	34	188	18
Ainhoa	493	% 30,2	24	1	139	19	10	24	4	17	17	75	4
Angelu	23754	%33,0	493	98	4942	1562	913	2669	895	1489	796	1061	392
Arbona	1055	% 28,8	95	7	221	80	44	87	21	52	30	81	16
Arrangoitze	1993	% 33,3	113	10	439	82	83	143	37	85	46	203	37
Azkaine	2217	% 38,1	167	22	458	109	65	85	18	-	72	188	14
Baiona	23950	% 29,6	606	143	4978	1533	1100	3294	882	964	689	815	260
Bokale	5018	% 30,6	52	20	725	200	153	481	996	221	148	262	49
Bardoze	897	% 30,8	30	5	286	33	38	63	14	23	18	101	-
Basusarri	843	% 29,8	37	13	166	27	37	104	15	63	33	73	14
Beskoitze	1304	% 19,6	102	22	210	36	67	150	34	51	51	253	17
Bidarte	2967	% 38,0	128	9	640	159	92	233	55	139	102	171	43
Bidaxune	826	% 21,7	11	4	326	30	14	90	17	21	12	89	-
Biriatu	527	% 36,4	57	5	74	23	10	41	11	16	12	67	2
Donibane Lohizune	9574	% 33,2	435	39	2152	642	360	1044	226	453	262	510	68
Ezpeleta	1221	% 33,6	78	13	256	62	31	45	21	40	33	141	6
Getaria	881	% 30,9	39	3	190	43	27	127	29	39	35	61	5
Gixune	516	% 22,6	3	7	188	31	15	41	16	15	5	62	-
Haltsu	308	% 24,6	8	2	83	21	10	20	12	13	14	41	3
Hazparne	4089	% 18,9	307	77	1188	167	227	333	53	108	151	449	66
Hendaia	7273	% 39,0	345	59	1025	415	121	1002	350	332	198	348	56
Hiriburu	2826	% 28,8	82	14	538	148	123	562	75	96	91	196	23
Itsasu	1190	% 42,1	81	20	275	46	40	66	11	44	42	131	10
Jatsu	426	% 33,3	20	7	68	43	13	25	11	21	7	78	1
Kanbo	3125	% 32,1	103	15	650	219	130	247	75	147	94	332	29
Larresoro	844	% 35,0	52	4	219	42	39	44	21	34	21	70	11
Lehuntze	1065	% 24,8	23	4	202	56	40	157	45	57	30	144	18
Lekorne	544	% 19,3	58	10	147	11	18	33	3	12	32	19	7
Lekuine	186	% 8,6	33	2	44	14	6	10	3	6	7	30	2
Luhuoso	430	% 34,1	24	2	20	77	11	28	4	16	18	63	2
Makea	346	% 15,0	43	6	101	14	30	12	1	9	7	47	6
Miarritze	21566	% 39,5	529	68	4516	1532	779	1868	455	976	553	565	722
Milafranga	1143	% 27,9	37	8	217	81	38	173	28	58	43	103	7
Mugerre	2290	% 28,5	74	22	385	112	98	319	87	106	85	269	18
Sara	1601	% 39,2	154	13	229	36	37	51	21	22	17	343	11
Senpere	2640	% 36,8	185	21	546	132	75	160	27	83	62	288	26
Urketa	1169	% 27,2	19	24	216	45	57	183	32	57	27	146	14
Urruña	4567	% 29,5	365	34	1018	180	145	449	108	166	135	472	33
Uztaritze	3005	% 29,8	231	37	581	148	114	265	111	147	94	281	31
Ziburu	4955	% 31,7	206	28	812	286	135	982	148	172	109	380	35
Zuraide	681	% 27,3	28	1	227	45	20	48	9	25	23	55	5

NAFARROA BEHEREA

Udalerria	Zentsoa	Abst.	Abertzaleen Batasuna (EMA-EB)	EA- -Entau pais	UPF (UDF-RPR)	FN	Enplegua Lehenik	Akitania 2.000 (PS)	PCF	Ekologia Belanauldia	Berdeak	Ihizi-arrantza- -natura- ohitura	Akitania Batua (MRG)
Ahatsa	242	% 22,3	27	3	71	5	4	29	4	1	5	27	1
Aiherra	595	% 19,3	90	18	157	9	22	13	4	11	13	118	4
Ainhize	142	% 16,1	16	1	51	2	3	20	-	1	1	19	1
Aintzila	105	% 23,8	17	3	30	-	-	6	-	2	1	20	1
Aiziritze	461	% 29,0	22	1	93	16	40	33	14	15	13	70	4
Akamarre	546	% 31,4	4	1	218	8	15	40	8	16	4	41	5
Aldude	424	% 26,4	32	4	57	5	3	7	1	1	5	91	-
Amorrotze	165	% 19,3	7	-	62	1	5	4	2	1	5	40	3
Anhauze	244	% 34,0	24	3	65	1	3	7	1	2	2	50	1
Aranku	117	% 25,6	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arberatze	166	% 21,6	24	2	25	1	27	12	-	5	4	27	2
Arboti	214	% 29,4	6	-	41	4	18	6	4	5	2	59	1
Arhantsusi	91	% 21,9	7	1	42	6	3	1	-	-	1	5	1
Armendaritze	317	% 13,2	50	4	118	10	15	10	2	1	6	44	6
Arnegi	320	% 29,0	21	1	77	4	7	39	2	3	4	56	5
Arrosa	370	% 43,7	32	2	81	8	13	16	1	6	3	44	-
Arruta	317	% 37,8	16	-	74	2	23	2	-	9	9	55	1
Azkarate	251	% 31,4	33	1	68	6	5	21	-	-	4	31	-
Baigorri	1387	% 38,0	136	14	302	33	38	73	2	21	23	181	6
Banka	378	% 32,8	21	-	83	1	6	14	-	4	4	119	1
Bastida	628	% 11,3	18	11	210	14	20	32	7	14	42	162	5
Behaskane	344	% 34,8	19	2	72	4	27	28	3	12	8	44	1
Behauze	234	% 24,3	33	6	73	9	10	14	3	4	6	16	4
Behorlegi	84	% 30,9	13	-	19	2	-	6	-	-	-	17	1
Bergue	115	% 20,8	3	1	41	1	12	13	2	6	-	10	-
Bidarrai	547	% 43,1	62	1	127	17	11	24	1	7	10	37	2
Bunuze	119	% 15,9	27	3	33	1	3	7	-	2	3	19	1
Buztintze	91	% 32,9	9	-	17	1	2	14	-	1	1	13	-
Donaixti	269	% 20,2	39	4	72	4	5	32	9	5	2	29	2
Donamartiri	231	% 20,3	32	8	68	11	16	10	3	8	3	17	1
Donapaule	1643	% 37,6	55	6	378	57	133	86	9	46	29	198	9
Donazaharre	726	% 20,3	66	7	159	12	51	74	3	14	19	157	1
Donostiri	310	% 20,4	15	2	115	12	28	12	-	9	12	18	3
Donibane Garazi	1212	% 19,6	77	13	299	40	31	174	18	30	34	209	10
Duzunaritze	159	% 20,7	20	-	29	1	5	7	1	4	4	51	1

Udalerria	Zentsoa	Abst.	Abertzaleen Batasuna (EMA-EB)	EA- -Entau pais	UPF (UDF-RPR)	FN	Enplegua Lehenik	Akitania 2.000 (PS)	PCF	Ekologia Belanauldia	Berdeak	Ihizi-arrantza- -natura- ohitura	Akitania Batua (MRG)
Eiheralarre	265	% 32,4	32	5	42	4	1	41	1	3	1	36	2
Erango	117	% 25,6	-	-	30	1	21	9	4	5	7	5	1
Ezterenzubi	371	% 18,5	50	4	76	7	9	42	-	6	3	93	3
Gabadi	185	% 29,7	16	1	36	5	27	7	-	4	4	24	1
Gamarte	92	% 8,6	20	4	31	1	-	13	1	1	-	9	-
Gamue	114	% 12,2	6	2	21	1	4	6	1	-	-	55	1
Heleta	500	% 11,6	64	18	169	19	18	16	2	12	18	72	10
Hozta	93	% 22,5	3	1	23	2	3	3	-	8	2	30	2
Ibarla	90	% 4,4	21	1	18	-	2	2	1	2	-	39	-
Iholdi	390	% 12,3	24	5	151	22	24	27	6	5	11	43	7
Ilharre	114	% 21,9	8	-	31	1	9	5	1	3	1	25	-
Irisarri	602	% 20,5	76	10	182	8	16	40	3	17	12	84	16
Irulegi	213	% 31,4	21	-	44	4	3	19	3	7	4	32	-
Isturitze	245	% 22,4	13	29	62	10	8	11	5	1	7	36	3
Izpura	534	% 20,4	28	3	75	5	6	170	6	14	9	74	5
Izura	195	% 13,8	33	1	45	5	7	15	1	4	1	47	4
Jatsu	165	% 20,0	25	1	33	2	5	34	1	4	1	20	1
Jutsi	177	% 17,5	23	3	56	1	7	3	-	1	-	46	-
Labetze	165	% 27,2	1	1	16	5	63	10	-	1	2	19	-
Lakarra	104	% 16,3	10	1	22	1	4	20	-	1	-	24	1
Landibarre	257	% 11,2	22	7	108	7	4	17	2	-	-	51	1
Larribare	182	% 31,8	4	3	48	13	20	11	3	3	3	25	2
Larzabale	312	% 11,8	21	2	103	12	8	29	5	6	1	69	4
Lasa	246	% 32,1	22	1	78	8	1	21	1	2	5	24	1
Lekunberri	192	% 17,1	18	4	41	1	3	46	1	4	3	35	1
Lukuze	150	% 34,0	14	4	31	3	10	6	1	3	3	22	-
Martxuta	188	% 34,5	4	1	46	2	14	7	3	4	3	31	3
Mehaine	225	% 23,5	10	1	83	4	10	3	3	8	3	31	6
Mendibe	189	% 23,8	6	5	65	8	5	15	1	5	2	27	3
Mitiriña	371	% 33,7	40	4	89	10	13	13	4	5	6	55	1
Oragarre	412	% 32,5	35	3	92	16	16	21	2	15	11	61	2
Ortzaize	601	% 37,4	47	4	163	20	12	32	4	16	11	47	5
Ostankoa	75	% 29,3	20	-	8	-	-	2	-	2	-	18	-
Phagola	242	% 26,8	40	5	72	13	15	5	1	3	1	14	2
Samatze	331	% 28,0	1	-	87	10	6	28	11	25	7	54	1
Suhuskune	167	% 17,1	22	-	41	8	3	10	-	1	2	41	5
Uharte-Garazi	511	% 25,2	47	5	99	14	15	27	8	11	11	129	4
Uharte-Hiri	166	% 33,7	8	3	59	2	7	7	1	1	5	14	2
Urepele	395	% 38,7	35	1	113	2	1	10	3	3	1	65	4

ZUBEROA

Udalerria	Zentsoa	Abst.	Abertzaleen Batasuna (EMA-EB)	EA- -Entau Pais	UPF (UDF-RPR)	FN	Enplegua Lehenik	Akitania 2.000 (PS)	PCF	Ekologia Belaunaldia	Berdeak	Ihizi-arrantza- -natura- -ohitura	Akitania Batua (MRG)
Aiñharbe	134	% 23,1	3	3	51	3	4	2	1	6	5	23	-
Aloze	280	% 23,5	4	1	72	5	23	45	10	5	6	38	2
Altzai	250	% 24,0	12	4	32	2	9	16	4	1	6	97	2
Altzürükü	249	% 34,1	12	-	36	8	10	11	2	2	2	78	-
Arüe	216	% 31,9	12	1	56	13	10	9	4	3	6	29	2
Arrokiaga	115	% 34,7	8	1	30	1	10	2	5	-	3	11	1
Atharratze	612	% 18,4	26	5	100	19	31	153	16	19	8	90	8
Barkoxe	693	% 38,0	61	4	116	29	31	29	9	10	16	98	2
Berrogañe	110	% 25,4	7	-	5	2	11	14	1	1	-	34	1
Bildoze	594	% 25,9	33	4	88	24	36	83	18	15	22	98	4
Domintxine	406	% 31,5	10	1	93	6	13	44	4	5	9	81	-
Eskiula	472	% 34,9	16	5	117	27	7	31	8	9	8	57	8
Etxarri	119	% 29,4	11	-	17	-	2	2	1	1	1	48	-
Etxebarre	79	% 39,2	4	1	1	-	2	5	3	1	-	26	-
Ezpeize	411	% 27,4	5	4	86	16	15	29	8	9	10	102	6
Gamere	114	% 12,2	6	2	21	1	4	6	1	-	-	55	1
Garindañe	508	% 25,0	12	6	113	16	19	72	30	9	8	80	5
Gotañe	390	% 31,7	24	2	42	19	13	73	22	6	4	49	1
Hauze	100	% 19,0	1	-	15	1	-	11	5	1	-	39	2
Idauze	212	% 37,7	7	1	27	7	8	25	7	4	3	38	1
Iruri	140	% 16,4	3	1	23	2	3	3	-	1	2	30	2
Jestaze	74	% 12,1	1	-	12	-	8	17	1	2	3	18	2
Lakarri	138	% 36,9	7	4	13	1	2	13	3	-	4	33	1
Larrañe	268	% 23,1	43	2	25	14	11	31	12	1	2	45	7
Lexantzu	75	% 17,3	13	1	16	-	1	10	2	3	-	16	-
Ligi	249	% 26,1	8	6	32	1	10	28	18	2	5	66	2
Liginaga	151	% 17,8	-	1	16	10	9	14	6	6	6	50	2
Lohitzüne	182	% 28,5	6	-	65	1	9	3	3	1	4	34	2
Maule	2653	% 29,1	68	16	381	87	134	515	254	58	32	252	16
Mendikota	188	% 40,9	12	1	23	5	8	12	6	3	1	37	-
Mithikile	307	% 39,7	9	-	59	14	8	12	7	3	8	58	1
Muntori	347	% 34,7	3	5	64	19	11	52	5	10	3	68	3
Muskildi	259	% 28,1	54	4	27	9	14	11	3	4	3	50	2
Ozeraiñe	192	% 25,0	2	4	19	5	37	25	2	4	3	41	2
Ospitale-Pea	64	% 21,8	6	1	15	4	11	3	1	1	1	6	-
Ozaze	94	% 24,4	7	1	17	2	4	8	4	2	-	24	-
Santa-Grazi	335	% 26,5	16	7	26	7	10	22	11	5	4	121	10
Sarrikota-Pea	226	% 27,4	1	1	40	7	7	10	5	5	4	80	1
Sohüta	1006	% 33,4	32	8	100	37	165	84	61	3	16	146	3
Urdiñarbe	541	% 36,2	33	9	81	9	18	48	16	5	7	107	4
Urruxtoi	110	% 28,1	12	-	22	3	3	6	-	1	4	25	2
Zalgize	172	% 22,0	3	-	34	6	11	28	1	9	2	27	5

Hezkuntza «soka lepotik» jartzen ari zaie ikastolei Camposen ustez

«Ikastolek aurrera egingo dute nahiz eta PSOE kontra eduki»

Antonio Campos Ikastolen Elkarteko lehendakariak ukatu egin zuen atzo hamaika ikastola sare publikoan batu egingo direla. Camposek gogor kritikatu zituen Administrazioa ikastolekin erabiltzen ari den moduak, «lepotik soka jartzea» dena, bere esanetan.

G. A. / **BILBO**



Antonio Campos Ikastolen Elkarteko lehendakaria. JUAN CARLOS RUIZ

«Ez dut uste sartuko direnik. Ez dut inolako notiziarik inor sartuko denik» esan zuen Elkarteko lehendakariak Jose Luis Avila Hezkuntza sailburuordeak aurreko astean egindako adierazpenei buruz. Sozialistak hamar bat ikastola sare publikoan sartuko zirela agertu zuen orduan.

Camposen hitzetan, «Administrazioa, momentu hauetan, ikastola hauei soka lepotik jartzen ari zaie. Ikastola hauek egoera larrian daude, batez ere ondare aldetik. Ez daukate gelarik edo gela txarrak dauzkate beraz gela berrien premia dute. Egoera honetan Administrazioak zera esan die: «Zuek gela berriak nahi badituzue nik bihar bertan egingo dizkizuet, baina horretarako sare publikoan sartu beharko duzue».

Kinka larrian dauden ikastolak Bizkaiko Sestaoko Umeen Etxea, Santurtziko Bihotz Gaztea edo Barakaldoko Alkartu ikastolak dira, besteak beste. Ikastola hauek udal lokaletan daude eta guztiak ikasturtea bukatu bezain pronto kaleratuko dituzte, udal horietan nagusi den PSE-PSOE alderdiko kideek erabaki dutenez.

«Batetik, ikastolak batuta badaude ikaragarri ondo etorriko zaie ikastolak zatitzen joatea. Une batean behar batzuk baldin badauzkazu, horiei erantzuteko beste une batean emango ez zenituzkeen zenbait pausu eman ditzakezu» gaineratu zuen Elkarteko lehendakariak.

«AURRERA EGINGO DUGU»

Ikastolek aurrera egingo dutela esan zuen Camposek: «Ikastolen historian horrelako gauzak hasiera hasieratik izan dira. Beraz, horrelako eraso bat dela eta kokilduta gelditu behar bagenu ez genuke inoiz aurrera egingo. Eta ikastolak indar handiz aurrera egin dute eta hemendik aurrera ere, aurrera joango dira, nahiz PSOE kontra eduki».

Abendutik gaur egun arte, Fernando Buesa kontseilariarekin elkarrizketatzeko zain dagoen Ikastolen Elkarteak zenbait gutun idatzi ditu, horietako bat lehendakariari zuzendua, ikastolek pairatzen duten egoerari irtenbidea aurkitu asmoz. Era berean, beste zenbait ekintza ere martxan jartzeko asmotan daude ikastolak.

ETBren bitartekoen arrazionalizazioa «txalogarria» da Amatiñoren ustetan

G. A. / **BILBO**

«Nahiko da Miramongo bitarteko tekniko eta giza baliabideen arrazionalizazio edo kualifikazio hobe bat planteiatzea, zergatik izango ote den mamuak plazaratu daitezen» esan zuen atzo Luis Alberto Aranberri ETBko zuzendariak udaberriko parrilaren aurkezpenean. «Prentsako sektore batentzat edozein aitzakia nahikoa da alde txarra bilatzeko», gehitu zuen Amatiñok.

«Edozein arrazoi dela medio, ETBk dituen bitarteko tekniko eta giza baliabideen erabilera eta arrazionalizazioa txalogarriak direla», gehitu zuen. Txalogarritzat jo zuen, besteak beste, «ETBren kostua orduko Estatuko merkeenak izatea, langile bakoitzeko gehien ekoizten duen telebista autonomikoa izatea».

«Apiriletik aurrera Miramon programa propio ez eguneroko eta ez zuzenen produkzio gunea izango da. Orduan udan itxi ahal izango dugu», segitu zuen.

ETBren ikusentzulegoaren gorakada «nabaria» izan dela azpimarratu zuen Zarraoak. «ETBren ikusentzulegoa ikaragarri areagotu da urritik hona, % 40n, alegia eta otsailean ikusentzulegoaren % 25 lortu dugu. Egun iazko urtarril eta otsailean baino ikusentzulego gehiago dugu, orduan telebista pribatuak hedatu gabe bazeuden ere».

Zarroaren esanetan, «ETB1ean, ikusentzuleak umorea, kirolak eta haurrentzako programak eskatzen ditu eta horiek dira bere ezaugarriak. ETB2ean, berriz, herrialdetik ahalik eta hurbilen dagoen telebista bat egiten saiatu gara».



Amatiño. SIMAL

Amatiñok, bestalde, udaberriko programazioaren berrikuntzak aipatu zituen, 'Arin arin' trikitrixa programa, 'Beni eta Marini', 'Eskualdeak', 'Bizia', 'Claves del Misterio' eta abar.

JON ZUZUARREGI LIZARAZU

Adio izar ederra
Adio izarra
Zu zara aingerua
Munduan bakarra
Aingeruarekin, aingeruarekin
Zaitut konparatzen
Zenbat maite zaitudan
Ez duzu pentsatzen

HONDARRIBIKO IKASTOLA
1992ko martxoak 23

LABURREAN

ALKOHOL eta droga kontsumoa loturik gazteen artean

Alkohola zein drogaren kontsumoa oso lotuta daude Euskal Autonomi Elkarteko gazteen artean, Eusko Jaurlaritzak plazaraturiko 'Narkohabitoa bigarren belaunaldian' liburuaren arabera. 18 eta 35 urte bitarteko gazteen % 24,6 dira bi produktuok batera kontsumitzen dituztenak. Ez bata ez bestea kontsumitzen ez dutenak, berriz, % 37,1 dira ●

MILAKA kaxa tabako atzemanak Aizoainen

Kontrabandoko 17.000 kaxa tabako gorri atzeman zituen atzo Goardia Zibilaren Drogaren aurkako Fiskal Taldeko kideek Aizoainen —Nafarroa—. Nafarroako matrikula zuen furgoneta batean zegoen tabakoa eta Altsasutik Iruñera doan errepidean topatu zuen goardia zibilek. Inor atxilotu ez bazuten ere, aktak ireki zituzten tabakoa zeramanari zigorra ezartzeko asmoz ●

HIRUREHUN eta hirurogei gramu heroina atzeman dute Etxebarrin

360 gramu heroina atzeman zituen Polizia Nazionalak ostiralean Etxebarrin —Bizkaia—. Hiru lagun ere atxilotu zituzten droga trafikatzeaz akusatuta eta epailearen esku utzi zituzten. Antonio J.C. eta Maria Dolores M.M. 41 urteko senar-emazteak eta Jose M.F. 23 urtekoak dira atxilotutakoak. Bilboko Alde Zaharra eta Cortes auzoko, eta Donostiako trafikari txikiei saltzen zioten droga Polizia Nazionalaren hitzetan ●

BOST atxilotu abusu sexual eta bortxaketagatik

Polizia Nazionalak hiru lagun atxilotu ditu Gasteizen Down sindromea zuen neskato bat bortxatzeagatik. Salaketaren arabera, zelai batera motoan eraman zuten eta han bortxatu. Bestalde, Ertzaintzak 17 urteko marokkoar bat atxilotu du Gasteizen 8 eta 9 urte zituzten bi haurri abusu sexualak egiteagatik ●

Drogak

Hamabi talde elkartu dira drogaren arazoaren kontra

IRUÑEA

Drogomenpekotasunari aurre egiten saiatzen diren Nafarroako hamabi elkartek txosten bat bidali diete alderdi parlamentarioei, Administrazioak arazo honekiko duen jarrera salatzeko. Besteak beste, droga legeztatzeari buruzko eztabaida sortzeko eskatu diote Gobernuari.

Antox, Askagintza, Atarrabiako drogazaleen familien elkartea, Drogazaleei laguntzeko Tuterako Elkartea, 'El Camino', 'EL Roble', HIESaren kontrako hiritar elkartea, Oasis, Gizakia Helburuz, Lantxotegi eskola eta Emauseko Traperoek hartu dute parte txostenean. Beraz, drogan inguruan lan egiten duten elkarteak biltzen diren lehenengo aldia da hau.

Askagintzako Gerardo Castillok esan zuenez, Administrazioaren 'zabarkeria' ikusita erabaki dute elkarrekin lan egitea. Castilloren esanetan, «Administrazioak keinuak besterik ez ditu egiten. Abenduan adibidez, Parlamentuak neurri batzuk onartu zituen, baina ez zituen aurrekontuetan aipatu. Nik uste hori keinu politika dela. Udalak berdin, hauteskunde aurretik neurri ugari iragartzen ditu eta gero ez dira behin ere aurrera eramaten. Prebentzioa dela garrantzitsuena esaten dute droga plangintzan, eta ondoren prebentziorako laguntzak murriztu egiten dituzte. Hauexek dira drogomenpekotasuna sendatzeko Nafarroan hartzen diren neurriak».

Drogomenpekotasunaren arazoari aurre egiteko beharrezkoa da elkarteek eta Parlamentuko Batzordeak elkarrekin lan egitea Castilloren ustetan. Horretarako atzo kaleraturiko txostenean neurri batzuk proposatzen dituzte, hala nola, gobernuak baztertzearen kontra eta gizartearen garapenerako egitasmo bat egitea. Halaber drogen legeztateari buruzko eztabaidari hasiera ematea ere eskatzen dute.

Gaztetxeak

Ertzaintzak 8 gazte atxilotu zituen atzo goizean Laudion

L.K.G. / GASTEIZ

Laudioko Gaztetxeko zortzi gazte atxilotu zituen atzo goizean Ertzaintzak, udal eraikuntza bateko ateak behartu ondoren eraso egin ziotela akusatuta. Ertzaintzak atxilotutako gazteak 20 eta 25 urte bitartekoak dira eta Amurrioko epaileen esku utzi dituzte.

Lokala Laudioko Gaztetxea izan zen iragan igandea arte, eraikuntza erabili ahal izateko udal baimena amaitu zen egunean, hain zuzen ere. Beraz, udal funtzionariek lokaleko zerraila aldatu zuten atzo, baina gazteak goizeko hamarrak aldera sartu ziren etxean.

Atxilotuekin batera zeuden gazteek jakin erazi zutenez, larunbatean Gaztetxean egin zen elkartasunezko jaialdian erabilitako materialea jasotzeko asmotan sartu ziren zortzi gazteak.

Atxiloketen ostean, Laudioko Institutuko 300 bat lagunek Gaztetxea hartu zuten. Ekintza horren ondoren, ikasleetako zenbait ordezkari Toño Aiz EAJko alkatearekin bildu ziren, baina ez zuten akordiorik izan lokalaren erabilpenari dagokionez.

BOST URTEREN BURUAN

Laudioko Gaztetxea orain dela bost urte hartu zuen herriko Gazte Asanbladak, garai hartan alkatetzan zegoen HBk eman bait zion. Joan zen urteko hauteskundeen ondotik agintaritza hartu zuten jeltzaleen ekimenez lokalaren erabilpena ukatu egin zaio Gazte Asanbladari.

Horregatik, iragan larunbatean Gaztetxearen aldeko ihardunaldia antolatu zuen Gazte Asanbladak. Kultur ekitaldien bitartez, «elkarrizketaren bidea» aldarrikatu nahi izan zuten gazte laudiarrek, baina udal erabakiaren gauzatzeak ahalegin horiek geldiarazi ditu azkenean.

Mota honetako beste zenbait ekintza izan dira azken egunetan Laudion. Adibidez, asteazkenean Gaztetxea ixteko udal erabakiaren atzera jotzea eskatzen zuen agiria eman zioten herriko ikastetxeko gazteek alkateari.

Zabor biltzaileen greba

Zabor pilaketa oraindik ez dela hain «kezkagarria» dio Osakidetzak

Gipuzkoan eta Gasteizen bilerak egin ziren atzo arazoa konpontzeko

Astebete eskas bete du Gipuzkoako zenbait herritan zabor biltzaileak egiten ari diren grebak. Asteburu luze honen ondorioz, zabor pilaketa nabaria da zenbait herritan. Gasteizen ere bildu ziren greban dauden langileak, Cespa enpresa eta Udala.

Zabor pilaketa kezkagarria bihurtzen hasi da herri batzuetan. J.C.RUIZ

DONOSTIA

Gasteizko Udala, Cespa enpresa eta enpresa batzordea bildu ziren atzo eguerdian, zabor biltzaileen grebari irtenbidea bilatzeko. Ez zen inolako akordiorik lortu baina, «arbitraia» sistema ezartzea erabaki zuten. Arratsaldez berriro elkartu ziren, hala ere.

Gipuzkoako egoera desberdina da herri eta hiriburuan. Donostian arazoa ez da hain latza, Construcciones y Contratas enpresako langileek kale garbiketa soilik egiten dutelako aste barruan. Larunbatean arduratzen dira zaborrak biltzeaz. Osakidetzako iturrien arabera, ordea, gizakien osasunerako zabor pilaketak izan dezakeen eragina ez da kezkagarria.

Zabor biltzaileak greban dauden herrietako udalak zein Eusko Jaurlaritzaren Lan zuzendaria bildu ziren atzo, gutxienezko zerbitzuen arazoa konpontzeko. Era berean, Contrucciones y Contrataseko ordezkari, langile zein Administrazioko ordezkariak bildu ziren gerora arazoari irtenbidea emateko asmoz.

Hernani, Irun eta Lasarteko alkateek salatu zutenez, herriotan ez dira gutxienezko zerbitzuak betetzen eta zerbitzu hauek betetzeko eskatu zioten Lan zuzendariari. Greban dauden langileen sindikatuen hitzetan, zerbitzu horiek betetzen ari dira.

Lan zuzendariak azaldu zuenez, Zuzendaritzaren zeregina gutxienezko zerbitzuak finkatzean amaitu zen. Bestalde, Osakidetzak herriotako kaleen egoerari buruzko txosten bat egin du.

Emakumeak

Emakumezko irakasleak nagusi dira EAEko oinarrizko hezkuntza mailetan

DONOSTIA

Emakumeek EAEko irakaskuntza arloan duten partehartzea desberdina da hezkuntza mailaren arabera. Eskolaurrean eta OHOan kopurua handia bada ere —% 75 inguru—, goi mailako ikasketetan kopuru hau % 25era jaisten da.

EAEko emakumeen egoera aztertzeko Emakundek kaleratu duen txostenaren datuen arabera, EAEn OHOko klaseak ematen dituzten irakasleen hiru laurden inguru emakumeak dira, eta portzentaia hauek handiagoak dira beheko maileta n. Izan ere, eskolaurrean emakume irakasleen kopurua % 93,4ekoa da.

Emakunderen txosten honek euskal hezkuntza sisteman emakumeek duten partehartzea azpimarratu egiten du. Partehartze garrantzitsu hau dela eta, gizarteko roletan zatiketa sexuala eragiten duten jokabideen aurkako tresna bat izan dezakegu. Honela, lehen hezkuntza zikloetan nabarmentzen den emakume irakasleen nagusitasun horrek ezinbesteko garrantzia izango du, ezbairik gabe, datozen belaunaldi berrien gizarteratzean.

Emakume irakasleen nagusitasun honek BBB eta UBI mailetan irauten baldin badu ere (irakaslego osoaren % 55,6), kopuru honek diferentzia aipagarri bat ezkutatzen du BBBko adar desberdinen artean. Emakumeen pisua letretako ikasgaietan nagusitzen da eta zientzietakoetan alderantziz gertatzen da.

Baina irakaskuntzako behe eta ziklo ertainetan ikusitako emakumeen aldeko kopuru horiek erabat murriztu egiten dira goi mailetan. Eta unibertsitateko fakultateetan emakumeak kopuru osoaren % 26,3 diren bitartean, goi mailako eskola teknikoetan kopuru hori % 12,4ra murrizten da.

EMAKUME GEHIAGO UNIBERTSITATEAN

Nafarroan sortu berri duten Emakumearen Zuzendariordetzak kaleraturiko txostenaren arabera emakumeek gizonezkoek baino maila handiagoko ikasketak egiten dituzte. Zazpi mila gora neska nafar ari ziren iaz Nafarroako unibertsitateetan ikasten. Gizonezkoak, berriz, ez ziren sei milara ailegatzen. Humanistika eta Osasun zientziako ikasketak dira emakumeak nahiago dituztenak.

JMA VMA
ALEJANDRO ALTUNA S.A.
ARRASATE
...eta aste honetan:
GASTEIZ: El Cordon erakustaretoan, 30era arte. Ordutegia: 19-21.
DERIO: Kiroldegian, lehen solairuan, 26tik 29ra. Ordutegia: 10-22.
ARRASATE: Frantziskotarren etxean, 26tik 29ra.
ELIZONDO: Kultur Etxean, 26tik 29ra.
EGUNEZ EGUN EUSKARA ZABALTZEN
Jek Lira

GERNIKAKO AZOKA

Nobedade gisa salgai jarri zen baba berria aipatu behar da

MARIBI CAMPILLO / **GERNIKA**

Baba izan genuen atzoko nobedadea eta kiloa 250 pezetan saldu zen. Datorren astean salgai kipula berriak jartzea espero da.

LANDAREAK

Kipula gorriak, 350-400 pezeta zientoa; kipula horiak, 300-350; tipulinak, 250; porruak, 300; azak, 400; letxugak, 400; azelgak, 400; piperrak, 1.500; tomateak, 1.500; tomatea takoan, 50-105; piperra takoan, 30.

BARAZKIAK

Piper sikuak, 1.500-3.000 pezeta; Tolosako baberrunak, 800; baberrun gorriak, 700-750; baberrun beltzak, 600; baberrun zuriak, 550; letxugak, 40-50; kalabazak, 75; azenarioak, 50; erremolatxak, 50; kipula gorriak, 300-500 dozena; porruak, 150-200; patatak, 50-55; apio sortak, 90; azelgak, 50; espinakak, 400; perrexil sortak, 50.

HEGAZTIAK

Oilanda gorriak, 800 pezeta; oilasko txikiak, 190; txitak, 40.

FRUTAK

Kiwiak, 70-250 pezeta; erreineta sagarrak, 300; golden sagarrak, 200; intxaurrak, 500; urrak, 400.

ZUHAITZAK

Pinuak, 10 pezeta; kiwiak, 8.000.

HILDAKOAK

BIZKAIA

BILBO

Jose Antonio Perez Bilbao, 48 urte.
Catalina Atxalandabaso Zalbidea, 86 urte.
Teodoro Garzon Cantera, 75 urte.
Bonifacio Martinez Tobalina, 41 urte.
Miguel Gonzalez Gil, 68 urte.
Mauro Zorrilla Laka, 91 urte.
Antonia Casado Casado, 78 urte.
Juana Gonzalez Gil.
Luis Zurimendi Salabarria, 65 urte.

ALGORTA

Soledad Zugazabeitia Intxaurtieta, 88 urte.

BARAKALDO

Maria Isabel Garcia Martinez, 52 urte.

BASAURI

Justa Martin Hernandez, 72 urte.

IURRETA

David de Cos Gomez, 83 urte.

KARRANTZA

Isabel Ortiz Zorrilla, 79 urte.

LEKEITIO

Sotera Angela Martinez Castaños, 80 urte.
Faustina Zabala Abaroa, 81 urte.

MUNGIA

Francisco Gaminde Lopategi, 66 urte.

PLENTZIA

Casilda Alonso Agirre, 92 urte.

SONDIKA

Josefa Llona Aldekoa, 92 urte.

URDULIZ

Ramon Barruetabeña Mardaras, 59 urte.

URTUELLA

Valentina de Pablos Frutos, 79 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Luis Saenz Gonzalez, 81 urte.
Constantina Ostolaza Solaberrieta, 87 urte.
Martina Bermejo del Caz, 81 urte.
Teresa Perez San Martin, 88 urte.
Carmen Areitio Urtena, 85 urte.

ANDOAIN

Francisco Gonzalez Gonzalez, 32 urte.

ANTZUOLA

Basilio Larrañaga Txintxurreta, 66 urte.

BEIZAMA

Jose Maria Goenaga Iraola, 77 urte.

BILLABONA

Felix Martinez Merino, 76 urte.

EIBAR

Teresa Fernandez Dominguez, 65 urte.

ERRENTERIA

Juan Maria Arostegi Oiarzabal, 44 urte.

IRUN

Francisco Arrastua San Sebastian, 87 urte.

ORDIZIA

Silveria Arana Matxain, 88 urte.

ARABA

GASTEIZ

Primitiva de Andres Martinez de Arenaza, 97 urte.
Maria Begoña Agirre Fuertes, 44 urte.
Jose Manuel Flores Gomez, 20 urte.

NAFARROA

IRUÑEA

Miguel Bidaurre Etxauri, 78 urte.
Paulino Azanza Ansa, 70 urte.
Ernesto Etxeberria Jimenez, 56 urte.

AZKOIEN

Valentina Irigarai Falcon.

BAKEDANO

Obdulia San Martin Fernandez, 86 urte.

BERRIOZAR

Ana Purificacion Valverde Burgos, 90 urte.

BURLATA

Severiano Martinez Erro, 79 urte.
Maximina Carte Garcia, 86 urte.

ESPARTZA GALAR

Anastasio Aizkorbe Garaioa, 66 urte.

MENDIGORRIA

Alfonso Usoz Aramendia, 78 urte.

LAPURDI

BAIONA

Alfred Darizkuren, 90 urte.
Louis Martinez, 69 urte.
Madeleine Stehelin-Berge, 103 urte.

AHURTI

Pascaline Etxebers-Feynerol, 76 urte.

ANGELU

Marie Laborde-Jaurena, 90 urte.
Petra San Jose, 88 urte.
Maria Jeanne Arroupe-Foix, 76 urte.

DONIBANE LOHIZUNE

Pedro Ripalda, 87 urte.

GETARIA

Jean Baptiste Laffitte, 94 urte.

HENDAIA

Maritxu Lapeyre-Laurent, 73 urte.

MIARRITZE

Denis Calmon, 35 urte.
Simone Bordeu-Lopez, 77 urte.
Andre Bontemps.
Armand Dufourg, 98 urte.

ZIBURU

Pierre Pery, 69 urte.

NAFARROA BEHEREA

BANKA

Bernard Oçafrain.

ESKELAK HARTZEN DIRA: ARRATSALDEKO 4ak ARTE: (943) 46 90 22 4etatik 7etara: (943) 37 15 45

Hirigintza

San Frantziskoko aparkalekuaren kontrako errekurtsoa aurkeztu dute

Kontzentrazioa gaur Plazan Udalaren irregulartasunak salatzeko

Alde Zaharreko Auzolagunen Elkarteak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu du Iruñeko Entzutegi Administratiboan, Alfredo Jaimek alkateak San Frantzisko Plazako aparkalekuaren lanak egiteko eman zuen baimenaren kontra.

I. I. / **IRUÑEA**

Alkateak otsailaren 10ean hartutako erabakiaren aurka aurkeztu du gora jotzeko errekurtsoa Alde Zaharreko Auzolagunen Elkarteak. Erabaki honen bidez Luis Zaranzo Amo, Aparkantes Elkarteko ordezkariari eman zion Alfredo Jaime alkateak plazan kokatuko den aparkaleku polemikoaren lanen adjudikazioa. Udal bilkura honetan obrak egiteko baimena ere eman zitzaion enpresariari. Plenoan hartutako erabakiak ezeztatu egin nahi dituzte Alde Zaharreko auzolagunek.

Hiritar hauen Elkarteak salatu duenez, iazko azaroaren 25eko akordio plenarioan adjudikazio, baimena eta lizitazioa ekintza administratibo bakar batean onartu zituzten. «Ez zituzten ez epeak ez azalpen publikoa errespetatu. Bi legeetan oinarritu ziren hori egiteko eta beste guztiak ez zituzten kontutan hartu» esan zuen auzolagunen ordezkariak egoitza berrian emaniko prentsaurrean.

«Komertzio edo taberna bat bailitzan tratatu dute Aparkantes Elkartea, eta zenbait prozedura ez dituzte bete. Eta dena Maisonave Hotelarekin bat egin dutelako. Hotelaren interesak bultzaturik ari dira aparkalekua denon gainetik eraikitzen, indarrean dagoen legeak agintzen dituzten neurriak alde batera utzi bait dituzte. Auzolagunek esan dutenez, hamabost hilabete falta zirenean lehiaketa ebazteko Aparkantes Elkartearen proiektua azalpen publikora jarri omen zuten. «Lanak aspaldi eman zituztela esan nahi du honek».

Prozeduraren irregulartasunak eta Udalak erakutsi duen ilunkeria salatzeko asmotan gaur arratsaldeko zortziretan kontzentrazio batetarako deia egin du Alde Zaharreko Auzolagunen Elkarteak.

BILBOTARRAk trafiko ixtea eta desbideratzearen aurka.Bilboko San Ignazio, Ibarrekolanda eta Elorrieta auzoetako hiritarrak, metroko lanak direla eta, Lehendakari Agirre Etorbidea ixtearen aurka mobilizatu ziren atzo, baita kale honetako trafikoa beste zenbait kaletan barrena desbideratzearen kontra ere, X. SIMALen argazkian ikus daitekeen bezalaxe. «Desbideraketen ondorioz trafikoaz inguraturik gelditukо gara, hain zuzen ere, metro karratuko biztanle gehien dagoen kale eta ikastetxe guztiak dauden tokitik igaroko da, eta hori erabat onartezina da», kexu ziren atzo auzo horietako biztanleak.

TERESA MARTIJA
(Bilboko A.E.K.ko irakaslea den Arantza Uriberen ama)

Anai-arrebok ez etsi lehengo sustraiari eutsi arima kendu nahi digutenei hortzak erakutsi. Herri libre bat iritsi nahi badugu bihar-etzi, arma benetan ziurrena den euskarari eutsi.

BILBOKO A.E.K.

ESKELAK

ARRATSALDEKO 7AK ARTE HARTZEN DIRA

Ingurugiroa

EK-k hondakin toxikoen arazoa eztabaidatu zuen atzo Brusselen

DONOSTIA

Europako Komunitateko Ingurugiro ministroek hondakin toxikoen irteera, sarrera eta transferentzien kontrolaz hitzegin zuten atzo Brussel-en. 'Hamabien' ministro kontseiluak gai zerrenda luzea izan zuen Carlos Borrego ministro portugaldarraren zuzendaritzapean. Hondakin toxikoez gain, ozono geruza babesteko neurriak ere izan ziren mintzagai.

Europako Elkartearen barruan izaten den hondakin toxikoen transferentzia begiratu eta kontrolatzeko arautegiaz akordiora irits litezke ingurugiro arduradunak. Hondar hauek Europako Komunitatearen esparruan izaten dituzten sarrera eta irteerei buruzko adostasuna lortzea izan zen bileraren beste helburuetako bat.

Europako Komunitateak 1990. urteko urrian proposatu zituen arauek hondakin arriskutsuak mugetan barrena izaten dituzten mugimenduez urtebete lehenago Basel-en —Suitza— onetsitakoa berretsi zuten.

Aipaturiko gai honetaz gain, azufredun gasoilaz proposamenaz ere hitzegin zuten atzo Belgikako hiriburuan. Honi buruzko normak 1994eko urtarrilean jarriko lirateke indarrean. Arauok diesel bezalako beste erregai batzuen arlora hedatuko lirateke, 1996. urtetik aurrera. Guzti hau onartu ahal izateko egungo birfindegiak birmoldatu beharra dago zenbait estatuk eskatu duten bezala. Titanio dioxinotik eratorriak diren hondakinen poluzioa murrizteko moduak ere aipatu zituzten atzo Europako Komunitateko Ingurugiro ministroek. Carlos Ripa di Meana Ingurugiro komisariak agiri bat aurkeztu zuen Brusselen ozono geruzari kalte egiten dioten gas klorofluorokarbonatuak murrizteko proposamena zabaltzeko. Ripak gas hauek desagertarazteko epea askoz ere lehenago ezartzea nahi du.



Erregaiek hondakin arriskutsuak sortzen dituzte.

Zaborrari buruzko ihardunaldiak hasiko dira gaur Errenterian

DONOSTIA

Zaborrei buruzko ihardunaldiak hasiko dira gaur Errenterian —Gipuzkoa—, bertako Eki talde ekologistak antolatuta. «Zaborra gure bizimoduaren ispilu bihurtu zaigu, zaborra egin eta egiten segitzen dugu eta jokaera hau aldatu beharra daukagu edo bestela gureak egin du» Ekiko kideen iritziz.

Ekik zaborra birziklatzearen alde egiten du apostua, eta horrexegatik antolatu dituzte ihardunaldiak. «Gure zaborraren irtenbide bat birziklapena da, zaborrarekin zer egin ez dakigunez gorde egiten bait dugu» zehaztu zuten. Ekik plazaratutako datuen arabera, 198.462.560 kilo zabor pilatu zen San Markosko zabortegian 1990. urteko uztailetik 1991. urteko uztailera arte.

Honek esan nahi du egunean 600 kilo zabor botatzen dela bertara. «Pertsona bakoitzeko 260 kilo zabor botatzen da eta Errenteriako herriak bakarrik, 12.406.000 kilo zabor sortzen du» esan zuten.

Birziklapenaren bidez, poluzioa desagertu, energia aurreztu eta naturarekin ziklo orekatuagoa osatuko litzatzeke Ekiren ustez. Ihardunaldiotan zenbait hitzaldi izango dira. Gaur bertan zabortegia izango da mintzagai. Datorren asteartean Gipuzkoako zabortegiei buruz ihardungo dute. Apirilaren 1ean 'Zarbortegiak, erauzkailuak, birziklapena...' lemapean egingo da hitzaldia, eta azkenik apirilaren 14ean, birziklapena izango da eztabaidagai. Hitzaldi guztiak Errenteriako Reina Aretoan egingo dira, arratsaldeko zazpi t'erdietatik aurrera.

PELLO ZABALA



AITOR BAYO

Martxoak 23 betetzen dituen guztietan bezala, atzo ere ospatu zen Nazioarteko Meteorologia Eguna. 'Zerbitzu meteorologiko eta klimatikoak garapen eramankor batentzat' izan zen aurten gogoetarako proposatutako gaia. Honelakoak jorratzea 'xelebrekeriatzat' jotzen duen lagunik bada gure inguruan oraindik ere. Zerurantz begiratzea aurrerapen teknologiko berrienak bezain fidagarria da gure eguraldi-gizonentzat.

«Artzainek darabiltzaten datu berberak erabiltzen dituzte gure meteorologoek»

JONE LARRANAGA / **DONOSTIA**

EGUNKARIA.— Zerura begira egiten diren iragarpenek ba al dute fidagarritasunik eguraldia asmatzeko teknologia berriak asmatu diren honetan?

PELLO ZABALA.— Hauei epe laburreko fidagarritasuna eskatzen zaie; etzi arteko epean asma dezakete bakarrik zein eguraldi egingo duen. Euskal Herrian izan dugun joera hori, lainoei begiratzea... gauza berbera da azken finean. Euskal baserritarra ahalegindu da besteek teknologian bidez hartzen dituzten datuak bere gisara hartzen: hegazti hotsak nondik eta nola datozen entzunda, halako haizea izango dela asma daiteke. Gaur egun hegazkinek zeruan uzten duten lurrunak ere eman diezaguke eguraldiaren berri: arrastoa laburra bada antizikloia datorren seinale.

EGUNKARIA.— Artzainek egiten dituzten iragarpenetan oso bereizgarria izan ohi da tenporak nola gelditzen diren ikustea. Nola neurtzen dira?

«Euskal baserritarra ahalegindu egin da besteek teknologiaren bidez hartzen dituzten datuak bere gisara hartzen».

ZABALA.— Haizea izaten da erreparatzen dena. Hiru hilabetetan zein izango den haize dominantea. Baina haizeak berdinak izan arren, oso eguraldi desberdina izan daiteke. Aurtengoa dugu honen adibide garbiena: udazkenean eta neguan jo duen haizea berdina izan arren, oso aro euritsua izan da bata, eta guztiz lehorra bestea. Hau asmatzea besterik ez zaie eskatu behar tenporei. Gaur egun zuku gehiegi atera nahi zaiela uste dut.

EGUNKARIA.— Azken urteotan eguraldian izaten ari diren aldaketak zerk sortarazten ditu?

ZABALA.— Eguraldiak gorabehera handiak izaten ditu. Batzuetan, eguraldiak olatu handi baten itxura hartzen du eta azkenaldi honetan hala da. Orain dela bi urte negu guztiz lehorra izan zen. Iazko neguan eta udaberrian, berriz, euria ase arte izan ondoren, batere euririk gabeko uda etorri zen... Uhin baten antzera ibiltzen da eguraldia, eta horregatik iragarri liteke ur askoko udaberria izango dela aurtengoa.

SOSLAIA

Meteorologo eta fraide

Arantzazuko seminarioan eskola tarteak aprobetxatzen zituen Pellok bertako behatokian eguraldia artertu eta datuak hartzeko. Euskaraz mintzatzen zen eguraldi-gizon bakarra zela eta, Euskadi Irratitik hotsegiten zioten egunero eguraldi iragarpenetan has zedin. «Irratikoek behartuta hasi nintzen lan honetan, eta behin sartuz gero nire kontura ikasten aritu naiz», aitortu du. Asko dira ordudanik egunpasa mendira edo hondartzara joan aurretik Pello Zabalaren iragarpenaren zain egoten direnak.



AITOR BAYO

Esnea produzitzeari utziko diotenei litroko 9 pezeta ordainduko diete

Eusko Jaurlaritzak esne kuota erreserba sortu eta produkzioa murriztu nahi du horrela

Esnea ekoizteari utziko dioten euskal ganaduzaleei produzituko ez duten esne litroko 9,34 pezeta ordainduko die Eusko Jaurlaritzak, esne produkzioa murrizteko prestatzen ari den programaren arabera. Nafarroako Gobernuak ere antzeko neurriak daramatza aurrera.

GASTEIZ

Euskal Autononomi Elkartean 313.000 tona esne produzitzen dira urtean, hau da, dauden 69.449 behiek 4.500 bat litro ematen dute. Produzitzeari uzteko Gasteizko Gobernuak prestatzen diharduen dokumentua esne sektorearen azken aholku mahaian aurkeztu zen eta EHNE sindikatuak ezagutarazi zuen atzo.

Ekoizteari uzteko programaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren helburua EAErako esne kuota erreserba sortzea da. Horrela, Europako Komunitateak produkzioa murrizteko egin duen agindua beteko litzateke. Bestalde, gehiago produzitu nahi dutenei kuota osagarria emango litzaieke.

Agiri horren arabera, beren borondatez produzitzeari uzten dioten baserritarrei 9,34 pezeta ordainduko litzaieke zazpi urtez. Baina programa horren laguntzak jasotzeko baldintza eta betebeharrak jarriko ditu Gasteizko Exekutiboak.

Baserritarrek produzitzen ez duten esne litroko 9,34 pezeta jasoko dute. CARLOS VILLAGRAN

BALDINTZA, KONPROMEZU ETA LEHENTASUNAK

Lehendabiziko baldintza esne industriak emandako 1985. urteko produkzio kopurua eta baserritarrek industriei gaur egun esnea ematen segitzen dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea da.

Erreferentzia urte hartan ganaduzale batek ezinbestean produzitzeari utzi behar izan balio ere eskatu lezake programa horretan sartzea.

Era berean, 1985ean produkzio jaitsiera gertatu izan balitz beste erreferentzia urte bat aukeratu lezake, 1983 edo 1984a adibidez.

Esnea ekoizteari utziko dion baserritarrak konpromezu batzuk hartuko ditu, Eusko Jaurlaritzaren programaren arabera. Horrela, ezin izango du bere ustiategia produkziorako erabili eta esne kuotak jasotzeko eskubidea betiko galduko du.

Halaber, baserritarrek baja eman beharko dituzte beren esne behiak Diputazioko erregistrotik eta hornitzaile izateari utzi diola jakin eraziko dio dagokion esne zentralari.

Gasteizko Gobernuaren ziriborroaren arabera, hiru kasutan dauden baserritarrek lehentasuna izango dute programaren laguntzak jasotzeko. Osasun arazoengatik ustiategia matentzeko zailtasunak dituztenek, adin handia daukatenek —60 urtetik gora alegia— eta urtean 30.000 kilo baino gutxiago merkaturatzen dituztenek izango dute lehentasuna.

NAFARROAN DEKRETUA ONARTU

Nafarroan ere atzo goizean Gobernuak izan zuen bileran esne kuotaren Erreserba Forala ezarri dute dekretu baten bidez. Esnea produzitzeari uzteko aukerak ere dekretu berean bideratu du nafar Gobernuak.

Foru Elkarteak Estatuarekin lortu duen akordioari esker, Madrileko Gobernuak ez du Erreserba Foralaren Dekretuaren aurka egingo.

CFDT sindikatuak Bidasoako hirien hitzarmena salatu du

M.ESTEBAN / **DONAPAULE**

Orain dela astebete izenpetu zen Irun, Hondarrabia eta Hendaiaren arteko 1993rako hitzarmen estrategikoa salatu du CFDT sindikatuak. «Hitzarmen horrek ez du zentzurik, ikusita batez ere nola hiri bakoitzak bere aldetik jarraitzen dien beren xedeei», adierazi zuen Manolo Alkaiaga CFDT sindikatuko Ipar Euskal Herriko idazkari nagusiak.

Alkaiagak gaineratu zuenez: «Orain dela gutxi izenpetu zen hitzarmena ezer gutxi da, ez bait dira gauzak aski aurretik pentsatu. Adibidez, aipatzen da hirien arteko koordinakundea ekonomi arloan batez ere, baina errealitatean konturatzen da hiri bakoitzak jarraitzen diola bere bideari bakarrik».

CFDT sindikatuaren ordezkariak industria lur antolakuntzaren estrategi batuaren falta salatu zuen: «Bidasoako 1993. urteko Estrategi Plangintza honetan ez da ezer pentsatua eremu batu bat egiteko industriarentzat adibidez. Izan ere, hiri bakoitza ados da ikerketa egiteko eta hitzegiteko, baina kanpoko enpresa bat etorriko delarik non kokatuko da? Ez bait da ondo definitua oraindik, pentsatzen ahal da hiri bakoitza borrokan sartuko dela enpresa berri hau bere lurretara ekartzeko».

Milaka baserritar bildu ziren Iruñean beren egoera salatzeko

T.S. **IRUÑEA**

Milaka baserritar, bost edo sei mila antolatzaileen ustez, bildu ziren atzo Iruñean UAGN sindikatuak antolatu zuen manifestazioan parte hartzeko. Traktoreak ezezik, ardiak, ahuntzak eta behiak ere ikus zitezkeen Gaztelu enparantzan, hala nola azak, letxuak eta beste barazki mota batzuk, baserritarrek ekarritakoak. Antolatzaileak pozik zeuden beren deiak izan zuen arrakastarekin, eta ekintza hau ez dela azkenekoa izango gaineratu zuten.

Angel Eraul UAGN sindikatuko presidentea mintzatu zen manifestazioa bukatu ondoren, baserritarren interesak defendatu beharra azpimarratzeko, eta «jasaten ari garen egoeran itxaropen handiak ez izan arren, gaurko erantzun honetan garbi ikusten da gure beharrak eskatzeko prest gaudela», azaldu zuen Eraulek. Erreibindikatzen zituzten bederatzi puntuak aipatu eta eskatu zituen.

«Gobernuak Madril aldera bidaltzen gaitu, Madriletik Bruselera, eta han ere ez digute kasurik egiten, gure hitzak ez dituzte ulertzen», adierazi zuen hizlariak. Aurrera eraman behar duten borrokan «laguntza konpentsatorioak eskatu behar ditugu, baserritar bakoitzaren errendimenduari dagozkionak», zioen Angel Eraulek.

Esnearen kuota, Nekazal politikaren erreforma, ibaien erregulazioa eta Nafarroako ubidearen eraikuntza, eta nekazaritzatik bizitzeko eskubideari buruz aritu zen, sektore honen egoera larria aztertuz. Aurrekontuak direla eta, nekazaritzak behar duen adina jaso behar duela zioen, dauden beharrei aurre egiteko.

Traktoreak, ardiak, ahuntzak eta behiak ikus zitezkeen atzoko manifestazioan. JOXE

Kupo Legea ostiralerako utzi dute Larrea eta Zabalzak

MADRIL

Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Administrazioko ordezkariek aste honetako ostirala arte atzeratu dute Kupo Legearen sinadura, Jose Luis Larrea eta Antonio Zabalza Hazienda arduradunek atzo Madrilen egin zuten bileran behin-betiko akordioa lortzerik izan ez zutelako.

Larrea eta Zabalzak ez zuten esan atzoko bileraren ostean Euskal Autonomi Elkarteak zenbat diru eman behar izango dion Estatuari, baina iturri guztien arabera diru kopuru hori 100.000 milioi pezeta ingurukoa izango da aurten. Kupo Legeak, berriz, bost urteko iraupena izango du onartzen denean.

Akordio hau lortu ez bazuten ere, Larreak iragarri zuenez, Eusko Jaurlaritzak ez du trabarik jarriko Madrileko Gobernuak prestatu duen Bateratasun Planari.

Espainiako Administrazioko ordezkariek Estatuko elkarte autonomoetako ordezkariekin bilduko dira gaur horretaz eztabaidatzeko.

Azken hau ez dator bat Eusko Jaurlaritzako zenbait buruzagik eta Larreak berak esandakoarekin, hauek Bateratasun Planaren onarpena Kupo Legearekin baldintzatzen bait zuten.

Eusko Jurlaritzako Hazienda arduraduna oso baikor azaldu zen iragan astean negoziazio hauekin, akordioa «egina» zegoela eta «gauza batzuk zehazteko» zeudela esan zuenean.

Larreak ziurtatu zuenez, lege hau onartzeak Eusko Jaurlaritzak AHV eta Acenorren izango duen partaidetza ahalbideratuko du eta akordiorik ezean, berriz, «ezin izango dugu ezer zehaztu, ez Jaurlaritzak industri birmoldaketan izango duen partaidetza ez transferentziak eskuratu» esan zuen.



Basauriko Acenorren iragan asteazkenean bukatu zen materiale blokeoa. XOUSE SIMAL

Acenorreko langileek materialea oztopatzeari utzi zioten atzo

Mobilizazioen artean lau orduko greba egingo dute gaur

Acenorreko langileek bertan behera utzi zuten atzo materiale irteeraren blokeoa, zuzendaritzak otsaileko soldata asteazkenean ordainduko diela agindu ondoren. Sidenorrek ezarri nahi duen planaren aurkako mobilizazioek, berriz, aurrera jarraitzen dute eta gaur lau orduko geldialdia egingo dute langileek.

BILBO

Atzo goizeko seietan bertan behera utzi zuten Acenorreko langileek ia hilabete luzatu duten lantokietako materiale irteeraren blokeoa. Sindikatuek hala egitea erabaki zuten Sidenorrek hilaren 25erako agindu bait die otsaileko soldata, materialea ateratzea uzteko baldintzarekin. Gasteiz eta Basauriko lantegietan joan den asteazkenean eman zioten bukaera blokeoari eta atzo gainontzeko beste hiru lantokietan gauza bera egin zuten.

Era berean batzarrak egin zituzten atzo ere bost lantegietan, sindikatuek aste honetarako deituriko mobilizazioak onartzeko.

LAU ORDUKO GELDIALDIA

Acenorrek Hernani, Laudio, Gasteiz, Larrondo eta Basaurin dituen lantegietan txanda bakoitzeko lau orduko geldialdia egingo dute gaur langileek, altzairu berezien enpresako zuzendaritzak ezarri nahi duen plangintza estrategikoaren aurka protesta egiteko.

Acenor eta Cantabriako Foarsa biltzen dituen Sidenor holdingeko arduradunen plangintzak Hernani eta Laudioko lantegia itxi eta 1.845 lanpostu kentzea proposatzen du eta zentzu honetan ostegunean Madrileko Lan agintaritzaren aurrean kontratu etendura espedientea aurkez dezake.

Espedientearen, eta beraz, plana indarrean jartzearen aurka CCOO, ELA, LAB eta UGT sindikatuetako ordezkariek egindako mobilizazioen egutegiaren barruan sartzen da gaurko lau orduko grebaldia. Ostegunean, berriz, hogeitalau orduko greba egitera deitu dute sindikatuek eta arratsaldeko sei t'erdietan Bilboko kaleetan zehar manifestazioa burutuko dute Acenorreko bost lantegietako langileek.

Gobernuaren lan neurriak langileen aurkako erasotzat jo ditu ELAk

J.A./ **DONOSTIA**

ELA sindikatuak dei egin zien atzo Euskal Herriko langileei Espainiako Gobernuaren Bateratasun Planak jasotzen dituen lan neurriei aurka egiteko. Sindikatu horren ustez, neurri horiek langileen eskubideen aurkako eraso bortitza da.

ELA bezala, Espainiako sindikatu nagusiak diren UGT eta CCOOek ere gogor kritikatu dute Espainia Europarekin bateratzeko planak jasotzen dituen neurriak, langabeentzako dirulaguntzak kobratzeko gutxienez urtebetez lan egin behar izatea, laguntza horien zenbatekoa gutxitu eta kobratu ahal izateko baldintzak gogortzea, alegia.

LAN MERKATUA MALGUTU

ELAren iritzi, Estatuaren defizit publikoa gutxitzeko helburuz Gobernuak hartuko dituen neurri hauekin langileak zigortu egingo ditu, berauek izanik «Gobernuaren Politika Ekonomikoaren ondorio negatiboak pairatzen ari direnak». Sindikatu honentzat paradoxikoa da gaur egun INEMek langabetuei ematen dizkien laguntzak Europako lurraldeetako batezbestekoaren azpitik egotea.

Espainiako Gobernuak egin duen plana gaur Legebiltzarrean eztabaidatuko duten bitartean, sindikatuek neurri horiei gogor erantzungo dietela ohartarazi dute. Gobernuak dioenez, neurri hauen helburua lan merkatua «malgutu eta zabaltzea» da.

Langabeei laguntzak kobratu ahal izateko lanaldia sei hilabetetik urtebetera luzatuta INEMen defizita gutxitu nahi dute —iaz 300.000 milioi pezeta baino gehiago izan zen —.

Hala ere eta Gobernuak indarrean jarriko dituen neurrietako bat behin-behineko kontratuak ere gutxienez urtebetekoak izatea baldin bada ere, sindikatuetako idazkariek ez dute hori sinesten eta enpresariek hori horrela ez izateko modua aurkituko dutela uste dute.

Carlos Soltxaga ministroa

Gauzak horrela, sindikatuek ez dute baztertzen neurri hauek aurrera eginez gero greba orokorrerako deia egitea.

LABURREAN

KAMIOI ilada gehiago Irunen

Berriz ere, kamioi iladak izan ziren atzo Irungo mugetan, aduana agentzietako langileek egun osoan egindako arretazko grebaren ondorioz. Greba hau Espainiako aduana guztietako langileek egin zuten, beren eskakizunez Administrazioa ohartarazteko ●

ARABAko metalgintzako sindikatuek SEA salatu dute

UGT, CCOO, ELA eta LAB sindikatuetako metalgintza saileko ordezkariek Arabako Enpresarien Elkarteari (SEA) sektore honetako konbenbio kolektiboa negoziatzeari uko egin eta berau sinatu aurretik baldintzak jartzea leporatu diote. Sindikatuek eskabide plataforma bateratua aurkeztu zuten otsailaren hasieran eta % 8ko soldata igoera zein 25 orduko lan ihardunaldiaren murrizketa eskatzen dute, baina SEAk azken hau errefusatu egin du ●

BIHARKOk euskal kutxen aseguruak bideratuko ditu

Biharko Taldeak Euskal Autonomi Elkarteko (EAE) hiru kutxen aseguru negozioak bideratuko ditu. Bizkaiko BBK, Gipuzkoako Kutxa eta Arabako Vital kutxaren aseguruen ardura hartuko duen taldea bost sozietatek osatzen dute eta nagusia Biharko Vida litzateke. Taldeko buruan dagoen sozietate honek pentsio aholkularitza zerbitzua, bateratze prozesuan dauden bi aseguru etxe eta aseguru orokorreko konpainia bat biltzen ditu ●

SESTAOko untziolak kalitate probak gainditu ditu

Sestaoko La Naval-ek untzien muntaiari buruzko kalitate begiraletza gainditu du. Norvegiako Det Norske Veritas konpainiak egindako azterketa proba hauek gainditu ondoren, Astilleros Españolesek Sestaon daukan untziolak itsasontziak eraikutzako ziklo osoa dauka homologaturik, antolaketa, teknologia eta kalitate aldetik «nazioarteko ekoizleaurreratuenen mailara heldu ondoren» ●

Erregio hauteskundeak Frantzian

Eskuineko oposizioaren batasuna (UPF) Frantziako indar politiko handiena modura azaldu zen joan den igandeko hauteskunde erregionaletan. Agintean dagoen PSk, aldiz, inoiz izandako beherakadarik handiena izan du nahiz eta oraindik bigarren tokian geratu. Alabaina ohizko alderdi politikoen eraginaren gutxitzea nabaritu da bozkaldi honetan eta bai ekologistek bai Fronte Nazionalak dute gertakari honetaz abantaila hartu. Dena den, hauteskunde hauetako ezusterik handiena botoemaleen partehartze handia izan zen, % 70 ingurukoa izan bait zen, aurrikuste guztiak gezurtatuz.

Oreka politikoa aldatu du proportzionalak

FN eta ekologistek jaso dituzte UPF eta PSk galdutako botoak

ALLANDE SOKARROS / **BAIONA**

Ekologistak eta mutur eskuineko Fronte Nazionala (FN) izango dira datozen sei urteetan Frantziako hainbat erregioetako biltzar gehiengoen epaileak. Izan ere, botoen % 14 lortuta beren eragin politikoa askoz indartu dute eta eskuin nahiz ezkerreko alderdi handiek ez dezakete agintzeko gehiengorik gauzatu beraiek kontutan hartu gabe. Azpimarra daitekeenez, proportzinala boto ereduak zerikusi handia izan du gertakari honen sorreran, departamendu batean % 5 inguruan eskuratzea nahiko bait zen zinegotzi bat lortzeko.

Frantziar barne ministeritzak atzo goizean zabaldutako behin betirako emaitzen arabera, RPR eta UDF eskuineko alderdiek osatutako UPF batasuna da igandeko hauteskunde hauen garaile azaltzen, botoen % 33 lortuta. Gaurregun Frantziako gobernu agintean dagoen PSk aldiz bigarren tokia bakarrik du hartzen, botoen % 18,3 eskuratuz.

Azken urte guztiotako gora egitearen jarraian, Fronte Nazionala mutur eskuineko alderdia Frantziako hirugarren indar politikoa azaldu da, % 13,9 bat bereganatuz. Portzentaia hau bera lortu zuten ekologistek baina azpimarratu behar litzateke emaitza hauek bi mogimenduren artean lortutakoak direla, hain zuen ere Berdeak eta Ekologia Belaunaldia. Alderdi komunistari dagokioenez, botoen % 8 bakarrik bereganatuta orain arte ezagututako emaitza txarrenen heinean geratu da.



Biak garaile irten arren, Lalonde eta Waechterren arteko borrokan lehenak irabazi du.



	BOTOAK (92)
RPR-UDF	8.071.623
PS	4.468.849
FN	3.396.141
PCF	1.963.562
Ekol. Belaunaldia	1.744.350
Berdeak	1.659.798

SOZIALISTEN EMAITZA TXARRENA

Frantziako eremu osoan gertatzen ziren erregio hauteskunde hauen datu ohargarrienetarik bat alderdi sozialistaren behera egite nabaria izan da. Izan ere, PSk 1971. urteko bere sorreraz geroztik inoiz ezagututako emaitza gutxiena izan du eta % 18,3 hauekin azpimarra daiteke ere lehen aldikoz % 20ko marraren azpira jaisten dela. Hala ere agintean dagoen alderdiaren porrot egite honek ez dio uste bezainbat mesederik ekarri eskuineko oposizioaren batasunari, UPFk botoen % 33 lortzearekin beherakada bat paraitu bait du, 1986. ko hauteskundeekin alderatuta (% 39,3).

Behera egiteari ekin dio ere berriro frantziar alderdi komunistak zeren botoen % 8 bakarrik bereganatuz, duela sei urte lortutako emaitzetatik bi pundu galdu ditu eta orain arte ezagutu duen hauteskunde kopuru apalenaren inguruan geratu bait da (%7,7 Europarako bozkaldian 1989.ean).

EKOLOGISTEN LEHIAKETA EMANKORRA

Ekologistei zaie tokatzen igandeko bozketa hauen emaitza ondoriotsuena, guztira 13,9 bereganatu bait dute. Hala ere lorpen hau bi mogimenduren arteko kopuruen batuketa dagoela azaldu behar da, Antoine Waechterek zuzendutako Berdeak (% 6,8) eta Brice Lalonde ingurumen ministroa buru duen Belaunaldi Ekologikoa (% 7,1) hain zuzen ere. Azpimarratzen ahal litzatekeenez, berrienik sortutako Belaunaldi Ekologikoa da bi alderdien arteko lehiaketan garaile atera eta gertaera honek ondorioak ekar ditzateke ekologisten munduan.

Erregio hauteskunde hauetan proportzionala boto ereduak eragin dituen ondorioen adiarazle argiena Ile de France eskualdeko emaitzak daude. Parise eta bere inguruko erregioan UPF da garaile atera (botoen % 34) eta PSk % 14,5 bakarrik du bereganatu. Ondorioz, bai Frente Nazionalak (% 16) baita ere ekologistek (% 18 bi alderdien artean) aurrea hartu diote Frantzian agintzen duen indar politikoari.

Ustekabea

Hauteskunde erregionaletan izandako ezusterik handiena botoemaleen partehartze handia izan zela azpimarra daiteke. Izan ere, azken hilabeteotan plazaratuak izan ziren aburu ikerketa ia guztien arabera abstentzioaren neurriak kasik erdiraino iritsi behar zuen. Eta alderantziz gertatu da, botoemaleen kopurua % 68,7 igo dela jakitera eman bait zen modu ofizialean. Gainera daitekeenez, erregio eta kantonamenduetarako bozketa hauei esker, aspaldian nabaritzen zen abstentzio handiak behera egin du Frantzian. Aurreko erregio hauteskundeetan, ordea, Legebiltzarrekoak ere zirenez, abstentzioa % 22 izan zen soilik.

«Frantziarrek emandako oharra» kontutan hartzeko prest dago PS

PARISE

Edith Cresson Frantziako gobernuburuaren arabera, erregio hauteskunde hauetan «ez da gehiengo nabaririk agertu» eta gaineratu zuenez «lagundu nahi izango nauten indar aurrerakoi guztiekin gobernatzeko prest nago». Hitz hauen bitartez ekologistak zituen argi aipatu nahi Frantziako lehen ministroak, zeren komunikabideei egindako deklarazio berean gehitu zuenez «nahikunde berri hauek azaltzen digute frantziarrek hobeki adituak izateko gogoa dutela».

Laurent Fabius Frantziako Legebiltzarreko lehendakari sozialistak, aldiz, PSren porrot egitea nahiko minberaki aztertu zuen «emaitzak hauek ez dira batere onak» adierazita. Frantziar gobernuburu izandakoak gehitu zuenez, «botoemaleek bidali digute mezuari kontu eman behar diogu. Gure atzera egite honek gutxienez erakustera ematen digu berrikuntzaren beharraren neurria, baita ideia eta obren argitzeko premia ere».

Pierre Joxe Defentsa ministroak ildo berari jarraitzen zion adieraziz «frantziarrek abisu bat eman nahi izan diote Gobernuari. Argi da gure alde ez den iritzi olde bat badagoela eta behar dugula hau aztertu». Jean Poperen alderdi sozialistako burukideak uste zuenez aldiz, «Gobernuak eta bere aldeko gehiengoak kontuz begiratuko diete emaitza hauei» baina gaineratu zuenez «PSren behera egite honek ez dio mesederik egin oposizioaren batasunari».

EKOLOGISTAK ZATIKETAZ DAMUTURIK

Hauteskunde hauetan arrakasta zabala lortu duten ekologisten aldetik Brice Lalonde Ekologia Belaunaldia mugimenduko buru den Ingurugiro ministroak azpimarratu zuen «lortu ditugu emaitzek bultzada handia ekartzen diote ekologia arduradun eta errealistari» baina ekologisten zatiketaz damutu zen ere erranez horrelakorik ez balitz izan, Frantziako hirugarren idar politikoa izango zela gaur egun. Berdeak alderdiaren izenean aldiz Antoine Waechterek azpimarratu zuenez «ekologisten erroak gero eta barnago dira Frantziako bizitza politikoan».

UPFeko ordezkariek bere koalizioa «Frantziako lehen indar politikoa bihurtu dela» azpimarratu zuten eta gogor ekin ere eredu proportzionalaren aurka, Chiracen ustez «erregio asko gobernagaitzak izatea ekarriko bait du». Giscardek Auvergneko garaipenaz solik hitzegin zuen.

Ustelkeria eta Europa aurrez aurre izango dira Nazioari buruzko debatean

Gonzalez lehendakariak «gutxiago gastatzeko» eskatuko die herritarrei

Ustelkeria eta Europarekiko Bateratasun Plana aurrez aurre izango dira gaur eta bihar Espainiako Legebiltzarrean egingo den Nazioaren egoerari buruzko debatean. Gonzalezek ekonomiari buruz ihardungo du batez ere, eta oposizioak azken urtean agertu diren ustelkeria kasuak gogoratuko dizkio.

IKER ARANBURU / **DONOSTIA**

Ikusmin handia sortu du urtero Espainiaren egoera ekonomiko, politiko eta soziala zein den azaltzeko egiten den Nazioaren egoerari buruzko debatea. Joan den urtean, Alfonso Guerraren lehendakariordearen dimisioa oraindik guztion ahotan zegoela egin zuen bere hitzaldia Felipe Gonzalezek. Aurten bi dira gai nagusiak: bizitza politikoaren ustelkeria eta Europarekiko bateratasuna.

Felipe Gonzalezek bigarren gai hori izango du aipagai nagusia eta Gobernuak Europako batasun monetario eta politikoan sartzeko egin behar dituen ahalegin ekonomikoei buruz arituko da, hau da, Bateratasun Plana azalduko du. Hitzaldia prestatzen lagundu dioten Lehendakaritzako aholkularien esanetan, «espainiarrek gastu handirik egin gabe bizi behar» dutela izango da Gonzalezen mezua. Austeritate giro honetan Gobernuak ere hartuko duela parte —gastu publikoak eta batez ere sozialak murriztuta— ziurtatuko du lehendakariak. Makroekonomiako datuak beste baterako utziko ditu ere Gonzalezek, «ezinezkoa delako hemendik lau urtetara gertatuko dena aurrikustea».



Gonzalezek alde batera utziko ditu planaren datu makroekonomikoak. EFE

Bateratasun Planaren puntu batek behintzat, dagoeneko aurkako iritziak sortu ditu sindikatuen aldetik. Planak langabezirako dirulaguntza jasotzeko gutxienezko epea urtebetez lan egin izatea finkatzen du, gaur eguneko sei hilabeteen ordez.

Ustelkeriari dagokionez, Gonzalezek gai honi buruz hitzegingo duela baieztatu dute La Moncloako iturriek. Hala ere, gobernuburuak ukatu egingo du «ustelkeria oposizio eta komunikabideek diotena bezainbeste hedaturik dagoela». Oposizioak —eta batez ere PP eta IUk— ustelkeriari buruzko galderak egingo dizkiotenez, Gonzalezek kasu horiei buruzko txostenak ikasi egin ditu azken egunotan, galdera zein kritikei hobe erantzun ahal izateko. Ustelkeria kasuak alderdi guztietan daudela gogoratu eta gero, epaileek kasu guzti horiek epaitzen ari direla aipatuko du Gonzalezek oposizioa ixilarazi nahian.

Hamazazpitik bost

Joan den urteko debatean, Diputatuen Kongresuak egindako ha mazazpi proposamen onartu zituen Felipe Gonzalezek. Hauetatik bost besterik ez ditu bete exekutiboak: Armada eta Soldadutzari buruzko eztabaidak egitea, Lanbide Heziketa plana, drogari buruzko eztabaida, Europako Komunitaterako batzorde mistoa egitea Kongresu eta Senatuaren artean eta Autonomi Hitzarmena.

Iazko debatean onartutako beste proposamenak gauzatzeke daude —greba eskubidearen araudi berria, azpiegituretarako aurrekontuen gehitzea, Kanariak eta EKren arteko harreman berezia, Ceuta eta Melillaren autonomi estatutuen onarpena, Alokairuen lege berria— edo porrot egin dute —Aurrerapenezko Hitzarmen Soziala adibidez—.

Txinak Frantzia mehatxatu du Taiwani armak saltzeagatik

PARISE

Frantziak Taiwani gerra hegazkinak saltzen badizkio, Txinak «frantziarrei gogor erantzungo diela» mehatxatu zuten atzo herri honetako agintariek. Parise eta Taipeiko Gobernuak lortutako akordio baten bidez, Frantziak 'Mirage 2.000' ehizegazkinak salduko dizkio Taiwaneko Gobernuari.

Txinako Parlamentuaren prentsaurreko batean adierazitakoaren arabera, «lehenago Alemania eta Holandak izandako jokaerari jarraitu beharko lioke Frantziak». Martxoaren 10ean Txinak Holandari 7 'Fokker-100' hegazkin erosi zion, azken honek Taiwanekin zuen akordioa apurtu ondoren.

Gutxienezko zerbitzuen aurka daude galiziar sindikatuak

SANTIAGO

Apirilaren 2rako Galizia osoan greba orokorrarako deia egin duten sindikatuek epaitegietara eramango dituzte Xuntak erabakitako gutxienezko zerbitzuak. UGT, CCOO, CIG eta nekazal sindikatuen iritziz, gutxienezko zerbitzuak «1988. urteko abenduko greban epaileek onartu ez zituztenak baino handiagoak dira» eta hortaz inolako zerbitzurik ez emateko prest agertu dira.

BIHAR iritsiko dira Madrilera Ponferradako (Leon) 450en bat meatzari, Villablino eta hiriburua elkartzen dituzten hirurehun kilometro inguru oinez egin ondoren. Meatzariak Claudio Aranzadi Industria ministroarekin elkarrizketatu nahi dute, azken honek MSP meatzal enpresaren krisiari konponbideak eman diezazkion. Meatzarien martxak sindikatu eta alderdi politiko ugarien elkartasuna jaso du.

Felipe Alcaraz PCAko idazkari nagusi aukeratu dute berriz ere

MALAGA

Felipe Alcaraz, Andaluziako Alderdi Komunistaren (PCA) idazkari nagusia izaten segituko du, azken astebukaeran Fuengirolan egindako V Kongresuan bere zerrendak 'kritikoenak' baino boto gehiago lortu ondoren. Luis Carlos Rejon IU-CAko buruaren zerrenda alternatiboak ezin izan du Alcaraz ordezkatu, baina erakutsi du PCAren barnean eztabaidak badaudela.

Alcaraz idazkari nagusi aukeratu dute berriro, bere zerrendak botoen % 73 (203 boto) lortu eta gero. Rejonek beste % 27 (74 boto) jaso du. Hasiera batean, bazirudien Antonio Romero diputatuak zerrenda berezi bat aurkeztuko zuela, baina azken momentuan irabazlearen hautagaitzako bigarren lekuan agertu zen.

Kongresuak iraun zuen bi egunetan, bi taldeak batzeko saioak egon ziren, baina azken finean eztabaidak areagotu egin ziren. Eztabaida hauetariko bat izan zen zerrendak irekiak edo itxiak izan behar ziren aztertzerakoan. Fuengirolako batzarretan egon diren ordezkarien artean batzuek egoera honi buruzko kritikak bota dituzte. «Kongresuan pertsonalismoetan jauzi da jende guztia. Bakoitzak bere interesak defendatu ditu, eta ez alderdiarenak» zioen ordezkari batek.

Rejonen zerrendaren alde agertzen zen Jaeneko ordezkariak, Ernesto Caballerok adierazi zuenez «bi egun hauetan ez dira ezberdintasun politikoak ikusi, baizik eta ezberdintasun pertsonalak». Caballeroren ustez, «normala da eztabaida egotea, eta honekin batera zerrenda ezberdinak aurkeztea; baina hemendik aurrera denok batera egin behar dugu lan IUren proiektua aurrera eramateko».

Felipe Alcaraz

Albanian Alderdi Demokratikoak aginte komunistarekin amaitu du

Hauteskundeen emaitzen ondoren albaniarrek EEBBen laguntza espero dute

Albaniako Alderdi Demokratikoak garaipen handia lortu zuen herenegun egindako hauteskundeetan. Azken datuen arabera botoen % 70etik hurbil ibili zen Sali Berisha-ren alderdia. Alderdi Sozialista (komunista ohiak), berriz, larri larri iritsi zen % 20ra. Orain albaniarrak 'Osaba Samen' laguntzaren zain daude.

K. ALDABE / **DONOSTIA**

Alderdi Demokratikoaren jarraitzaileek gau osoa eman zuten hauteskundeen emaitzak jasotzen.

50.000 lagunek gainezka egiten zuten Skenderbeg enparantzan Sali Berishak «komunismoaren aurkako garaipena» aldarrikatu zuen atzo, bere atzean William Rayer enbaxadore iparramerikarra zuela.

Alderdi Demokratikoko buruzagiak eta lehen ministro bihurtuko denak adiskidetze nazionalerako deia egin zuen baina zehaztu zuen «gure bihotzen adiskidetzeaz ari naizela, albaniar orok bere anaia onar dezan, ez naiz ari koaliziozko Gobernuaz hitzegiten».

Alderdi Demokratikoaren garaipenak aginte komunistaren berrogeitazazpi urteen amaiera iragarri du, eta berarekin batera nazioarteko isolamenduarekin. Baina Gobernu berriak ezin izango du epe motzera Europako herririk pobreena, eta «agian munduko herririk pobreena ere bai» Berisharen hitzetan, murgildurik dagoen krisitik atera. Horretarako nazioarteko laguntza beharko du Albaniak, 1977an Txinarekin zituen harremanak hautsi eta geroztik gainbehera hasi zen ekonomia berpizteko inbertsioen beharra bait du.

ATZERRIKO LAGUNTZEN ZAIN

Hauteskundeetan lorturiko garaipenaren berri emateko antolatutako mitinean, William Rayer enbaxadore iparramerikarrak laguntza agindu zien Berisharen jarraitzaileei, Alemaniako Legebiltzarreko ordezkari batek Europa eta Alemaniaren laguntza eskaintzen zien bitartean. Albaniarrek, ordea, (errusiarrek egin duten bezala) konfidantza handiagoa daukate dolar eta hamburgesaren filosofian ecu-an baino. Horren adibide bezala 50.000 lagun bildu ziren enparantza erdian lau haizetara zabaltzen zen izar eta barren banderatzarra ikustea besterik ez zegoen.

Baina erreforma ekonomikoekin batera, politikoak ere egin beharko dituzte Albanian. Izan ere Gobernu-Lehendakaritza harremanak ezin izango dira orain arte bezalakoak izan. Ramiz Alia lehendakari komunistak, Enver Hoxha buruzagi stalinistaren oinordekoak bereganatutako botereak kendu egin nahiko dizkio Berisharen Gobernuak. Lehendakari eta Gobernuaren arteko elkarbizitzak zeresan handia izango du etorkizunean.

Kanpoan uso etxean otso

Albaniako hauteskundeetan, beste gatazka baten hasiera egon daiteke, gutxiengo grekoa ez delako kontutan hartu. Honek, berarekin Grezia eta Albaniaren arteko harremanak ere hotz ditzake eta desegonkorrago bihurtu Balkanetan bizi duten egoera. Albaniar eta gutxiengo grekoaren artean haziz doan enfrentamenduak, gutxiengoen arazoa berpiztu du berrogeitazazpi urtez isolaturik egon den herrian. Korca eta Girocastra eskualdeetan, iturri albaniarren arabera, 60.000 inguru greko bizi dira. Greziaren arabera, ehundaka mila grekoak dira bertan bizi direnak. Hauteskunde junta albaniarrak debekatu egin zien Eskubideen Alderdiko lau hautagairi hauteskundeetan aurkeztea grekoak zirelako. Serbiako gutxiengo albaniarren eskubideak aldarrikatu eta etxeko gutxiengo grekoari kentzeak ezer on gutxi egiten dio Albania demokratiko berriari.

Errusiako Batasunaren Ituna atzeratu egin da eta martxoaren 31n sinatuko da

DONOSTIA

Errusiako errepublika eta eskualde autonomoek sinatu behar duten Batasunaren Ituna gauzatzeko bilera atzeratu egin da, eta hasiera batean martxoaren 25a baldin bazen jarritako eguna, azkenik hil honen 31n izango da bilera hau. Larunbatean Tatarstan independentziaren alde agertzeak eragin handia izan du neurri hau hartzeko orduan.

Itun berri hau hamar egun lehenago 14 errepublika autonomok onartu zuten baina beste bi ez ziren ados agertu: Txetxenia eta Tatarstan Errusiatik banatzekotan dira. Lehena Txetxenia izan zen, eta joan zen larunbatean Tatarstanen izaniko erreferendumean gehiengoa independentziaren alde agertu zen.

Tatarstanen gertatutakoaren oihartzuna, zuzendaritza errusiarrak erreferenduma gelditzeko saioak egin bazituen ere, dagoeneko beste eskualde batzuetara zabaldu da, hala nola, Siberia eta Ipar Kaukasora, eta han ere sezesio nahia piztu liteke. Horregatik, «Batasunaren Ituna ahalik eta azkarren sinatu behar da, beste toki batzuetan berdin gertatu baino lehen», adierazi zuen Iuri Baturin politologoak atzo telebistaz.

Boris Ieltsinek, duen egoera ikusita, desegitearen aurkako txosten batean prozesu honi aurre egiteko neurriak azaldu ditu.

TATARIAR ABERTZALEEN GARAIPENA

Tatarstanen larunbatean eginiko erreferendumaren emaitzak jakinak dira dagoeneko. % 81ek eman zuen botoa, eta horietatik % 61 subiranotasunaren alde bozkatu zuen. Beraz, gehiengo zabala independentziaren alde azaldu zen, eta tatariar abertzaleek garaipena lortu zuten.

Emaitza hauekin Boris Ieltsin izan da galtzailea, eta Errusia eta Tatarstanen arteko harremanak ez dira hobetuko. «Orain herriak erabakitakoa aurrera atera behar da, zentzua eman behar zaio subiranotasun honi», adierazi zuten independentziaren aldekoek azken emaitzak jakitean. Errusiarekin itun bat sinatzeari nahitaezkoa erizten diote abertzaleek, eta bertan Errusiak Tatarstaneko jabetzak tatariarrei dagozkiela onartu beharko dutela uste dute.



Boris Ieltsin.

LABURREAN

ARABIARrek itxaroteko eskatu diote NBEri

Herri arabiarrek Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari itxaroteko eskatu diote Libiaren kontrako zigorrak ezartzeko, harik eta Haga-ko Nazioarteko Auzitegiak herri hau eta EEBB, Erresuma Batua eta Frantziaren arteko gatazkan epaia eman arte. Bi hegazkinen aurkako atentatua ari dira aztertzen Hagan, Libiako Gobernuak partehartzerik izan zuen ala ez erabakitzeko, eta epaia eman aurretik NBEk parterik ez hartzea nahi dute herri arabiarrek ●

TXINA: sindikalista ez da manifestatuko

Han Dongfang-ek, Txinako lehendabiziko sindikalista disidenteak atzo adierazi zuen Gobernu txinatarrak hartutako erabakia errespetatuko duela eta ez duela Legebiltzarraren aurrean manifestaziorik egingo, sindikatu independienteak legeztatzea eskatzeko. Dena den, Han Donfangek ez duela etsiko adierazi zuen ●

ATLANTISen jaurtiketa atzeratuta

Atlantis transbordadore espaziala ez zen aireratu atzo, hidrogeno eta oxigeno ihesak zituelako. Cape Canaveral-etik irten behar zuen atzo Atlantisek, baina ihesak zein lekutik irteten ziren somatzeko astirik izan ez zutenez, NASAko agintariek aireratzea bertan behera utzi zuten, jaurtiketa egiteko apenas sei ordu geratzen zirenean ●

EEBBek Patriot misilen salmenta ikertuko dute

Estatu Batuetako ikerketa komite berezi batek atzo ekin zion Israelek Txinari Patriot misilak edo bere teknologiaren berriak saldu dizkion salaketak ikertzeari. Talde hau atzo iritsi zen Israelera eta han hasiko dituzte ikerketak. Orain arte Txinak eta Israelek, zenbait militar iparramerikarrek egin salaketak ukatu egin dituzte ●

Margaret Thatcher kanpainan sartu da Majorri laguntzeko

LONDRES

Erresuma Batuko Alderdi Kontserbadoreak, Margaret Thatcher lehen ministro britainiar ohiarengana jo behar izan du hauteskunde kanpainarako, Alderdi Laboristaren indarra ahuldu nahian. Toriek laguntza eskatu behar izan diote 'Burdinazko Damari', nahiz eta 1990ean beraiek izan Thatcher boteretik kendu eta John Major lehen ministrorako hautatu zutenak.

Lehen ministro ohiak, ordea, ahaztuta dauka dagoeneko orduko gertaera hori, bere lankideen konfidantza galdu zueneko garai hori, eta gogor ekin dio John Majorren defentsan iragan asteburu honetatik. Thatcherrek Majorren hautagaitza «haginekin defendatzeko prest dagoela» adierazi zuen herenegun, kontserbadoreen kontraeraso kanpainari hasiera emanez. Orain arte, bai kanpainan baita inkestetan ere, laboristek aurre hartu diete toriei.

Major aldamenean zuela, eta buruzagi torien aurrean, Thatcher indarberrituta atera zen herenegun, kontserbadoreentzat laugarren garaipena eskatuz, Gobernu laborista osatzea ekiditeko. «Alderdi Laborista oraindik sozialista da eta hiritarren bizitzetan kontrol handiagoa ezarri nahi du» adierazi zuen lehen ministro ohiak.

Majorrek, berriz, esan zuen bere Gobernuak aurrikusten duen zerga ezarpenen murrizketak «talentu eta kualifikazio profesionaldunei pizgarriak aurkezten dizkiela, laboristek aurkeztutako aurrekontu alternatiboek, aldiz, klase profesionalei kalte besterik ez liekete egingo».

Aurrekontuen borrokan, Neil Kinnock-en Alderdi Laboristak ere gogor ekin dio, eta torien aurrekontuek gizarte klaseen arteko aldea handitu besterik ez luketela egingo argudiatzen dute.

John Major.

LABORISTEN BELDUR MALVINETAN

Malvina irletan, berriz, beldur dira datorren apirileko hauteskundeetan laboristen balizko garaipen batek Atlantiko hegoaldeko artxipielago honen subiranotasun britainiarra zalantzan jarriko duen, atzo 'Daily Mail' egunkariak argitaratu zuenez.

Egunkari britainiarraren arabera, Malvinetako herritarrek John Majorren administrazio kontserbadoreak boterean segi dezala nahi dute, Gobernu tori batek britainiarrak izaten jarraitzeko duten guraria errespetatuko duela eritzi bait diote. Beldur dira, ordea, Gobernu laborista bat Argentinarekin elkarrizketatzen hasiko den Malvinen etorkizuna eztabaidatzeko. Horregatik, Malvinetako britainiarrak gogor jarri dira eta adierazi dute beraiek kontutan hartu gabe ez dietela laboristei negoziatzen utziko.

Militar thailandiarrek militarren aldeko alderdiei eman zieten botoa.

Thailandiako hauteskundeetan militarren ingurukoak garaile

Gehiengo garbirik ez izateak arazoak ekarriko ditu Gobernua osatzeko

Armadaren onespena duten alderdiek lortu zuten botoen gehiengoa herenegun Thailandian egin ziren hauteskundeetan. 1991ko apirilean militarrek emaniko Estatu kolpeaz geroztik egin den lehen bozketa izan da hau.

M.OIARTZABAL / DONOSTIA

Militarren aldeko hiru alderdi nabarmendu ziren, Legebiltzarra osatzeko eserlekuen % 51 eskuratu bait zituzten. Aldiz, militarren eragin gutxiago jasotzen duten alderdi demokratiko nagusiak % 44en inguruan egongo lirateke. Ez dago gehiengo argirik lortu duen alderdirik eta Legebiltzarrean ordezkariak izatea lortu duten alderdi ezberdinek Gobernu berria osatzeko hizketaldiak hasi beharko dituzte.

Militarren aldeko alderdi horietako bat 1991ko Estatu kolpeak agintetik kendu zuen Chatichai Choonhavan lehen ministro ohiarena da. Hauek bigarren indarra izan dira eta 75 eskainu lortu dituzte. Samaki Tam lehen alderdiak, berriz, 80 lortu ditu. Legebiltzarra osatzeko 360 eserleku zeuden jokoan igandeko hauteskundeetan.

ESPERO ZIREN EMAITZAK

Emaitza hauek ikusita, azken urtean agintean egonden Junta Militarrak bere helburuak lortu dituela esan daiteke. Botoemaleen joerak bere indarra nolabait legitimatzeaz gain, era honetan Gobernu berria osatzerakoan militarren partaidetza bermatuta dago. Baina egoera hau ez da inolaz ere ezusteko bat, hauteskundeak aurrez oso ondo prestatu bait zituzten militarrek. Alderdi indartsuenak bereganatzeaz gain, Senatuko partaide guztiak Juntak hautatuko ditu.

Gainera, Thailandiako alderdi demokratek Juntak alderdi irabazleei gobernuburua inposatuko dietela uste dute. Izan ere, militarrek argi eta garbi utzi zuten irabazleak akordiora iristea zaila izango zela, gehiengo garbirik ez zelako lortuko. Hori konpontzeko egokiena jeneral bat gobernuburu izendatzea zela zioten Juntakoek. Aukera hori dela eta, kezkatuta agertu dira indar demokratikoak. Herriak aukeratu ez duen gobernuburu bat izendatzea onartezina dela pentsatzeaz gain, neurri horrek ondorio larriak ekarriko lituzkeela uste dute.

HOGEI pertsona hil ziren New Yorken herenegun gauean izaniko hegazkin istripuan eta beste hiru lagun galdu, USAIR konpainiako hegazkin batek aireratze eteteko saialdia egin zuenean. New Yorkeko aireportutik irten behar zuen Fokker 28 hegazkinak bi orduz atzeratu zuen hegaldia, zegoen elurrak aireratzea galerazten zuelako. Gerora, ordea, aireratzea erabaki eta lurra utzi zuen unean, pilotuak berriro lurreratzea erabaki zuen eguraldiak okerrera egin zuela ohartzerakoan. Horrek eragin zuen istripua, hegazkina lurreratu zenean errebotatu eta su hartu bait zuen. Argazkian salbamenduko taldeak ageri dira galdutako lagunen bila. Guztira 51 lagun zihoazen hegazkinean.

Heriotz zigorra berrezartzeak haserrea sortu du Hego Afrikan

JOHANESBURG

Hego Afrikako Gobernuak kritika gogorrak jaso zituen atzo, herenegun heriotz zigorra berrezartzeko erabakia hartu ondoren, eta hamazazpi zigorturen exekuzioa iragarri eta gero. Kritika guztiak giza eskubideen aldeko erakundeek egin zioten Frederik De Klerk-en Gobernuari.

Herenegun gauean eman zuen Justizia Ministeritza hegoafrikarrak hamazazpi kondenaturen berehalako exekuzioen berri, «ezin izan bait zaie zigorrik barkatu, oso delitu larriak egin bait zituzten». 1989ko azarotik Hego Afrikan inor exekutatu ez badute ere, 1990eko uztailean indargabetu zen behin-behinean heriotz zigorra.

Jan Van Rooynen katedratikoa, Heriotz Zigorraren Aboliziorako Elkarteko kidearen arabera, exekuzio gehiago egiteak «Hego Afrikako etorkizun demokratikorako egiten ari diren elkarrizketetan eragin negatiboa izan dezake». Elkarrizketa hauen barnean dauden talde batzuek, Afrikako Kongresu Nazionalak besteak beste, puntu nagusietariko bat gisa heriotz zigorra indargetzea aipatzen dutela gogorarazi ondoren, Van Rooynenek eritzi zion Gobernuaren jarrera hau elkarrizketetan agertutakoaren guztiz aurkakoa dela.

Mureinik, Wits Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoaren arabera, berriz, De Klerken Gobernuak «traizioa egin dio iragan martxoaren 17an bakearen aldeko botoa eman zuen hauteslegoaren gehiengoari.

FUTBOLA

Realak Europarako ateak zabalik ditu Carranzan berdindu ondoren

Osasuna lau negatiboz arituko da igandean Sadarren Barcelonaren kontra

Realak sailkapeneko seigarren postuari eutsi zion Ramon de Carranzan Cadizi puntu bat ostu ondoren. Osasunak, ordea, beste positibo bat galdu zuen Sadarren Atletico de Madriden kontra, Barcelonaren kontrako partiduaren atarian. Zigandak azkenik garrantzi handiko garaipena eman zion Athletici San Mamesen.

RAMON BASALDUA / **BILBO**

Gero eta gutxiago falta da liga txapelketa amaitzeko. Hamaika partidu edo hogeitabi puntu, hain zuzen. Hori dela eta hemendik aurrera jokatzen diren partiduek sekulako garrantzia dute, bai bigarren mailara jaisteko arriskua baztertu nahi dutenentzat eta baita UEFAn sartu nahian ari diren taldeentzat ere. Kontutan izanik, beti ere, Liga txapelketa Real Madrid eta Barcelonaren kontua dela.

Txutxi Arangurenek zuzentzen duen Athleticek garrantzi handiko partidua jokatu zuen igandean San Mamesen Mallorca taldearen kontra. Zurigorriek entrenatzaile berria dutenetik ez dute puntu bat bera ere galdu etxean jokatu izan dituzten bi partiduetan. Hala ere, Jose Angel Ziganda berak adierazi duenez, Athletic larri ibiliko da etxetik kanpo puntuak lortzen hasi arte. Ez zaio ez arrazorik falta nafarrari.

Lau puntu besterik ez daude, Athletic eta promozio postuetan dagoen Españolen artean. Hori dela eta zurigorriek ezin dute puntu bat bera ere galdu San Mamesen, bestela hondamendia etor bait daiteke. Igandeko norgehiagokako puntu biak Athleticentzat izan ziren arren, Mallorcak sekulako partidua egin zuen. Zurigorriek garrantzi handiko bi partidu jokatuko dituzte datozen bi ihardunaldietan, Españolen kontra Sarrian eta Realaren kontra San Mamesen. Bi norgehiagoka hauetan gertatutakoaren arabera argitu edo ilundu daiteke Athleticen etorkizuna.



Bustingorri gorritxoa, Manolo aurrelariarekin norgehiagoka. EFE

GOLIK SARTU EZINIK

Osasunak puntu bat lortu zuen igandean Sadarren Atletico de Madriden kontra jokatu zuen partiduan. Partiduan ikusitakoaren arabera gorritxoek, koltxoneroek baino merezimendu gehiago egin zuten. Hala ere, bigarren zatia nola hasi zen ikusirik, pozik egoteko arrazoriak ditu Iruñeako taldeak. Pedro Mari Zabalzak entrenatzen duen taldeak egutegi ikaragarriari ekin zion igandean, Atletico de Madriden kontra jokatu ostean, Barcelona eta Valencia izango bait dira gorritxoen arerioak.

> Athleticek ez du puntu bakar bat ere galdu San Mamesen, Arangurenek entrenatzaile kargua hartu zuenetik.

Barcelona dator hurrengo asteburuan Sadarrera eta gauzak nola dauden ikusirik, batek baino gehiagok berdinketa sinatuko luke. Osasunak eragozpen handia du aurtengo denboraldian, sekulako arazoak bait ditu golak sartzeko. Mallorca alde batera utzi eta Osasuna da lehen mailan gol gutxien sartu dituen taldea, hogei bakarrik hain zuzen. Zabalzak zuzentzen duen taldeak bi puntura du Español eta hirura Cadiz. Datozen bi partiduetan punturik lortzen ez badu areagotu egin daiteke gorritxoen egoera larria.

ETXEKO PARTIDUETAN EUTSI

John Benjamin Toshackek entrenatzen duen Realak denboraldi honetako laugarren positiboa eskuratu zuten Ramon de Carranza futbolzelaian.

Positibo honek garrantzi handia du bai, baina donostiarrek biak eskuratzeko aukera izan zuten, bigarren zatian gol aukera garbiak izan bait zituzten. Sailkapeneko erdikaldean ari den talde batentzat positibo bat nahikoa izan daiteke. Ez, ordea, Europako txapelketan sartu nahi duen taldearentzat.

OSASUNA taldeko jokalariak dira protagonista aste honetako selekzioan. Gorritxoek berdinketa besterik ez zuten lortu etxean, baina benetan partidu ona jokatu zuten. Athletic taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen San Mamesen, Mallorcaren aurka. Arangurenen taldeak gol aukera asko egin zituen eta bi sartzeko gai ere izan zen, Zigandaren lan bikainari esker. Realak positibo garrantzitsua lortu zuen Cadizen, baina uste baino arazo gehiago izan zituen. Toshacken mutilek ez zuten aurreko ihardunaldietako maila bikaina erakutsi.

ASTEKO SELEKZIOA

SAILKAPENA

18 Martin Gonzalez
15 Juan Antonio Larrañaga
12 Oceano, Eugenio Bustingorri
11 Jokin Uria, Ernesto Valverde, Jan Urban
10 Jose Luis Gonzalez, Roberto, Bittor Alkiza
8 Ritxi Mendigurén, Pepin, Asier, Josu Urrutia
7 Andoni Lakabeg, Patxi Salinas



Parentesi artean jokalari bakoitzak izan dituen agerraldiak.

IHARDUNALDIA 27

JUAN IEREGI

Osasunak bizirik dirau

Osasuna ez da ari gorantzako bidean. Talde nafarra promozio postuetatik puntu bakarrera dago sailkapenean, eta jaitsiera zuzenetik hiru puntura, Liga txapelketako azken ihardunaldia jokatu ondotik.

Jarraian gorritxoek izango duten egutegia, kontrario izango dituzten taldeei erreparatuz gero, ez da batere onuragarria Osasunaren interesentzat. Nafarrek Sadarren Barcelona, Real Madrid eta Sevilla —talde indartsuak— hartu behar dituzte. Eta etxetik kanpoko partiduetarako iragarpenak hebexeak izan badaitezke ere, ez dirudi puntuatzeko aukera handirik ere izango dutenik.

Berandu erreakzionatu du Osasunak. Zabalzaren agindietara ari diren jokalariak ez dira nabarmena zen arriskuaz jabetu, orain aste gutxi arte. Taldeak konfidantza osoa merezi zuen, gora egiteko gai izango zelakoan, eta emaitza txarrei ez zaie behar adinako garrantzirik eman; orain agerian geratu bada ere haien benetako garrantzia.

Hain egoera larrian gora egiteko beharrezko den mentalizazioa, denboraldiko partidu zailenekin batera iritsi da. Eta gainera, lesioak gehiegizko zama bihurtu dira Osasun, eta eragin handiegia izan dute hain plantila murritzean.

Cholo izan da ebakuntza gelatik pasa beharra izan duen azken jokalaria, eta Urban abduktoreetako lesioarekin ari da jokatzen, halabeharrez.

Osasunak bere indarren gainetik ere egin beharko du borroka aurrerantzean, estuasun handiagoak eragozteko. Azken bost urteetako krisialdirik latzena iragaten ari dira gorritxoak. Taldeak eta zalegoak bat egin behar dute elkarlanean, indarrak batuz. Atletico de Madrid taldearen kontrako partidu ostean Pedro Mari Zabalzak esan zuen bezala, Osasunak oraindik bizirik dirau.

SASKIBALOIA

Antonio Gomez Carrak trago txarra hartu zuen Askatuaken aurka.

Askatuakek B1 multzoko lehen postua eskura dezake oraindik

RAMON BASALDUA / **BILBO**

Askatuakek B1 multzoko lidergoa lortzeko aukerak baditu, azken ihardunaldian Caja Bilbaori irabazi ondoren. Hala ere, Antonio Gomez Carrak entrenatzen duen taldea da lehen postu hori eskuratzeko aukera gehien dituena, izan ere, datorren ihardunaldian Obradoiro La Casillan gailentzea nahikoa izango bait luke. Askatuakek, ordea, Melillan irabazteaz gain Obradoiroren garaipenaren zain geratu beharko luke.

Edozer gerta daiteke datorren ihardunaldian, baina gauza bat argi utzi zuen Askatuakek Josean Gasca kiroldegian Caja Bilbaoren kontra jokatu zuen partiduan, hau da, Josean Aldalurren mutilak goi mailako jokoa egiteko gai direla eta jaitsierako ligatxoan sartu badira, partidu batzuetan eginiko okerren erruz izan dela. Caja Bilbaori dagokionez, lotsagarri aritu ziren bilbotarrak Askatuaken kontra. Hamasei puntu baino gutxiagoz galtzea nahikoa zuten bilbotarrek lehen postua matematikoki eskuratzeko. Hala ere, Antonio Gomez Carrak zuzentzen dituen gizonek lan negargarria egin zuten Donostian.

Caja Bilbaok hiru aldiz irabazi izan dio Askatuaki denboraldi honetan, baina laugarren partiduan galtzaile izateak kalte handia sor diezaioke Bilboko taldeari Obradoiro menperatzea lortzen ez badu. Askatuakek, ordea, aurrerapausu handia eman du Caja Bilbaori irabaztearekin. Donostiarrek lehen postua eskuratzeko aukera gutxi batzuk izateaz gain, ia ziurtatua dute bigarren postua. Bigarren geratuz gero, B2 multzoko hirugarrenaren kontra jokatuko lukete, hau da, Santa Colomaren kontra. Horrela gertatuko balitz, donostiarrek play offeko bost partiduetatik hiru, etxean jokatuko lituzkete.

Hutsarte baten ondorioak

Antonio Gomez Carrak, Caja Bilbaoko entrenatzaileak, hutsartea eskatu zuen Caja Bilbaok eta Askatuakek La Casillan jokatu zuten azken norgehiagoka amaitzeko segundu gutxi batzuk falta zirenean. Partidua erabakita zegoen arren, Gomez Carrak hutsartea eskatu zuen, Askatuak taldeko zenbait partaideren haserrerako. Bilbotarren entrenatzaileak, partiduko azken saskiratzea ziurtatu nahi izan zuela esan zuen, basket averagea «oso garrantzitsua gerta zitekeelako». Gomez Carrak noski, ez zion jaramonik egin donostiarren haserreari.

Aste batzuk beranduago hutsarte horren buelta etorri zaio Gomez Carrari. Caja Bilbaok Askatuakekiko basket averagea galdu zuen larunbatean Josean Gasca kiroldegian jokaturiko partiduan, eta Donostiako direktibo batek gogoratu egin zion bilbotarren entrenatzaileari Bilbon eskatu zuen hutsartea. Gomez Carrak ez zuen gogo onez Askatuakeko ordezkariaren jarrera eta ez zitzaion askorik falta izan zartakoren bat emateko ere. Gomez Carra erratuta dago Jaungoikoa dela uste badu.

Taugresen benetako aukeren berri emango duen astea iritsi da jada

Estudiantes eta Barçaren aurkako lehiak erabakiorrak izango dira

Ostegunean Estudiantes eta igandean Barcelona izango dira Taugresen benetako aukerak neurtzeko uneak, sailkapeneko lehen lau postuen artean amaitu ahal izateko. Play-offak jokatzeko modua erabakiko duten partiduotako prestakizunetan dabil Baskonia, Barcelonaren kontrakoa 'klubaren egun erdia' egin duena.

LUIS KARLOS GARCIA / **GASTEIZ**

ACBko txapelduna emango duten play-offetara iristeko gutxi falta da. Ostegunean Madrilen Estudiantesen aurka eta igandean Gasteizen Barcelonaren kontra, Herb Brownen taldearen aukerak noraino hel daitezkeen neurtzeko partiduak izango dira, ondorengo play-offetako azken pausuetan ziur aski Baskoniak izango dituen aurkariak bait dira.

Taugresen egoera objektiboa, gainera, aste honetako neurketetara baikor begiratzeko modukoa da. Otsailaren 8tik ez du partidu bat bera ere galdu Ligan. Aldiz, Forum edo Elosua bezalako taldeak menperatu ditu, Dicenta eta Sibilio osatzen ziren bitartean.

Gaur egun, antza, taldea fisikoki eta psikologikoki prest dago gogorrak gertatuko diren Estudiantes eta Barcelonaren kontrako partiduei aurre egiteko. Azken ihardunaldian, OARen aurka, amaieran bertan Carlos Dicentak sartu zuen hirukoak garaipena ezezik, benetako orduari ekiteko nagusitasun mentala ere eman diezaioke taldeari. Etzi eta igandean frogatu beharko dute.



Lavodramaren ahaleginak ez ziren nahikoa izan Taugresi irabazteko.

> Play-offen atarian Taugresen egoera baikor izateko modukoa da, otsailak 8az geroztik ez bait du galdu Ligan.

Estudiantesen kontrako partidua gaueko 8etan izango da eta ETBk zuzenean emango duela iragarri da. Barcelonaren aurka igandean jokatuko dutela jakin erazi du Baskoniak, baina baita partidua larunbatean izan litekeela ere.

Oraingoz argi dagoena, Barcelonaren kontrako neurketa 'klubaren egun erdia' izango dela. Sarrerak Araba Pabilioian bertan edo Florida kaleko bulegoetan aldez aurretik erosteko deia egin du Baskoniak. Garestiena 1.500 pezetakoa da, merkeena 700 pezetakoa eta haurrak dohainik sartuko dira.



Vlade Divac.

Vlade Divac jugoslaviarrak NBAn segitzeko arazoak izan ditzake

NEW YORK

Vlade Divac, NBAko Los Angeles Lakers taldeko jokalari jugoslaviarrak arazoak izan ditzake taldean jarraitzeko. Divacek Beogradeko Partizan taldean jokatzen zuen 1989an NBAra joan aurretik. Kontratua hiru urtekoa zen, eta klausula berezia zela eta, pibotak Partizanera itzuli beharra zuen epe hori amaitutakoan.

Hala ere, Jerry West, Lakers taldeko manager nagusiak Vlade Divaci kontratua berritzea erabaki zuen, Partizan ezertarako kontutan hartu gabe. Kontratu berri honen arabera, Divacek beste sei denboraldi jokatuko ditu Lakersen, eta iturriek aditzera eman ez dutenez, jokalariak hiru milioi dolar (300 milioi pezeta inguru) jasoko ditu urteko.

Baina istorio polita zirudienak gaizki buka dezake. Partizanek kontratua errespetatzeko eskatu dute, eta beraz, jokalaria Beogradeko taldera itzultzeko. Radojica Nikcevic, Partizaneko lehendakariaren esanetan, «behar den tokiraino iritsiko gara. Legeak Divac Partizaneko jokalaria dela dio, denboraldi hau amaitzen denean, eta beraz, Lakersek eskaini dion kontratua baliorik gabe geratzen da, Californiako taldea gurekin akordiora heltzen ez bada».

Divac titular izan da Lakers taldean azken bi denboraldietan, eta bera da hain zuzen ere, Californiakoen etorkizunerako itxaropenik handiena.

FLASHAK

■ **NGUGI** kenyarrak irabazi zuen Munduko Kros Txapelketa gizonezkoetan eta proba horretan bostgarren titulua lortu zuen. Martin Fiz ez zen nahi bezain ondo ibili, eta 24. amaitu zuen, aurreneko zuria izateko ametsetik urrun. Emakumezkoetan Lynn Jennings estatubatuarrak irabazi zuen, hirugarren titulua lortuz.

■ **BILBAO ATHLETIC**ek martxa onean darrai eta igandean, puntu garrantzitsua lortu zuen Eibarren aurkako partiduan. Euskal derbi horretako emaitza 1—1ekoa izan zen. Sestao ere gorantz doa eta 2—1 irabazi zion Sabadelli.

■ **JUVEN**ek ezin izan zion irabazi Europako talde onenetarikoa den Dornari. Donostiako neskek izugarrizko egurra jaso zuten (54—101). Beraz, Espainiako lehen mailako finalean izateko ia aukerarik ez dute Juvenekoek.

■ **NIGEL MANSELL** britaniarra izan zen Formula 1eko Mexicoko Sari Nagusian garailea. Jadanik, bi proba jokatu dira eta Mansellek irabazi ditu biak. Munduko Txapelketako sailkapenean bera dago lehen postuan eta bigarren Riccardo Patrese da.

■ **STEFAN EDBERG** suediarra ATPko lehen postuan dago berriro ere. Hilabete batzuetan Courier tenislari estatubatuarra egon da sailakapeneko buruan, baino Edbergek bere jokoa nolakoa den erakutsi du azken egunotan eta bera da orain munduko tenislari onena.

■ **PAUL ACCOLA** eskiatzaile suitzarrak irabazi du Munduko Kopa 1.699 punturekin. Bigarren Alberto Tomba italiarra izan da 1.362 punturekin. Slalomari dagokionez, postuak aldatuta bukatu dute bi eskiatzaile hauek, hau da, Tomba lider eta Accola bigarren.

■ **BERNARD HINAULT** txirrindulari ohiak eman zion hasiera atzo Bilbao-Bilbao probako V edizioari. Guztira 7.000 txirrindulari bildu ziren 119 kilometroak egiteko. Proba hau, munduko garrantzitsuenetakoa bihurtzen ari da.

■ **CHICAGO BULLS** taldeak 13. partidua galdu zuen Orlandon. Hala ere, ez dirudi inor lidergoa kentzeko gai izango denik eta laster hasiko diren NBAko play-offetan egoera ezin hobean sartuko dira.

TXIRRINDULARITZA

Jean Claude Colottik irabazi zuen Setmana Catalanako lehen etapa

Kumer PDMko txirrindulariak 100 kilometroko ihesa egin zuen

Jean Claude Colotti txirrindulari frantziarrak irabazi zuen Setmana Catalana probako lehen etapa. Z taldeko gizonak sprintean lortu zuen garaipena, Sammy Moreels eta Jose Rodriguezen aurretik. Mario Kumerrek (PDM) 100 kilometro inguru egin zituen ihes eginda.

LLORET DE MAR

Atzo hasi zen Lloret de Mar herrian Setmana Catalana txirrindulari proba. Bost etapa izango ditu guztira, eta bertan nazioarteko tropeleko ia izar guztiak bildu dira, besteak beste, Claudio Chiappucci, Gianni Bugno, Stephen Roche, Franco Chioccioli eta Pedro Delgado.

Aurtengo edizioak ez du erlojupeko probarik, eta mendiko etapak ere oso urriak dira —hirugarren etapan igoko den La Comella mendatea da aipagarriena—. Beraz, ez da alde handirik lortzeko aukerarik izango, eta garrantzi handia hartuko dute etapa bakoitzean lortutako postuek.

COLOTTIK ETAPA ETA LIDERGOA

Jean Claude Colotti txirrindulari frantziarrak eskuratu zuen Setmana Catalanako lehen garaipena, 4.24.49ko denborarekin. Z taldekoak sprintean irabazi zuen etapa, Sammie Moreels eta Jose Rodriguez txirrindularien aurretik. Colottik urrutitik eraso zuen sprintean, eta lehen postuari eutsi zion helmugara arte, atzetik Moreels eta Rodriguez oso indartsu joan baziren ere.

Jean Claude Colotti, pozik, etapa irabazi ondoren.

Dena den, atzoko etapak izan zuen beste protagonista garrantzitsu bat ere, Mario Kumer hain zuzen ere. PDM taldeko txirrindulariak 100 kilometro inguruko ihesaldia egin zuen, baina azkenean ez zuen tropelaren erritmo bizia eusterik izan. Lehen etapa honetako azken kilometroetan erasoak ugariak izan ziren, baina egia esan, oso zaila gertatu zen tropelaren kontroletik ihes egitea. Alex Zulle suitzarrak lortu zuen, eta atzetik erritmoa bizia zen arren, zenbait kilometrotan ihes eginda joatea ere lortu zuen. ONCEko gizona Lloret de Mar herriko kaleetaraino heldu zen, baina azkenean amore eman behar izan zuen.

Gaur bigarren etapa korrituko da, bi zatitan banatuta. Goizean Pineda-Santa Coloma tartea korrituko da (60 kilometro) eta arratsaldean berriz, bigarrena, Barcelona eta Tarrasa artean (88 kilometro). Gaur ere sprinterrek beren aukera izan dezakete.

Euskal taldeak motel play offetan

KOLDO ALDUNTZIN / **DONOSTIA**

Euskal taldeek hasiera kaskarra eman diote lehen mailara igotzeko play offari. Zortzi poule osatu dira, bakoitza lau taldeekin. Aurreko fasean poule bakoitzeko sei onenek eskuratu zuten txartela eta orduan lortutako postuen arabera parekatu dira play off hauetan.

Ez da nolanahiko kanporaketa izango, eta gainera, luzea. Joan zen igandean hasi eta joan-etorriko hiru norgehiagoka jokatu beharko dituzte asteburuero jarraian. Beraz, apirilaren 26ra arte aritu beharko dute, eta gero... Esan beharrik ere ez dago, galtzak bete lan izango dituztela euskal ordezkariak. Bestela, emaitza hauei begiratu bat eman besterik ez dago: Bokale 13, Bagneres 28; Mugerre 9 La Teste 9; Pontacq 23 Baigorri 15; A.S. Baiona 12, Rieumes 26. Mugerres taldeak bakarrik lortu zuen zerbait positiboa, bederatzina berdindu bait zuten.

Baigorri taldea.

ESPAINIA FRANTZIA FIRA-N

Frantziako selekzioak izugarrizko jipoia eman zion Espainiari FIRA txapelketako azken aurreko neurketan. Aspalditxotik maila galdua, Espainiak ez zuen jokoan ohorea besterik. Egia esan, partidu honetan oso argi geratu zen bi hamabostekoen arteko aldea.

Frantziarrek lehen mailan jokatzen duten jokalariak zelairatu zituzten: Dwergie, Marfaing, Ougier, Dal Maso, Velo, Chabowsky, Blond eta Benetton besteak beste. Espainiaren aldetik berriz, Altuna, Puertas, Azkargorta, Diaz Paternain eta Auzmendi euskal jokalariak aritu ziren besteak beste. Lurraldeen arteko txapelketan, gazteen mailan, Euskadik garaipen handia lortu zuen Valenciaren aurka 4. eta azken partiduan (0-51).

LABURREAN

EUGI eta Errasti bihar Bergaran pilota hautaketan

Patxi Eugi eta Jokin Errasti bihar goizeko 10.30etan agertzekoak dira Bergarako Udal Pilotalekuan, igandean jokatu behar duten Eskuz Banakako Txapelketa nagusiko partidurako material hautaketara. Agoizkoa eta azkoitiarra baino ordu erdi lehenago Tapia eta Ogeta selekzionatzaileek pilota otarra prestatuko dute. Eugi eta Errastiren arteko norgehiagokak grina handia eragin du, eta irabazleak Fernando Arretxe izango du aurrean, maila bat gorago ●

BELGIKAn zazpi entrenatzaile kanporatuak

Zazpi dira dagoeneko Belgikan Aurreneko Mailako futbol Ligan kanporatuak izan diren entrenatzaileak, 91-92 denboraldian. Atzo RC Liege taldeko entrenatzailea, Rene Verheyen, bere postutik bota egin zuten klubeko arduradunek, larunbatean Liege taldeak Bruggeren aurka 0-1 galdu ondoren ●

OLAZABAL 3. postuan da sailkapenean

Txema Olazabal hondarribitarra hirugarren postuan dago golf jokalarien munduko sailkapenean. Fred Couples estatubatuarra sailkapen honetako lider berria da, Orlandon jokatutako Nestle International txapelketan garaipena eskuratu eta gero. 1986an sailkapen hau ezarri zenetik, Couples da lehen postua lortu duen lehen estatubatuarra ●

JIM COURIER lehen tenislaria da irabaziei dagokienez

Jim Courier estatubatuarra aurreneko postuan dago tenislari profesionalen irabazien zerrendan. 45 miloi pezeta irabazi ditu. Bigarren postuan Michael Chang dago 39,5 miloi pezetarekin eta hirugarrenean Edberg 27,6 miloirekin. Suediarrak Tenislari Profesionalen Elkarteko sailkapeneko lehen postua lortu du, Courierrek Cay Biscainneko finalerdietan galdu eta gero ●

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 92

Txomin Ezponda izan zen Luzaideko garailea

Joanes Arrosagaraik bigarrenez egin zuen huts, parte ez hartzea erabaki bait zuen azken momentuan

Txomin Ezponda nagusitu zen joan den igandean Luzaiden egin zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren saioan. Bertsolari jatsuiarrak puntuaziorik altuena lortzeaz aparte gartzelako gai onenaren kopa eskuratu zuen.

JUAN KRUZ LAKASTA / **IRUÑEA**

Jose Migel Arginarenak eta Urko Atxotegik ere saio nahiko ona burutu zuten. Joanes Arrosagaraik berriz ere huts egin zuen, eta ez zuen saioan parterik hartu, Donazaharren egin zuen bezala.

Txapelketa saiorik ez zen sekula izan Luzaiden, inoiz bestelako saioak izan diren arren. Luzaidarrek eskertu egin zuten aurten antolatzaileek beren herria kontutan hartu izateak, eta bertako Antonio Sanchez Kultura zinegotziak beste batetan ere txapelketa Luzaiden gustora hartuko luketela azaldu zuen.

Bertso saioa udaletxepeko salan egin zen, 120 entzuleek areto txiki eta txukuna bete egin zuten, batzuk zutik, beste batzuk ataritik eta beste batzuk leihoetatik jarraitu behar izan zuten saioa. Betidanik esan da hobe dela areto txiki eta bete bat, haundia eta erdi hutsa baino, beraz giro ederra Luzaiden igande arratsaldean izan zena.

Iragarriak zeuden zortzi bertsolarietatik zazpi hartu zuten parte Luzaideko saioan. Fermin Mihura, Jose Migel Arginarena, Urko Atxotegi, Salbador Madariaga, Eusebio Fagoaga, Bautista Perurena eta Txomin Ezponda izan ziren Luzaideko saioan aritu zirenak. Zortzigarrenak, Joanes Arrosagarai, egundoko sorpresa eman zuen.

Toreroen hizkeran *espantada* izango litzateke egin zuena, izan ere bazkarian besteei bertsotan desafioka oso animoso ibili eta gero, aintzilearrek bazkalostean etxerako bidea hartu zuen, eta ez zen saioan agertu. Donazaharren bezalaxe, Luzaiden ere Alkhat aritu zen Joanes Arrosagaraik utzitako hutsunea betetzen, honetan bere puntuazioa kontutan hartu gabe.

KONTRABANDISTA ETA GENDARMEAK

Ohizko samarrak izan ziren Luzaiden plazaratu zirenak. Badirudi Nafarroako Txapelketa ez dela lekurik egokiena berrikuntza handiegirik egiteko. Bertsolariak gustorago ibiltzen dira horrelakoetan ohizkoak diren gaiekin, eta badirudi entzulegoa aiseago sentitzen dela horrelakoak ematen zaizkienean. Gairik aipagarrienak, beharbada bi lirateke. Bata saioa Luzaiden izanik, eta muga desagertzear egonik, gendarme eta kontrabandista.

Bestea Luzaide Santiagoko bidean dagoen herria denez hauxe litzateke, bi erromes elkarrekin 400 kilometro oinez egin eta gero Luzaidera ailegatu dira, baina batek kotxea hartzen du.



Ezpondak gartzelakoan egin zuen lanik onena. CARLOS VILLAGRAN

Arrosagarai iaz Izuran.

> Donazaharren bezalaxe, Luzaiden ere Alkhat aritu zen Arrosagaraik utzitako hutsunea betetzen, honetan bere puntuazioa kontutan hartu gabe.

> Luzaideko saioan, oro har, ez zen lortu Donazaharren adina maila eta puntuazioetan 500 puntuko neurria ez zen bete, Ezpondak izan ezik.

Orain arteko puntuaziorik altuenak

Kexux Arzallus	(545,5) D
Xalbador	(544,5) D
Ernest Alkhat	(544,5) D
Txomin Ezponda	(520) L
J.M. Argiñarena	(505) L
Urko Atxotegi	(490,5) L
Antonio Olano	(480) D
Fermin Mihura	(482,5) L

(D): Donazaharren
(L): Luzaiden

Gainekoak antzeko gaiak izan ziren, umoretsuak. Bakarka kantatzeko gaian bertsolariek 50 urtez Ameriketan lanean eman ondoren sorterrira itzuli eta etxea husturik eta bazterrak sasiak janda aurkitu zuten.

Txomin Ezponda izan zen ofiziozko zein bakarkako lanetan saiorik txukunena burutu zuena, eta besteak beste, bakarkako lanean gartzelako gaian lortu zuen kopa saria berarentzako izatea, bere lanarekin oro har saioko puntuaziorik altuena lortzeaz aparte. Berak bakarrik gainditu zuen 500 puntuko maila.

Puntuazioetan bigarrena Jose Migel Arginarena izan zen, puntuazioen arabera, bigarrena Luzaideko saioan. Momentu batetan errazkindarrak txapelketan aritzeko moduan ez zegoela adierazi zuen, baina hain zuzen ere hori kantatu eta gero, hurrengo bertsoan, gartzelakoan, etorri zen bere saioko bertsorik onena.

ATXOTEGI ETA PERURENA

Urko Atxotegi hirugarrena izan zen, eta ofizioz ari zela neurri txikiko ariketan izan zuen okerragatik ez balitz izan, uruñarrak sailkapenean leku altuagoa lor zezakeen. Azpimarragarria izan zen ere Bautista Perurenaren lana. Eskola zaharreko bertsolaria, oso bertso goxoak ematen ditu beti, eta Luzaiden oso txalotua izan zen bere iharduna.

Puntuazioak hauek izan ziren: Txomin Ezpondak 520, Jose Migel Arginarena 505, Urko Atxotegi 490,5 eta Mihura 482,5. Esan bezala, Ezpondak eskuratu zuen Kopa saria. Bestalde, txapelketaren saio guztiak kontutan harturik, hauek lirateke lehenengo sailkatuak: Arzallus, Salbador, Alkhat, Ezponda eta Jose Miguel Argiñarena, guzti hauek 500 puntu baino gehiagorekin.

Aipatu egin behar da, saioa hasi aurretik Jean Louis Harinordoki 'Lakak' aurkeztuta, Iparraldeko eskola eta ikastoletan diharduten neska-mutil koskorrak aritu zirela bertsoetan.

Txapelketaren urrengo saioa Sunbillan izanen da, martxoaren 29an eta arratsaldeko lau t'erdietan. Bertan Manolo Arozena, Jose Fermin Argiñarena, Bittor Elizagoien, Bautista Madariaga, Jose Mari Fagoaga, Jean Louis Harinordoki 'Laka', eta Estitxu Arozena eta Xabier Silveira gaztetxoak.

Aurpegi gazteak

Aurpegi berriak agertzen ari dira nafar bertsolaritzan, eta oso gazteak gainera. Luzaiden Urko Atxotegi gazteak bigarren aldiz hartu zuen parte txapelketan. Urruñakoak ongi burutu zuen bere lehenengo lana, baina ofizioz ari zela, urduritasuna zela medio, oker galanta egin zuen. Neurri txikiko ariketa egiteko orduan, zortziko handiko doinua hartu zuen. Oker ari zen oharra pasa ziotenean, nekez konpondu zuen hankasartzea, eta kontzentrazioa erabat galdu egin zuen. Huts hori egin izan ez balu, bertsolari uruñarra oraindik gorago agertuko zen sailkapenean. Datorren asteko txapelketa saioan Estitxu Arozena eta Xabier Silveirak hartuko dute parte eta ziur aski ez dute, ez, saio eskasa egingo. Nafar bertsolaritzan belaunaldi berrietako gaztetxoak gogor sartu dira eta urte gutxitan eskola zaharreko bertsolarien nagusitasuna kolokan jartzeko gai izanen direla erakusten ari dira. Badirudi urte gutxitan belaunaldien arteko borroka latzak ikusteko aukera egonen dela nafar bertso txapelketetan.

Txomin Ezponda

Gartzelako gaian: 50 urte eman dituzu lanean Ameriketan. Sorlekura itzuli zara orain, eta etxea hutsik aurkitu duzu eta larreak sasiz beterik.

Ongi badakit zutarik urrun
gehiegi egon nizala
utzi zintudan konturaturik
oso xumea zinala
Oraino tipia daukat
nik diruaren ahala,
halarik ere hemen lanean
hasiko naiz berehala;
etxe maitea, nahi zaitut eman
lehenengo zinen bezala.

Denbora hori pasatu eta
oraintxe ditut kontuak
aldameneko alor hoietan
lapar batzuk indartuak
etxe maitea, bakartatean
denak dituzu hartuak
murruak ere lurrerat ari
ziloa du teilatuak
orain zoinek barka dezazke
nik zuri egin pekatuak.

Bertso kronika

Andoainen bertsoa eta Angelusa

Andoaingo Bertso Eskolak antolaturik, San Jose egunez, euskal tradizio zaharraren haritik, tartean Angelusa errezatuz, Arrate pilotaleku apainean sei bertsolari gipuzkoar izan ziren kantari.

LAXARO AZKUNE / **ANDOAIN**

Ohi bezala agurrekin hasi zen, eta Sebastian Lizasok, gehienetan ertzean jartzeko ohitura duenez, ia beti bezala berak hasi behar izan zuen kantatzen. Martin Rezabal 'Olaso-ren' agurra aukeratu dugu muestra gisa:

Ezer baino le(he)n nijoa orain
egun on bat ematera.
Joxe guztiak zoriontzeko
oraintxe daukat aukera.
Gaijartzailea ronda ordaintzeko
prestauta etorri ote da?
Konturatu gabe iritxi gera
udaberrian atera,
San Pedrok arte kanta dezagun
kukuarekin batera.

Angelusa izan genuen ondoren, Iñaki Agirre apaizak errezatua. Bertsolariak izan ziren ondoren hitza hartu zutenak eta Angelusa bera izan zen gaia:

Sebastiabek: *«Ikusiko da ia otoitzak / indarrik badun edo ez»*; Euskitze desafiorako ere ia prest agertu zen: *«Seiron artean ezetz asmatu / Aitagure bat esaten»*.

Olasok Sebastianen purua gogoratu zuen, errezo ordurako ez zela egokia esanez. Egañak intzentsuaren lekurako zela zioen. Peña txapeldunak, berriz, abenduaren 22koa bota zigun: *«Angelus ez nuen errezau baina / txapela neuk jantzi nuan»*.

Ondorengoek ere gisa horretan jarraitu zuten baina bi aukeratu ditugu.

Olasok:

Ta txapelduna ez da aurkitzen
bere txapelaren damuz.
Errezoaren indarra etzun
baizik faboriton erruz.
Egun harretan geroni ere
harritu giñaden erruz.
Angelusikan ez daki horrek
baizik bera da Angelus.

(Anjel Mari deitzen bait da, noski).

Egañak:

Erlijioan gaia guretzat
ez da goxo ta leguna,
Apaiz bat degu Angelusakin
bastante luze jarduna.
Eta gainera ondoan degu
Gipuzkuko Txapelduna,
gaia Afrika jarrita ere
txapela aitatzen duna.

Hurrengo saioan sagardotegiko giroan izan ziren, Euskitze eta Sebastian bertsolariak eta Peña ertzaina. Saio honetan Peñaren bertsoari Sebastianek emandako erantzuna gustatu zitzaidan bereziki. Peñak: *«ekarri dokumentuk, / ekarri karneta, / kendu egingo dizut / mozkorra zaude ta»*.

Sebastianek:

Le(he)n gurekin genduen
hainbeste egarri
ta sagardo freskoa
aukerako jarri.
Ertzaina karnet eske
ibiltzen da sarri.
Ez didazu kenduko
ez baitet ekarri.

Asko gustatu zen beste saioa Egaña eta Peñagarikanorena izan zen. Gaia ere originala zen eta bertsolariek ongi asmatu zuten: Egaña, Jose Luis Moreno sabeliztun edo bentrilokuoa eta Peña berè muñekoa. Egañak dotore zirikatu zuen muñekoa, eta egundokoak esan erazi ere bai: *«Erreala da mundu guztiko / futbol talderik onena»*, eta Euskitze dela «urrezko solteroa». Hirugarren galdera gehiegizkoa izan zen ordea, jendearen aurrean aitortzeko eskatu baitzion *«aurten Gipuzkun txapeldun gisan / Egaña behar zuela»*.

Peña muñekoak honela kantatu zuen:

Ezin da a(ha)ztu abenduaren
hoitabigarren eguna.
Izugarria ez al zan izan
honek egin zun jarduna.
«Gaia Afrika jarrita ere
txapela kantatzen duna».
Aizu Jose Luis, ez al dakizu
Peña dala txapelduna?

Aurretxoan Egaña Peñari arrazoi hori botata bait zegoen. Peñak oroimena eta erreflejo onak erakutsi zituen bertso honetan.

Bakarkako lanetan Egañak orkestako zuzendari gisa bere lagunei emandako musika tresnena izan zen politenetakoa. Horretan, berriz, honako hauek aipa daitezke: Sarasuari botatakoa *«Gure txikia izan diteke / zuzendariaren batuta»*; eta Sebastiani botatakoa: *«haize musika ondo jotzen du / aurretik eta atzetik»*.

Gainerako saioetan ez zen luzimendu gehiegirik egon. Bertso bat nabarmendu nahi nuke hala ere, Jon Sarasuak botatakoa. Euzkitze eta biak aiton-amona ziren, ispilu aurrean larrugorrian. Gai gordin xamarra izan arren nahiko fin aritu ziren:

Euskitzek: *«Gaur behintzat ezin berotu leike / kalefazioik ezian»*.

Sarasuak:

Nolanahi ere egoera hau
ez dut sentitzen arraro,
biok batera denborarekin
aldatu gera zeharo.
Kiskaldu zaizu ogia eta
labea hoztuta dago
ta hala ere gaur maite zaitut
sekula baino gehiago.

Gipuzkoako Txapelketako finalean kantatutako sei bertsolari aritu ziren Andoainen San Jose egunez. XOFOR



Jende asko bildu zen, bertsolariak txalotzeko prest. XOFOR

Fitxa teknikoa

Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Xabier Euskitze, Martin Rezabal 'Olaso', Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano eta Jon Sarasua.
Aurkezlea: Jose Manuel Oiartzabal.
Lekua: Andoaingo Arrate pilotalekua.
Eguna: Martxoak 19, osteguna, San Jose eguna.
Ordua: Goizeko 11.30etan zuen ordua, eta 20 minutuko atzerapenez hasi zen.
Iraupena: 85 minutu.
Entzuleak: 1.000 inguru. Gazte ugari. Oso giro ona.
Antolatzailea: Andoaingo Bertso Eskola, Udalaren laguntzaz. Ongi prestatua. Megafonia ere ongi.

Ez zen kalterako gertatu Angelusa

L. A. / **ANDOAIN**

Oro har bertso saioa balekotzat jo dezakegu. Izan zituen tarte oso politak, hemen adierazten saiatu garenez, baina izan zituen une hotz xamarrak ere. Angelusaren ondoren bertsolariek erakutsi zuten freskurak saio bikainagoa iragartzen zuela zirudien baina beti ez da asmatzen. Jendea oso animosoa zegoen, bertsolariak txalotzeko gertu, eta baita ateraldi borobilik zenean ongi asko jasotzen zuena ere.

Betiko dilema dugu aurrean, gaiek ala bertsolariek, zerk hutsegin ote zuen? Erantzuna dakienak hatza jaso dezala.

Amaieran bertsolari bat baino gehiago bazen bere ihardunaz nahiko haserre. «Ez duk saio ona izan», «ez nian ezer itxurazkorik sortzen» eta antzekoak esan zizkiguten.

Sebastianen eta Peñaren agurrei kaso eginez, Angelusak ez zuen nonbait etekin handiegirik ekarri bertsolarien irudimenera. Berari zor zaio ordea saioan eskainitako gairik emankorrena. Ez zen ba kalterako gertatu egun horretan.

IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

31 x 10 mm
EGUN BAT 480pta/21l
ASTEBETE 2.400 pta/104l
BI ASTE 4.100 pta/180l
HILABETE 6.300 pta/275l

31 x 15 mm
EGUN BAT 960 pta/42l.
ASTEBETE 4.750 pta/208l.
BI ASTE 8.300 pta/360l.

ALTZA
MONPAS
ORTZADAR
RIKARDO ARREGI
euskaltegiak
DONOSTIA - ERRENTERIA
ALTZA herria - 39 43 77
MONPAS - 27 27 11
ORTZADAR - 52 66 57
URUMEA
R. ARREGI - 46 46 55

31 x 33 mm

31x33 MODULOA
EGUN BAT 1.925 pta/84l
ASTEBETE 9.550 pta/416l
BI ASTE 16.550 pta/720l
HILABETE 23.250 pta/1.010l

31 x 33ko BI MODULO
EGUN BAT 3.850 pta/168l
ASTEBETE 19.100 pta/832l
BI ASTE 33.100 pta/1.440l
HILABETE 46.500 pta/2.200l

31 x 33ko LAU MODULO
EGUN BAT 7.725 pta/336l
ASTEBETE 38.300 pta/1.664l
BI ASTE 66.250 pta/2.880l
HILABETE 92.900/4.040l

ERAKUSKETAK

● ARRIGORRIAGA

Kultur Etxea. Saharari buruzko Jesus Angel Mirandaren argazkiak. Martxoaren 27a arte.

● AZPEITIA

Antxieta Kultur Etxea. Javier Olasoren marrazki eta pinturak. Apirilaren 4a arte.

● BAIONA

Romero erakustokia. Lannes pintorearen lanak. Martxoaren 31a arte.

● BASAURI

Erakusketa Aretoa. Lopez De Guereñuren pinturak. Apirilaren 1era arte.

● BILBO

Arte Ederretako Museoa. CHAMBAS eta OBJETOS DE LUZ, martxoaren 29a arte.

'Figurazino barritik figurazino azkera' erakusketa. Martxoaren 29a arte.

Arkeologia, Etnografia eta Historia Museoa. 'Ihauteriak' erakusketa. Maiatzaren 31a arte.

Aritza Galeria. Antonio Jimenezen pinturak. Apirilaren 11a arte.

Barrainkua Kultur Etxea. Jorge Perezen eskultura figuratiboak. Martxoaren 27a arte.

Montmatre galeria. Catasseren olioak. Martxoaren 28a arte.

Tavira galeria. Miguel Floresen pinturak. Martxoaren 27a arte.

Vanguardia Galeria. Luis Izquierdo-Mossoren argazkiak. Martxoaren 30a arte.

Bay-Sala Galeria. J. M. Lumbreras-en pinturak. Martxoaren 28a arte.

Eguberri. Manola Estebanen olioak. Martxoaren 31a arte.

Windsor galeria. Juan F. Lacombaren pinturak. Martxoaren 31a arte.

Otxarkoagako Zentru Zibikoa. 'Kirol imaginak'. Martxoaren 29a arte.

Montmartre. Catasseren olioak. Martxoaren 28a arte.

● DONOSTIA

Arteleku. 'Erretratatu' erakusketa. Juan Albin, Jon Mikel Euba eta Itziar Okariz. Apirilaren 3a arte.

Okendoko Kultur Etxea. Ulia Tailerraren pintura erakusketa. Apirilaren 30a arte.

Kutxako Aretoa. (Garibai) Nori Ushijimaren pinturak. Martxoaren 27a arte.

● EIBAR

Udaletxeko Erakusketa Aretoa. Rainer Fest eta Detlef Gunther-en eskultura eta pintura erakusketa. Martxoaren 29a arte.

● ELORRIO

Arriola Kultur Aretoa. Antonio Fernandez-en 'Antzerki argazkiak' erakusketa. Martxoaren 31a arte.

● GASTEIZ

Aitor Galeria. Agustin Ibarrolak, Josep Guinovartek, Mikel Diez Alavak, Bonifacio Alonsok eta Jose Antonio Sistiagak diseinatutako tapizak. Apirilaren 3a arte.

Alea galeria. Fernando Alearen lanak. Martxoaren 26a arte.

CM2 Galeria. Josu Ortizen pintura eta eskulturak. Apirilaren 4era arte.

Orghia Aretoa. Juan Luis Corcuera, Koko Rico, Alfredo Fermin Cemillán, Julio Torrecilla eta Pablo Milicuaren lanak. Apirilaren 4a arte.

Kultur Etxea. (Florida pasealekuan). Alfonso Arce Montejo, Juan Berrozpe Galindo, Valentin Iglesias Iturralde eta Jaime Orbañlanois Brinasten pinturak. Martxoaren 28a arte.

San Prudencio Aretoa. 'Berpizkundea eta barrokoa. Historiarako imaginak' izeneko erakusketa: Martxo osoan.

Ceramo Galeria. Luis Silva carballoren pinturak. Martxo osoan.

Cordon Etxea. AEKjira erakusketa. Martxoaren 30a arte.

● GETXO

Algortako Kultur Aretoa. Maria Luisa Fernandez eta Maria Uriarteren oleoak. Apirilaren 4a arte.

● IRUÑEA

Lacava Kafe-Galeria. P. Beltzunegiren lanak. Apirilaren 5a arte.

● IZURA

Haize Berri Kultur Etxea. Marrazkirri umore marrazki erakusketa Apirilaren 5a arte.

● LEKUNBERRI

Mitxausenea Kultur Etxea. Jose Antonio Vergara Beunzaren pintura erakusketa. Martxoaren 29a arte.

● MUNGIA

Torrebillela Kultur Etxea. Dean Winter-en pintura erakusketa. Martxoaren 31a arte.

● ZARAUTZ

Sanz Enea. Ameriketako Indigenismoari buruzko erakusketa. Martxoaren 29a arte.

EUSKADIKO Orkestra Sinfonikoak kontzertu bat eskainiko du gaur Iruñeko Gaiarre Antzokian. Iluntzeko zortziak laurden gutxiagotatik aurrera, A. Larrauti, W.A. Mozart eta A. Dvorak-en obrak entzuteko aukera izango dugu.

MUSIKA

● BARAKALDO

Neobop taldearekin jazza. Barakaldo Antzokian 20.00etan.

● BILBO

London Arts Orchestra. Zuzendaria: Paul Christ. Bakarlaria: Vanessa Latarche pianojolea. Gershwin eta Bernstein-en obrak joko ditu. Arriaga Antzokian 20.00etan.

● GASTEIZ

Ingeborg Dobozy sopranoa eta Ferenc Bognar pianojolearen kontzertua. Purcell, Schubert, Wolf, Ravel eta Schumannen obrak joko dituzte. Araba Kultur Aretoan 20.00etan.

● HERNANI

Eduardo Baranzano kitarrajolearen kontzertua. Udaletxeko Areto Nagusian 19.30etan.

● IRUÑEA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. A. Larrauti, W. A. Mozart eta A. Dvorak-en obrak joko ditu. Gaiarre Antzokian 19.45etan.

MENDI IRTEERAK

● BILBO

Aiako Harrira mendi ibilaldia. Martxoaren 29an izango da. Eguzki-Lorea Boluetako Mendi Taldeak antolatua. Informazio gehiago bertan eta telefono zenbaki honetan: ☎ 421 27 38.

● ZARAUTZ

Ozaeta-Pil Pil-Malkorra-Arantzazu ibilaldia. Martxoaren 29an izango da. Pagoeta Mendizale Elkarteak antolatua. Informazio gehiago bertan eta telefono zenbaki honetan: ☎ 13 29 11.

● TOLOSA

Mendi bizikleta ibilaldia: Ollogoien-Lokiz-Larrañeta-Kontrasta. Martxoaren 29an izango da. Irteera goizeko zortzietan Berazubitik. Alpino Uzturre Elkarteak antolatua. Izen ematea bertan egin behar da. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan: ☎ 65 27 89.

IHARDUNALDIAK

● BILBO

Sensibilizazio ikastaroak Miguel Dominguen Sevillanoren eskutik. Txurdinagako Pio Baroja ikastetxeko jimnasioan izango da (Gabriel Aresti, 1) apirilaren 3, 4 eta 5ean. Matrikulatzeko epea bihar amaituko da. Bergarako UNED-eko Psikomotrizitate eskolak antolatu du. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, ☎ 943-76 13 42 telefono zenbakira deitu.

● DONOSTIA

'Euskal Herria bake bidean' gaiari buruzko mahai ingurua. Hizlariak: Joseba Egibar, Inaxio Oliveri, Patxi Zabaleta, Euskariako kide bat eta Garraxi Ixileko beste bat. Herria 2000 eliza aldizkariak antolatua. Arrasate kaleko Kutxa Aretoan 19.30etan.

'Emakumearen arima' gaiari buruzko hitzaldia, Lourdes Astrain orkestra eta koru zuzendariaren eskutik. Okendo Kultur Etxean 19.00etan.

'Kristoren irudia artearen Historian' gaiari buruzko hitzaldia. DEM Hitzaldi Aretoan (Familia Santu Kalea, 11) 19.30etan.

● EIBAR

'Emakume beltza eta erresistentzia' gaiari buruzko hitzaldia. Udaletxeko Areto Nagusian 18.30etan.

● ERRENTERIA

'San Marcos-eko zabortegiari' buruzko hitzaldia. Reina Aretoan 19.30etan.

● IRUN

'Haur heziketako hizkuntzarako proposamen kurrikularra' ihardunaldia antolatu du Txingudi Ikastolak martxoaren 30 eta 31 eta, apirilaren 1 eta 2rako. Rosa Mª Arano Ziarretak eta Elena Berazadi Larreak emango dute. Ikastolan egin beharko da matrikula biharko. Informazio gehiago bertan eta telefono zenbaki honetan: ☎ 61 60 54.

● IRUÑEA

VIII Folklore eta Kultura Tradizionalari buruzko Ihardunaldiak. 'Emakumea herri kulturan'. Ortzadar taldeak antolatu du. Urriaren 26tik 31 bitartera izango dira. Proposaturiko gaiaz txostenak aurkeztu nahi duenak, ekainaren 30erako edukiaren laburpen motz bat eta izenburua bidali beharko du Ortzadar taldera. Ihardunaldietan inskribatzea dohainik izango da. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan: ☎22 31 07.

● ZARAUTZ

'Iparramerikako indioak' gaiari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Jesus González Ozas antropologoa. Sanz Enea erakusgelan 19.30etan.

LEHIAKETAK

● ATARRABIA

'Pedro Atarrabiakoa' IV Kondaira Lehiaketa. Euskaraz edo gazteleraz egin daiteke. Lanak aurkezteko epea martxoaren 31ean amaituko da eta Beti Onaken bulegoetara bidali behar da (Atarrabia, 1- 31610).

● BERGARA

VII Literatura Lehiaketa. Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edonork har dezake parte eta edozein literatura genero jorratu daiteke. Adinaren arabera, sei taldetan banatuko dituzte lanak. Lanak, Udaleko Euskara Zerbitzura bidali behar dira apirilaren 21a baino lehen. Informazio gehiago Udalean.

● BILBO

Ingurugiro eta Naturari buruzko Ipuin Lehiaketa antolatu du Bruño argitaletxeak. Euskaraz edo erdaraz izan daitezke lanak. 3-14 urte bitarteko neskamutil bilbotarrek har dezakete parte. Lanak Pat / Cop-ek Bilboko Padura kaleko 17. zenbakian daukan egoitzan utzi behar dira, eta lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 26a da.

● DEBA

VIII Literatur Lehiaketa Euskaraz, Debako haur eta gazteentzat. Lau maila bereiztuko dira: OHOko 3. eta 4. mailakoak, OHOko 5. eta 6. mailakoak, OHOko 7. eta 8. mailakoak eta, OHO bukatu dutenentzat (18 urte arte). Lanak aurkezteko epea apirilaren 14ean amaituko da eta Liburutegian utzi behar dira. Kultur Elkarteak antolatu du. ☎ 60 11 72.

● DONOSTIA

Donostiako 27. Jazzaldiarako kartel lehiaketa. Nahi duteek har dezakete parte. Lanak Kultur eta Turismo-Ekintzetxean aurkeztu behar dira martxoaren 27a baino lehen. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero ere, bertara jo.

Euskal Herriko II Joku Lehiaketa. Jokuak: Musa, xakea eta partxisa. Sariak: Parisera bidaia, liburu sortak, afariak... Donostiako euskal-toki guztiek hartuko dute parte. Lehiaketako finalerdiak martxoan zehar jokatuko dira Donostiari dagozkienak, eta Euskal Herri mailako final erdiak Iruñean izango dira apirilaren 4ean. Arrano Beltza Euskal Tokiak, Zaldiko Maldiko Elkarteak, Bagare Euskal Tokiak eta Lizarra ikastolak antolatua. Informazio gehiago aipatutako tokietan eta telefono zenbaki honetan: ☎ 42 52 13.

● GETXO

'Esaera Zaharrak Asmatzen' Txapelketa. Uribe Kostako AEKk antolatu du. Apirilaren 3an jokatuko da Algortan. Lau pertsonez osatutako taldeek parte hartu ahal izango dute. Txapelketa Uribe Kostako ikasle guztiei zabalik dago, eta parte hartu nahi duten taldeek Algortako Lauaxeta Euskaltegira deitu beharko dute biharko: ☎ 469 87 20.

● LAZKAO

III 'Gerriko' Idazlan-Sariketa. Edozeinek har dezake parte. Goierriri dagokion edozein Zientzia alorreko Ikerketa-lana izango da gaia. Honera bidali apirilaren 1a baino lehen: Goiherriko Euskal Eskola. III 'Gerriko' Idazlan-Sariketa. Elosegi, 16-1.a ezkerra. 20210 Lazkao.

ZINEMA-BIDEOA

● BILBO

'Yaaba'. Arte Ederretako Museoan 17.00etan.

● GASTEIZ

Zine Zientifikoa. 'La tierra: su atmósfera', 'El ciclo de las rocas', 'Las aguas subterraneas' eta 'La dinámica del océano: la acción del mar'. Araba Kultur Aretoan 20.00etan.

● GETXO

'Todo por la pasta'. Algortako Gurea zineman 19.00etan.

● HERNANI

Mendi-Zinemako Zikloa. 'Ur zuriak' eta 'Horrela mintzo zen Zaratrusta'. Sandiusterrin 20.00etan.

KARTELDEGIA

ARABA

● GASTEIZ

AZUL 1. **'El silencio de los corderos'.** Akt: Jodie Foster, Anthony Hopskin / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.

AZUL 2. **'Alas de mariposa'.** Zuz: Juanma Bajo Ulloa / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.

GURIDI. **'El cabo del miedo'.** Zuz: Martin Scorsese. Akt: Nick Nolte, Robert de Niro / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.

GURIDI. **'Sombras y nieblas'.** Zuz: Woody Allen. Akt: Woody Allen / 17.00 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.

GURIDI. **'Henry V'** / 17.00 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.

GURIDI. **'Cowboys de ciudad'.** Akt: Billy Cristal / 17.15 - 19.30 - 22.00. 13 gorak.

GURIDI. **'JFK'.** Zuz: Oliver Stone. Akt: Kevin Costner / 17.15 - 20.45. 13 gorak.

GURIDI. **'El último boy scout'.** Akt: Bruce Willis / 17.15 - 19.30 - 22.00. 18 gorak.

SAMANIEGO. **'Una mujer bajo la lluvia'.** Akt: Antonio Banderas, Imanol Arias / 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.

SAMANIEGO. **'Hay un muerto en mi cama'.** Akt: Kristie Alley / 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.

SAMANIEGO. **'Pesadilla final'.** Akt: Robert Englund / 17.30 - 19.45. **'Amantes'.** Zuz: Vicente Aranda. Akt: Victoria Abril, Jorge Sanz / 22.00. 18 gorak.

SAMANIEGO. **'Vacas'.** Zuz: Julio Medem. Akt: Emma Suarez / 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.

MIKELDI. **'Resplandor en la oscuridad'.** Akt: Michael Douglas, Melanie Griffith / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.

MIKELDIS. **'Bugsy'.** Zuz: Barry Levinson. Akt: Warren Beatty, Melanie Griffith / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.

MIKELDIS. **'Resplandor en la oscuridad'.** Akt: Michael Douglas, Melanie Griffith / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.

MIKELDIS. **'El principe de las Mareas'.** Zuz: Barbra Straisand. Akt: Nick Nolte, Barbara Streisand / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.

MIKELDIS. **Delicatessen'.** Zuz: Jeunet eta Caro / 17.30 - 20.15 - 22.30. 13 gorak.

MIKELDIS. **'Thelma & Louise'.** Akt: Ridley Scott. Akt: Geena Davis, Susan Sarandon / 17.30 - 22.30. 13 gorak. **'El rey pescador'.** Akt: Robin Williams / 20.00. 7 gorak. 13 gorak.

BIZKAIA

● BILBO

ASTORIA. **'JFK (Caso abierto)'.** Zuz: Oliver Stone. Akt: Kevin Costner / 17.00 - 20.30. 13 gorak.

AVENIDA 1. **'El último boy scout'.** Zuz: Tony Scott / 11.15 - 17.00 - 19.30 - 22.00. 18 gorak.

AVENIDA 2. **'El cabo del miedo'.** Zuz: Martin Scorsese. Akt: Robert de Niro, Nick Nolte / 11.15 - 17.00 - 19.30 - 22.00. 18 gorak.

AVENIDA 3. **'El principe de las Mareas'.** Akt: Barbra Streisand, Nick Nolte / 11.15 - 17.00 - 19.30 - 22.00. 13 gorak.

AVENIDA 4. **'Resplandor en la oscuridad'.** Akt: Michael Douglas, Melanie Griffith / 11.15 - 17.00 - 19.30 - 22.00. 13 gorak.

AVENIDA 5. **'Bugsy'.** Zuz: Warren Beatty. Akt: Warren Beatty, Annette Benning / 11.15 - 17.00 - 19.30 - 22.00.

AVENIDA 6. **'J.F.K.'.** Zuz: Oliver Stone / 17.00 - 20.30. 13 gorak.

AYALA. **'El silencio de los corderos'.** Akt: Jodie Foster / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.

CAPITOL. Ez dago emankizunik.

CAMPOS ELISEOS. Ez dago emankizunik.

COLISEO ALBIA. **'Bugsy'.** Zuz: Warren Beatty. Akt: Warren Beatty, Annette Benning / 17.00 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.

CONSULADO. Ez dago emankizunik.



SOMBRAS Y NIEBLAS Woody Allenek zuzendutako filmea Baiona, Gasteiz eta Iruñean dago ikusgai. W. Allen protagonista ere badugu, zuri-beltzean errodatutako filme horretan, Mia Farrow, Jodie Foster eta Madonnarekin batera.

GRAN VIA. **'Hay un muerto en mi cama'.** Akt: Kirstie Alley / 18.00 - 20.00 - 22.00. (Etenik gabeko emankizuna). 13 gorak.

IDEALES. **'El principe de las Mareas'.** Akt: Barbra Streisand, Nick Nolte / 17.00 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.

IDEALES. **'El cabo del miedo'.** Zuz: Martin Scorsese. Akt: Robert De Niro, Nick Nolte / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.

IDEALES. **'El gran cañón'.** Zuz: Lawrence Kasdan / 17.00 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.

IDEALES. **'J.F.K.'.** Zuz: Oliver Stone. Akt: Kevin Costner / 17.00 - 20.30. 13 gorak.

IDEALES. **'Bugsy'.** Zuz: Warren Beatty. Akt: Warren Beatty, Annette Bening / 17.00 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.

IDEALES. **'Delicatessen'.** Zuz: Jeunet y Caro / 17.30 - 20.15 - 22.30. 13 gorak.

